


Bapatean —2017



Argitalpen honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
© MINTZOLA AHOZKO LANTEGIA

Maketazioa: LANKU Bertso Zerbitzuak, S.L.

Argitaratzaileak:
MINTZOLA AHOZKO LANTEGIA
Nagusia, 70
20.150 Amasa-Villabona

EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
Nagusia, 70
20.150 Amasa-Villabona

I.S.B.N.: 978-84-946981-3-2

BAPATEAN 2017


Grabaketak: Xenpelar Dokumentazio Zentroak, Bertsozale Elkarreetako sail desberdinei zein borondatezko grabatzaileei esker jasotakoak.

Dokumentazioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkarrea.


Doinuen izendapena: Felix Irazustabarrena, Bertso Doinutegian oinarrituz.

Zuzenketak eta azken orrazketa: Martin Aramendi.



AURKIBIDEA

Hitzaurrea.	5
Argibideak eta irizpideak.	7
Bat-bateko bertso hautatuak.	8
Bat-bateko sariketak.	195
Bertso saioen mugimendua.	204
Tauletako kontzeptuen azalpena	208
Txapelketa eta sariketak.	213
Saioen aurkibidea.	244
Bertsoaldi hautatuak.	248
Bertsolarien aurkibidea.	252
Izen eta izengoitien deskribapena.	255



HITZAURREA

Telefono zenbaki ezezaguna mugikorreko pantaila argitzen. Izan liteke konpainiaz aldatzeko gonbidapena, gorde gabeko ezagunaren zenbakia edo saioa. Irribarre erdi batek salatu du zure ilusioa. Ezaguna zen, Vodafone-koa.

Agenda zabaldu eta astez aste egun horretara iritsi arteko orri soinua. Hor dago, zuk gezia eta herria noiz idatziko zain. Batzuetan hori baino ez baituzu apuntatuko, herria. Beste batzuetan herria, latitudea, aretoa, ordua, iraupena, bertsokideak, gai-emailea, ekinaldi bat ala bi, aurreko hogeitreetan nortzuk kantatu duten, eguraldi txarra eginez gero non egingo den eta zein eguraldi egingo duen apuntatuko duzu.

Gerora, agenda begiratuta errazago gogoratuko duzu, herria baino, barne-eguraldia, tzatzikia zer den, pareko afaltziarraren ogibidea, bertsokidearen puntu-erantzuna eta entzuleen eskuen tenperatura.

Saioak agendetan hasten dira bertsolariontzat, baina saioak ez dira agendetan hasten. Saio batzuk aktadun bileretan hasten dira, tabernetan hasten dira beste batzuk, bulego aseptikoetan besteak, bertsolarien ezinegonetan batzuk eta beste batzuk hasi egiten dira, besterik gabe. Bukatu, baina, zaila da asmatzen noiz bukatzen diren. Bukatzen dira hasterako, nahasterako, bukatzen dira ordu txikitik, bukatzen dira gozatu baino goizago, bukatzen dira une euforiko atemporalean, bukatzen dira REC botoia askatzean, bukatzen dira bukatzean, eta bukatzen dira, tarteka, bukatuko ez direla jakin gabe ere.

Saio batzuk, bertso batzuk, bukaeran pentsatuz hasiagatik, ez dute bukaerarik pentsatuta. Iraun egiten dute. Batek daki noiz arte, baina Batek, ez dit esan.

Iraun egiten dutela diodanean, ez naiz ari plastikozko baso-matriuskez, sekula norberaren neurrikoak ez diren kamisetez, koloretako zapiez eta autotik ateratzeaz oroitzen ez zaren oroigarriez.

Iraun esaten dudanean, irauteko beste era batez ari naiz. Saio horietariko batzuk hemen idatzita geratuko dira, liburu honetan. Atzokoak, biharko gordeta, Bapatean. Beste batzuk beste euskarri batzuetan zutituko dira denboraren gainean. Mingain batzuek ezpain atzeetan tatuatuko dituzte bertsoak, oheburu gaineko koadro bilakatuko da koplaren bat, izoztuko da, punturen bat, norbaiten bularrean. Gordeko du, norbaitek, bertsolariaren ahotsaren dardara bat, eztarriaren sorbaldan. Bertso batean iradokitako galde-ikurra, norbaiten begien atzean biziko da, aldi batez, eta ahaztutako bukaera hura, etengabe hasiko da biraka bertsolariaren buruko biniloan.

Ez dago jakiterik bertso bat noiz bukatzen den, bukaeran pentsatu arren. Niri bertsoak gogorarazten dit, dena dela bapatean. Eta ez bat-batean. Ez dago tarteko gidoirako denborarik.

Alaia Martin Etxebeste

ARGIBIDEAK

ETA IRIZPIDEAK

1.- Urtean urteko bat-bateko bertsogintzaren lekuko izateko helburuarekin Bertsozale Elkarteak urtero argitaratzen duen bertso bilduma da Bapatean.

2.- Aurten ere, bazkide gehienen gustuaren harira, CD bat argitaratu dugu, non MP3 formatuan 53 bertsoaldi biltzeaz gain, liburua bera datorren PDF formatuan. Liburuan 74 bertsoalditako 589 bertso datoz transkribaturik, gai, doinu izen eta ohiko informazio guziarekin. CDan entzungarri dauden entzungarri dauden bertsoaldiez gain bakoitzaren aldamenean ageri den esteka klikatuz gero, liburuan ageri den bertsoaldi oro entzun dezakezu, bdb.bertsozale.eusera eramango zaituen esteka baita.

3.- Bapatean antologia bat dela esan daiteke hein batean, baina ez bere osotasunean. Liburuaren corpus nagusiak herritarrek antolatutako bertso-saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu, bertsolariak eta horien saio kopuruak kontuan harturik.

4.- Badakigu egiten diren bertso saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. 2017an 411 saio grabatu dira entzuteko euskarrian.

5.- 2017. urtean, bat-batean kantatutako bertsoak hartu dira kontuan liburu hau egiterakoan, txapelketetakoak izan ezik. Bertso paperen alorrekorik ere ez da jaso, baina bai bat-bateko gazte sariketetakoak.

6.- Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak (1) (Bertsozale Elkarte, 2004) hartu dira oinarri bertsoak transkribatzerakoan; eta bertan aholkatzen den modura jaso dira kokapen irizpideak. Doinuak, berriz, J. Dorronsorok bildutako Bertso Doinutegiaren (2) arabera izendatu dira. Bestalde, Bertsozale Elkarteak onartutako Bertso estrofak izendatzeko irizpideak (3) lanaren arabera izendatu dira neurriak liburu honetan.

7.- Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotako informazioa, grabazioak eta horien fitxak baliatu dira liburu hau egiteko.

8.- Hau guztia gauzatzeko, oso garrantzizkoa izan da erakunde hauek emandako diru laguntza: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren

Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia.


9.- Jende askoren emaitza da liburu hau. Borondatezko grabatzaileen zerrenda luzea da eta guztioi esker jaso ahal izan dira grabazioak. Beraz, eskerrik beroenak bihotz-bihotzez saio erdi, oso bat edo hamaika grabatu eta XDZra helarazi dizkiguzuen hainbeste bertsozaleri.

Aurrerantzean ere guztioi esker ondare hau biltzen, antolatzen eta hau bezalako argitalpenei esker zabaltzen joango gara.

(1) http://bdb.bertsozale.com/uploads/edukiak/liburutegia/xdz4_Id_000054.pdf

(2) <http://bdb.bertsozale.com/web/doinutegia/bilaketa>

(3) <http://bdb.bertsozale.com/orriak/get/44-liburutegi-digitala#bertsolibu-bapatean>



**BAT-BATEKO
BERTSO
HAUTATUAK**

AMURRIO

(2017-01-06)

*Bertsolariak: A. Martin, B. Gaztelumendi, A. Arzallus, U. Iturriaga,
A. Sarriegi, S. Colina, I. Elortza eta A. Mendiluze.*

Gai emaila: Ainhoa Comas.

Urte hasierako hitzordua dute bertsozaleek eta azken Txapelketa Nagusiaren azken finalean kantatutako zortzi bertsolariek Amurrioko Antzokian. Aurtengoan Maialen Lujanbiok ezin izan zuen gerturatu eta bere lekua Alaia Martinek hartu zuen. Oraingoan, gainera, lehenengoz gai jartzailea ere aldatu zuten. Urtero aritutako Naroa Sasietaren lekua Ainhoa Comas herriko bertsolariak hartu zuen.

U. Iturriaga - B. Gaztelumendi

[2017-01-06 Amurrio Jaialdia \[Bertsoa\] / Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga](#)

Gaia: Unai, aita, eta Beñat zortzi urtekoa semea. Telebistan Idomeniko kanpamentua agertu da eta semea galdezka hasi da, kanpamentu horrek ez baitu berak ezagutzen dituenen antzik.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: Hamalau heriotzena I

B.Gaztelumendi: Begitan ikusten det
umeen ikara
begira laguntzaile
haien begitara.
Arropa ajatuez
hor dabilta hara!
Han gurasorik eta
haurrik ere bada
baina ez dira joan
udalekutara.

U. Iturriaga

A ze gaia egokitu
zaidan parez pare!
Noizbait behar zenuen
seme egin galde.
Kanpamentua ote dan
diozu xuabe
esan beharrean nago
zuri hala ere:
kartzela bat baino ez da
teilaturik gabe.

B.Gaztelumendi:

Kartzela teilaturik
ere ez daukana
aurpegiak azaltzen
dira banan-bana
batek galdu du aita
ta besteak ama
besteak azala du
itsasoak jana.
Erregerik joaten
al da haiengana?

U. Iturriaga

Erregerik badoan
Idomenirantza
horra inozoki egin
den galdera latza.
Ezetx esango nuke
nahiz euki esperantza
errege, ez mediku
hor zaurira gatza
gure erregeak behar baitu
beraien ikatza.

B.Gaztelumendi:

Erregerik eza da
neretzat notizi
inguruan dauzkate
hamaika polizi.
Ze hitz haundiak diren
Europa ta krisi!
Nahiz pertsona pertsona
omen den lehenbizi
zergatik ezin dira
gu bezela bizi?

U. Iturriaga Galdera arraroa
baina ez da bitxi
erantzunan aurretik
listua irentsi.
Zergatik gure antzera
ez diren iritsi?
Bada esango dizut
ta zuk berbei eutsi:
guk asko dugulako
dute eurek gutxi.

B.Gaztelumendi: Baina denak bagera
pertsona ondradu
guztia ezin degu
hartu gure kargu
batek sobran duena
besteak falta du
ta sofan eserita
ze ari gera gu?
Nere kuartoan ohe
bat libre daukagu.

U. Iturriaga Oraintxe geratu naiz
erdi tentel ta zut
galdera proposamen
bihurtu duzu zuk.
Errefuxiatuen gaiak
baditu ertz batzuk
ohe bat baduzula
bizitza baten truk...
Utzidazu pentsatzen
ta erantzungo dizut.

A. Mendiluze - A. Sarriegi

[2017-01-06 Amurrio Jaialdia \[Bertsoa\] / Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi](#)

Gaia: Lehen aldiz musua ematera doazen bi nerabeen pentsamenduak zarete. Banku batean zaudete, elkarren ondoan eserita.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Zelaia ikusi dut

A. Mendiluze Joe, bizar horrekin
ze sexi dagoen!
Hau orain baino lehen nik
amestuko nuen
momentu berezian
bildu gera hemen
ta orain nola asmatu
momentua noiz den? (bis)

A. Sarriegi Bankuan eserita
egin behar zerbait
momentu hau amestu
izan det nik noizbait
zer egin behar det ba?
Hurbildu nolabait.
Gustatuko al zaio?
Gustatuko al zait? (bis)

A. Mendiluze Joe! Parean daukat
begira-begira
agian nola egin
pentsatzen ari da
mugimenduak ondo
neurtu behar dira
burua ezkerrera
ala eskubira? (bis)

A. Sarriegi Nik ere aurpegian
badauzkat bi alde
ta naiz erdi-erdian
sutur baten jabe
joaten baldin bagera
biok parez pare
nola emango diot
suturrik jo gabe? (bis)

A. Mendiluze

Ni ez naiz kapaz eta
bera ere ez da gai
bueno baino banoa
eta hala porai!
Lepo atzetik heldu
bai, ez, ez edo bai?
Posesiboegia
ez nuke izan nahi. (bis)

A. Sarriegi

Bate espero gabe
lepo atzetik heldu
ta ia-ia zutik
ezin naiz mantendu
ze kolpe eman didan
ze atarramendu!
Harrizkoa naizela
pentsatzen ote du? (bis)

A. Mendiluze

Suspensea hamalau
minutuz mantendu
ta noizbait saiatzera
lotuak geunden gu
orain burutik ezin
esaldi hura kendu:
asko maite duenak
asko sufritzen du. (bis)

A. Sarriegi

Azkenik ni ere joan
naiz bere aldera
bi begiak itxi ta
musu ematera.
Orain duda bat daukat
ta bera hauxe da:
zer musukatu dudan
bankua ala bera? (bis)

A. Mendiluze

Pik, bat eman dit eta
berriro aparte
baina izan gera une
magikoen parte.
Hori bai ile hoiek
ze kristo daukate?
Bizarra sexia zen
musu eman arte. (bis)

A. Sarriegi

Hau al zen ba guztia?
Hau al zen aurrena?
Horixe izan degu
lotsak zekarrena.
Horrela segiz gero
denboran barrena
goxoagoa izango
ahal da bigarrena! (bis

O I A R T Z U N

(2 0 1 7 - 0 1 - 0 8)

*Bertsolariak: A. Egaña, A. Arzallus, S. Colina, A. Martin, I. Elortza,
A. Oiarzabal "Xamoa", J. Soto eta J. Uria.*

Gai emaila: Unai Elizasu.

Urte askotan antolatu du ETXERAT!ek elkartasun bertso jaialdia Oiartzunen. Beste behin ere urteko plaza jendetsuenetakoa bihurtu zen Elorsoro kiroldegia. Arratsaldeko 17:30ean 1.500 lagun en aurrean hasi ziren kantuan zortzi bertsolariak. Gidari moduan aritu zen Unai Elizasuk pantaila bateko irudiak izan zituen lagun gaiak proposatzeko unean.

Xamoa – A. Egaña

[2017-01-08 Oiartzun Jaialdia \[Bertsoa\] / Andoni Egaña, Arkaitz Oiarzabal "Xamoa"](#)

Gaia: Amonak deitu dizue Getariatik. Aitonak alde egin duela. Balea agertu omen dela portuan, eta aitonak botak jantzi, arpoia hartu eta etxetik joan dela.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Orioko balearena

Xamoa Nahiz ta balea dagon
hor gustora asko
gure aitona zer den
aitortu beharko
eta baleak bistan
hartzen dunerako
belaxe joango da
hura ere eskapo. (bis)

A. Egaña Aitonak mila aldiz
ez al digu hitz egin:
“Hemen azken balea
neuk harrapatu fin”.
Seguru han dagola
puertoan, Getarin
beti gezurra zena
egi izan dadin. (bis)

Xamoa Ta arpoia hartzea
ez da izan traba
aitona ikusten dut
soldadu gisara
baleari begira
irri ta algara
atzetikan amona
azaltzen ez bada. (bis)

A. Egaña Hamaika batallita
dotoreak konta
orain egin nahi bere
historian kontra
hobe du bale horri
arpoirik ez bota
aitona bera bezain
flakua dago ta. (bis)

Xamoa

Egia da ez dula
lehengo giharrik
baina ni ere nago
lotsatu xamarrik
lehen gure aitona zen
ez da esan beharrik
baino gaurtik aurrera
zurea bakarrik. (bis)

A. Egaña

Amonak esan digu
“Bila joan beharko”.
Esan diot “Ederki
dabil etxez kanpo.
Alperrik esango du
hau eta halako
laster itzuli baietz
txikiteorako!”. (bis)

J. Uria – S. Colina

[2017-01-08 Oiartzun Jaialdia \[Bertsoa\] / Sustrai Colina, Jone Uria Albizuri](#)

Gaia: Etorri Sustrai txapeldun. Eta Jone... guapa.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Nere senarrarekin I

J. Uria

“Zu guapa, zu txapeldun”
ta biok atera
ustez aurkeztu gaitu
behar zen antzera
ni bentajakin nabil
ai Sustrai kolega
zebiak izateko
badaukat aukera. (bis)

S. Colina

Hori pentsatuz negon
ta hara bi azalpen!
Nik aurkezpen horiek
ez ditut jasaten.
Zuri “Txapeldun” baietz
esan egun baten!
Neri ez didate inoiz
“Guapa” esaten. (bis)

- J. Uria** Aurkezpen horiekin
horrenbeste izu
galdera zaila doa
eiten dut abixu:
“Guapa” ez dizute deitzen
baina Sustrai aizu!
Eta “Guapo” norbaitek
deitzen ote dizu? (bis)
- S. Colina** Nahiz erantzunak izan
behar luken “Nanai!”
harrapatu nahi ninun
nerekin dauka jai
inorrek “Guapo” deitzen
ote duen Sustrai?
Ba amak esaten dit
ta amonak ere bai! (bis)
- J. Uria** Ba esaten badizute
zugatik ondo, guai
hala egongo zara
pozik eta alai
dena da subjeto
ta hala nago lasai
guapotasuna eta
txapela ere bai. (bis)
- S. Colina** Adjetiboen bila
gu egunez egun
nortasuna horrela
nahi baitugu ehun
amona eta ama
“Guapo” deitzen legun
zuri inork esaten
al dizu txapeldun? (bis)
- J. Uria** Lehendik banengoen
galdera horren zai
nahiz ta txapelik ez dan
izan nere etsai
erantzun antzeko bat
dut zuretzako ai!
Bertso eskolakoek ta
lagunek ere bai. (bis)

S. Colina

Beraz izango gara
disfrutatzeko gai
holako adjetiborik
nik behintzat ez dut nahi
orain hala gara ta
geroan ere bai
ez guapa, ez txapeldun
Jone eta Sustrai. (bis)

I. Elortza

[2017-01-08 Oiartzun Jaialdia \[Bertsoa\] / Igor Elortza](#)

Gaia: Olentzerorekin kantuan irten zarete etxeakoak. Eta alabak galdetu dizu ea "Hator hator" kantatzen hasten zarenean, zergatik egiten duzun negar.

Neurria: Hamabiko ertaina

Doinua: Gai horrek badu mamia

I. Elortza

Alaba galdetu duzu
ta ezin egin uko
inoiz aipatu ditugu
hainbat euskal asunto
kartzelan han dauzkatela
Nahia, Asier, Urko
izeba ere egon zen
ta zeu zinen lekuko.
Gaur gogora etortzen zait
"Hator" esan orduko
etxe denetan ez dira
guztiak elkartuko. (bis)

Ta pentsa luzea dela
eta dela goibela
falta direnen zerrenda
triste eta krudela
bapatean etortzen zait
ikastolako gela
orduko hamaika lagun
haietan bat itzela
ta ja hogeit bat urtean
kartzelan daukatela
ta burura etortzen zait
neu izan nintekeela. (bis)

Ta hemen karameluak
oihua ta zarata
Olentzero hor joanda
kaleetan zeharka
ni zuri erantzun nahian
ezinean, dardarka
mila hitz egin nitzake
ta hala're bat falta.
Beraz jarraitu alaba
ta "Hator hator" kanta
gurekin egon daitezen
beste modu bat da ta. (bis)

Bertxoko. Gasteiz, 2017-11-30 Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



Z E A N U R I

(2 0 1 7 - 0 1 - 1 5)

*Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Martin, A. Egaña, E. Lekue, I. Elortza
eta J. Maia.*

Gai emalea: Eñaut Intxaurreaga.

Urteroko jaialdia Zeanurin, pilotalekuan, igande arratsaldeko seietan. Hamahirugarrena zehazki. Txandaka aritzen dira nonbait gai jartzen bertako bi bertsolari, Jabi Olivares eta Eñaut Intxaurreaga, eta bigarren honi tokatu zitzaion aurtengoan.

E. Lekue – I. Elortza

[2017-01-15 Zeanuri Jaialdia \[Bertsoa\] / Igor Elortza, Etxahun Lekue](#)

Gaia: Gerra denboran jende asko desagertu eta hil zen. Zeanurin bertan ere izan dugu hitzaldi bat horren inguruan. Urte askoan familia askotan isiltasuna egon da eta ez dute hitzik egin nahi izan. Zuen familian ere gertatu zen. Zuen aitona badakizue hil egin zutela. Ez dakizue non dagoen edo nola hil zuten. Anaiak zarete. Etxahunek egiaren bila arakutzen hasi nahi du. Igorrek ez dauka hain garbi.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: Hamalau heriotzena I

E. Lekue

Ezer jakin ezinda
horrenbeste urte
arakatu behar dogu
horixe dot uste
badodaz pistak eta
nahiko borondate
zure jarrera Igor
harrigarri jate:
jakiteak inori
ez dotso iten kalte.

- I. Elortza** Badakit oin aspaldi
gure aittitte zanak
Euskadi askatzeko
hartutako lanak.
Asko dira bera lez
odoletan joanak
gorputzean daukaguz
familiko dramak
zertako behar dozuz
zehaztasun danak?
- E. Lekue** Bestela ezin dalako
zauririk zarratu
aititeren hazurrak
nahi dodaz topatu.
Zuk gura dozun bide
hoberena hartu
nun dagon jakitea
tokatuko jaku
eta amamak zegatik
ez zeutsun kontatu?
- I. Elortza** Niretzako kontua
ez da hazurrena
aittitten motiboak
badira problema
zer ete zan amaman
mina eta pena?
Zetan ixildu eben
esan ez zebena?
Iguar hoixe galdera
inportanteena.
- E. Lekue** Min hori gure amamak
ondino badeko
eta hazurren faltan
deus ez esateko
sasoia dogu geuk be
bera topatzeko
arrazoia izan leike
bat eta besteko
oin arte ixildua
kontetan hasteko.

I. Elortza

Bila joango ei zara
zelan eta nora?
Igal ailegau zeinke
aittitten zulora.
Ni gaur zelan nagoen
amama da proba
ezebe esan barik
joan jakun gora
igal neuk be behar dot
harek lez denbora.

E. Lekue

Ni pentsamendu honek
hartu izan nau sarri
aititen faltak jarten
nauelako larri.
Denbora behar dozu
nik dotsut igarri
baietza dinotset ba
zure eskaera horri
zeuk gura dozunean
laguntzera etorri.

I. Elortza

Ai Etxahun neu be zu lez
hain fuerte banengo!
Aittitteren hazurrik
ez da ez urtengo
ta orduko irabazleak
oindino dauz sendo
galdera batentzat bi
erantzun, hor bego!
Bietan zein argitu
behar da lehenengo?

A. Martin

[2017-01-15 Zeanuri Jaialdia \[Bertsoa\] / Alaia Martin](#)

Gaia: Aspaldi igarri duzue etxean amaren burua ez doala ondo. Medikuarekin egon zarete eta esan dizuete alzheimerra daukala.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: ETAre su-etenetik

A. Martin

Urteak bagoirik bagoi
pilatzen dira trenean
helmugaren bat topatu
nahi baitute azkenean
amak eragina dauka
nire izan ta izenean
behar dudan egunetan
beti da aldamenean.
Etziko kezka itxi zait
barruko etsipenean
neuri ezin barkatua
daukat neure barrenean
nola haserretzen nintzen
zerbait ahazten zuenean. (bis)

Amak irripar batekin
onartu du egoera
edo itxura izan den
izan da nire galdera.
Aita isilik serio
azkar irten da kalera
anaiak esan du "Noa
kafe huts-huts bat hartzera".
Orain ume bihurtuaz
trena badoa atzera
ta nahiz ta uste den baino
sendoago den norbera
ni onartzeko gauza naiz
bera izango ote da? (bis)

Lehendik aitonak izan zun
eta ahazturen zerrenda
zer esan gabe ez uzteko
betetzen zuen agenda
gezurrik ezin leike esan
ta gaitasunik lausenga
gaitz bat da, gaitz gogor bat da
ezin litekeena senda
baina amari esan diot
heldu gerritik "Guazen ba!"
Gauza asko bai baina ez
goaz guztia ahaztera
maitasuna ez da ahazten
azalean geratzen da. (bis)

TOLOSA

(2017-01-21)

*Bertsolariak: A. Arzallus, S. Colina, A. Egaña, I. Elortza, O. Iguaran
eta I. Zubeldia.*

Gai emalea: Amaia Agirre.

Arratsaldeko 18:00etan hasita, Tolosako Leidor antzokiko taula gainean Amaia Agirreren esanetara aritu ziren sei bertsolariak. Aretoa beteta, giro paregabea bertsotarako, Tolosaldeko Atariak eskualdeko bertsozaleentzat urteroko zita bihurtu duen honetan.

S. Colina – I. Elortza

[2017-01-21 Tolosa Jaialdia \[Bertsoa\] / Sustrai Colina, Igor Elortza](#)

Gaia: Bideo bat ikusten dute pantaila bidez. Kamera ezkutuko eszena bat da. Bertan aktore batzuk igogailu batean tratu txarren egoera bat irudikatzen dute, non gizon batek mehatxatu eta kolpatu ere egiten duen emakume bat. Igogailuko bidaiari zenbaitek (gehienek) ez du ezer egiten. Halako batean batek erreakzionatu eta salatzen du erasotzailea.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: Lagundurikan danoi I

I. Elortza

Gizon bat emakume
bat iraintzen jardun
ta entzungo duenik
antza ez zen inun.
Bideoan ikusi
eta Sustrai lagun
ze deserosotasun
denoi sartzen zaigun.
Kontua da horrekin
zer egiten dugun?

- S. Colina** Bideoak ze oihu
ta ze perspektiba
hotzikara ezin da
aise erretira.
Gizarte hontan pasa
ohi dena hori da
hemen urte gehiegi
igaro baitira
behar zenero beste
aldera begira.
- I. Elortza** Esperimentu sozial
bat zen azkenean
ta ze ispilu jartzen
digun zuzenean!
Gizatasunez nonbait
ez gabiltz senean
hala bada igogailu
baten barrenean
zer ote da kalean
gertatzen denean?
- S. Colina** Nahiz kalean giroa
hemen ez den aipa
nazka ez da joaten
minari jarraika.
Sentimenduak aise
ezin leizke sailka
mina sentitzen duzu
baina lotsa baita
ez baitzara alperrik
bi alabaren aita.
- I. Elortza** Horregatik ito zait
barruan arnasa
sarritan ekiteko
nor da ta kapaza?
Egoera finetan
ez da gauza erraza
baina arazo honi
hartzen diot traza
labur geratu baino
hobe dela pasa.

S. Colina Nik hortan pentsatzen dut
Igor zure gisan
nahiz eta labankada
sartu bihotz-mintzan
diskurtsoz oparoa
naiz bertsolaritzan
baina onartzen dizut
nik nere bizitzan
behar zenero ez naizela
balientea izan.

I. Elortza Parekidetasuna
ustetan helburu
baina ezkontzen zailak
barru eta mundu
ta mundu horrek sarri
hartu ohi gaitu gu
neu ere zuzen naizen
ez nago seguru
zenbat txiste matxista
entzun ta in ditugu?

S. Colina Hortan oinarritu izan
da bertsolaritza
gaur beste mikrotatik
nahi genuke mintza
aldatuz jendartea
aldatuz bizitza
bat gehiago izanez
ahaztuz gidaritza.
Hortaz ohartzea da
lehenengo baldintza.

I. Elortza Burura pasatzea
beraz bihozkada
dugu modua oihu
eiteko algara
baina igogailu bat
irudi ona, hara!
Emakumea gora
joango baldin bada
gizonezkook behera
joan beharko gara

S. Colina

Asmo horretan nabil
eginkizunean
bizi nahi nukeelako
berdintasunean.
Hala izango al da
etorkizunean?
Bizitza arruntean zein
bertso jardunean
boterea ona da
denok dugunean.

A. Arzallus – I. Zubeldia

[2017-01-21 Tolosa Jaialdia \[Bertsoa\] / Amets Arzallus, Iker Zubeldia](#)

Gaia: Tolosaldean bolo-bolo dabilen gaia da Aralarren egin nahi diren mendiko bideena. Zuek ikusi nondik kantatu. Adibidez, Zaldibian bi pankarta azaldu dira: "Herriak herri, mendiak mendi, Aralarren pistarik ez" dio batak, eta besteak "Gazte, zaldibitar, ganaduzale, mendizale, gu ere bideen alde" (bi pankartak azaltzen dira pantailako irudian).

Neurria: Zortzikoa handia

Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I

A. Arzallus Iparraldean bizi naiz eta
nere jakintza da pixka
entzun dut saltsan hor dabilzala
artzai ta ekologista
baina pankarta, blog eta berri
nork jakin nori sinista?
Zu zara hango semea eta
emaidazu zure pista.

I. Zubeldia Nik`e aitona artzaia nuen
Pixka't ez al zait nabari?
Pista kontuan egin nahi dute
ai txikiketa ugari!
Izan liteke lehen sektorea
berriro pizteko sari
errespetoa ez al zaio zor
menditik bizi denari?

A. Arzallus Ai zure pistak ez dakit nere
bidea duen xamurtzen
artaziei lagundu nahi nieke
hortan bagabiltza zuzen
bideak errez nahi ditut baina
gauza batek nau bildurtzen:
erreztasuna noiz hasten zaigu
errexkeria bihurtzen?

I. Zubeldia Jarri langa bat ta behar dunai
giltza eman ta pakea!
Ganaduzaleen egoerea
bihurrie izate`a
eurei eskerrak bakandu dira
garoa eta otea
nere ustetan horixe da ba
ekologista izatea.

A. Arzallus PNV ta Ezker Abertzalean
gaiak sortu du marmarra
militantea nik ikusi dut
deskolokatu xamarra
gure historira begiratu ta
iruditu zait earra
alderdietan pixka't bagenun
despistatzeko beharra.

I. Zubeldia Ezker-eskubi nahastu gera
baina horrek berdin dio
behar dituzte bideak eta
garaian gaude oaindio
gure mendiak gordetzekotan
izate eta balio
artzai gehiago behar ditugu
ta Westfalia gutxio.

A. Arzallus Pixka bat biak elkartzen goaz
eta bagenun garaia!
Zeinek ez du nahi mendi aldean
berde ta garbi paisaia
polemika bat latza badabil
lizuntzen zaio usaia
nik pista edo pistarik gabe
mendian nahi det artzaia.

I. Zubeldia Bi mila eta hamazazpian
txabola baten ertzean
behar dituzten traste guztiak
mandoakin ekartzean
gure artzaiak izan ditzagun
gogoan ta bihotzean
Idiazabalgo gazta puska bat
jaten degun bakoitzean.

A. Arzallus Ez nuke nahiko gaztak eskuan
egin dezaigun eztanda
guztia zeure esku uzten dut
Aralar seme izanda
zuk erabaki pista edo ez
eta zeini jarri langa
neure legea ez dut jarriko
urtean bitan joanda.

I. Zubeldia Bi kartel zeuden atzekaldean
bi kolore ta bi forma
noski bakoitzak bere xedea
azaldu nahi zun ondona.
Pentsatzen nuna garbi esan det
ta hori ez degu broma
orain bakoitzak esan dezala
gogok ematen diona.

DONOSTIA

(2017-01-22)

*Bertsolariak: B. Gaztelumendi, I. Elortza, M. Amuriza, S. Colina,
U. Iturriaga eta N. Elustondo.*

Gai emailea: Saroi Jauregi.

Lehenago Donostian Bertso Eguna egiten zen buelta horretan jaialdi garrantzitsu bat antolatu nahi izan du Donostia Kulturak, aurrerantzean erreferentzia bihurtzeko asmoarekin. Antzoki Zaharrean egin zen, gaueko hamarretan, eta berrehun eta berrogeita hamar lagun bildu ziren, hamabi euro ordainduta.

M. Amuriza

[2017-01-22 Donostia Jaialdia \[Bertsoa\] / Miren Amuriza](#)

Gaia: Sara Majarenas zara, Miren. Gaur ere eman dizute baimena alaba ospitalean bisitatzeko. Gelan sartu zarenean, lo zegoen, eskutik heldu diozu eta begiak zabaldu, eta hala galdetu dizu: "Non nago ama?" "Zer gertatu da?"

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: Uztailaren hemeretzia

Ekarridazu eskua Izar
eta heltzeai ez laga
begira nola iritsi zaren
ospitaleko gelara
begira hemen zure hartzatxo
begira zure almohada
ez da etxea baina zainduta
zauzkagu ene alaba
amets gaizto bat eduki duzu
baina esnatu egin zara. (bis)

Saiatuko naiz Izar zuretzat
dena erraza izan dadin
ta horrexegatik esplikatuko
dizut dena arin-arin:
gogoan duzu zure aitatz
gogoan zer zizun egin
baina begira, ez zaite nahastu
ta zintzoa izan nadin:
zauriak zuri egin zizkizun
niri eman nahi zidan min. (bis)

Konturatuko zinen etxean
ez zaudena honezkero
eta neu ere berriz eraman
egin behar naute gero.
Aiton-amonak hementxe daude
eta eurek zu espero
etsi indartsu beste pixka'ten
ai nire esku balego
gaurtik aurrera eingo genuke
elkarrekin lo gauero! (bis)



Udalekuak. Bidarrai, 2017ko uztaila. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

BAIONA

(2 0 1 7 - 0 1 - 2 8)

*Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio, S. Colina, B. Gaztelumendi,
A. Sarriegi eta A. Mendiluze.*

Gaijartzaile: Joana Itzaina.

Seaskaren aldeko bertso jaialdia izaten da azken urteotan Baionan. “BECtso saioa” izenarekin bataiatu dute eta bertara BECen Txapelketa Nagusian kantatutako bertsolariak gonbidatzen dituzte. Oraingoan Unai Iturriagak eta Igor Elortzak kale egin zuten, gaixorik zeudelako. Berrehun eta berrogeita hamar lagun antzokiko areto dotorean. Giro beroa, oso gertukoa. Gai guztiei hari bat eman nahi izan zien aurkezleak eta horrela bertsoaldi guztiak Lizeo baten inguruan kokatu zituen.

A. Arzallus – A. Mendiluze – S. Colina – A. Sarriegi

[2017-01-28 Baiona Jaialdia \[Bertsoa\] / Amets Arzallus, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi](#)

Gaia: Lizeo berriaren alde sagarrondoan kanpaina bat bada eta zuek sagarrondoak landatzera joan zareten gurasoak zarete. Sustrai aitzurrarekin eta botak jantzita etorri da, Sarriegi hiriko jantziekin eta argazki kamerarekin, Mendiluze nola landatu behar diren azaltzen duen liburu sorta batekin eta Ametsek taloak eta xingarra erretzeko plantxa ekarri du.

Neurria: Lauko handia

Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II

A. Arzallus Uste nuen metafora bat zela
nahiz sagarrondoak irten
beti bezala ariko ginela
talo batzuen egiten.

S. Colina Ametsek xingarra ta txorizo
denak plaka hortan gordez
ta Aitorrek aitzurra landatu du
sagarrondoaren orde.

- A. Sarriegi** Webgunerako propaganda ere ezin da egin nolanahi nik argazkia egingo dizut has zaite lanean Sustrai.
- A. Mendiluze** Hamar liburu ekarri eta nik asmatu det jakina lan guztietan behar du norbait zertan dabilen dakina.
- A. Arzallus** Bat bere liburu guziekin bestea turisten martxan dudatan nago bi horietan nor jarri behar dudan plantxan.
- S. Colina** Nere bota ta nere aitzurra etorri naiz ni haatik ni zuzenean bidali naute Laborantza Ganbaratik.
- A. Sarriegi** Ahaleginean saiatu naiz ni baina ez zuen irten nahi mugituxea irten da eta makur zaitez berriz Sustrai.
- A. Mendiluze** Bere aitzurra, bota, txapela ta etxetik Sustrai irten baina esaerak dio “Jantziak ez du frailea egiten”.
- A. Arzallus** Nik hiru talo eginen ditut zuentzat plantxa betean ea zuhaitz bat landatzen duten hauek hiruen artean.
- S. Colina** Fraileak ez du jantzia egiten edo alderantziz tira! Hemen lanean bi ari gera eta bi fraile begira.
- A. Sarriegi** Bigarrena ere mugitu egin zait zerbait gaizki badaukat hor etxean utzi dut tripodea utzi liburuak Aitor.
- A. Mendiluze** Ametsek ere plantxa ta guzti badauka nahiko delitu gaur sartutako sagarrondoan sagarrak erre nahi ditu.

A. Arzallus Baina aitzur ta plantxa, Sustrai ta biak jarririk batean...
Nik uste hauek ikasi zuten beste Lizeo batean.

S. Colina Aitor argazkiak hartu ta hartu hori da gaurko egia hurrengo urterako egina dago Seaskako egutegia.

A. Sarriegi Tori kamara eman aitzurra ez da ta ezer pasatzen ateraidazu argazkitxo bat sagarrondo bat landatzen.

A. Mendiluze Txukun jantzi ta posean jarri eta kamaraz eskua noizbait Aitor zuk beteko dezu koordinatzaile postua.



Sahararen aldeko bertso jaialdia. Andoain, 2017-03-26 .Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)
Argazkilaria Aiurri irratia

ITUREN

(2 0 1 7 - 0 2 - 0 4)

Bertsolariak: A. Arzallus eta I. Zubeldia.

Gai emalea: Joxe Mari Fagoaga.

“Kontu Eguna” Iturenen, non bertso bazkari baten bueltan agur esaten dieten inauteriei. Herriko etxeko ganbaran, bazkal ondoren, batik bat librean aritu ziren bertsolariak, baina bertako Joxe Mari Fagoaga bertsolariak ere jarri zien gairen bat edo beste.

A. Arzallus – I. Zubeldia

[2017-02-04 Ituren Lagun-artekoa \[Bertsoa\] / Amets Arzallus, Iker Zubeldia.](#)

Gaia: Librean

Neurria: Zortzikoa handia

Doinua: Nahiz ta hiltzea derrigorra den

A. Arzallus Airea alda dezagun Iker
bakarretik ezin ase
lehen esan dizut aspaldi xamar
banun aski gogo-haize
hamabi urte etorri gabe
ez zaizkit pasatu aixe
zu berriz hemen ibiltzen zera
etxeko bat bezelaxe.

- I. Zubeldia** Hau bosgarrena det nere ustez
ta nago oso gustora
atsegin baitet napar aldean
inauteriaren moda
baina hala're ia bagoaz
Arzallus urtetan gora
beti etxean bezela eta
beti etxetik kanpora.
- A. Arzallus** Baina hala ere ibili zara
makina bat urte pasan
eta gainera egokitua
ia bertakoen trazan.
Iker`e beti hor ibiltzen da
gogoa erdi karrozan
nere ustetan hau Zegama aldean
konfundituta jaio zan.
- I. Zubeldia** Goierritarrak tentatzen gaitu
napar aldeko jardinak
parranderoak gera gehienak
baina guztiz atseginak
inauteriak maite ditugu
eta bertako dotrinak
ta mozorroa kendu ezker
ez gera hain desberdinak.
- A. Arzallus** Nahiz eta honek gipuzkoarrak
izan bere gurasoak
askotan dira bihurriak bai
muga ertzeko pausoak
nahiz ta Zegama Gipuzkun egon
ta hitzak handik jasoak
Naparroatik heltzen zaizkie
ontoak eta usoak.
- I. Zubeldia** Geografian fallo txiki bat
egin du Amets lagunak:
Iparraldetik datoz usoak
nolako estuasunak!
Mugara sartu izan dira ta
ze-nolako garizumak!
Gero Naparron erortzen dira
guk bota ez ditugunak.

- A. Arzallus** Nahiz atakatu eta hau gero
kontraerasora igaro
honek ez ditu ondo bereizten
ez iratz eta ez garo.
Zuk Iker pixka't jakinagatik
ez bestek baino gehiago
Iparraldera joan ezkerro
Naparroa bat badago.
- I. Zubeldia** Arrazoi dezu han dago bera
begiratzuz gero gora
geografian suspentso hori
neretzako izango da
baina askotan famatu arren
zuk Iparraldeko moda
Hegoaldean pasatzen dezu
nik horrenbeste denbora.
- A. Arzallus** Aita ta ama gipuzkoarrak
sortzeko lehen berokian
nahiz ta trenetik bajatu nintzan
Hendaiako geltokian
nik bietatik pixka bat badet
nahasturikan bekokian
eta denbora pasatu ohi det
komeni zaidan tokian.
- I. Zubeldia** Arrazoi dezu zure hizketa
ez da izan arlotea
geltokiaren arrazoi hori
ez dezu gaizki botea.
Beraz Hendaian erori zinen
a ze nolako zortea!
Oraindik ere antzematen da
hartu zenuen kolpea.
- A. Arzallus** Itxura denez kolpeak beti
eragingo dit bizitzan
bakoitzak bere karrila dauka
hemen hala komeni zan:
tren txiki baten heldu nintzen ni
nahiz tren azkarra ez izan
eta zu beti kea boteaz
baporeko trenan gisan.

- I. Zubeldia** Biok trenetik erori ginen bakoitzak daukagu bana elektrikoa izan da beti ondo egiten du lana nerea berriz baporezkoa halaxe jarri dit fama. Zurea degu abiadura ta nerea degu xarma.
- A. Arzallus** Ez dakit bada dena hala den besterikan ez zen falta hala ere tren a utzi dezagun aurreratzen da kostata. Nahiz ni Hendaian nahiz zu Zegaman ta antzeko izan data pentsatzen nago jaio ginala zikoinan batek botata.
- I. Zubeldia** Zikoina harek pasako zuen Euskal Herriko paisaia Frantzia aldetik etorriko zan hemen hartuta usaia berdintsu dio nola harkaitza pagadia edo plaia biak alkarren anaiak dira Zeama eta Hendaia.





Jatetxean lagun artekoa. Loiu, 2017-02-24. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

A. Arzallus – I. Zubeldia

Gaia: Librean

[2017-02-04 Ituren Lagun-artekoa \[Bertsoa\] / Amets Arzallus, Iker Zubeldia](#)

Neurria: Zortzikoa txikia

Doinua: Mendiko umea naiz

I. Zubeldia

Egañan lehengusua
mahaiburun dagona

A. Arzallus

hura Egaña bada
hori Maradona

I. Zubeldia

futbolean ona da
hori ez da broma!

A. Arzallus

Saio bitarte hontan
geldirik egona

A. Arzallus

Pareta sujetatzen
geldi-geldi dago

I. Zubeldia

karga asko du eta
ezin du gehiago

A. Arzallus

nola dauka izena
Jon edo Fernando?

I. Zubeldia

Andrea du lehengusu
adituta nago.

I. Zubeldia

Barka beza berorrek
gaur gure señora

A. Arzallus

berorrika egiteko
ote da serora?

I. Zubeldia

Zuka hasteko gero
badago denbora

A. Arzallus

nik inoiz ez det egin
zukatikan gora.

A. Arzallus

Zuk berorrika Iker
ba al dakizu bate?

I. Zubeldia

Apaizeri jarduna
nago elegante

A. Arzallus

ni txapelduna naiz ta
ein behar zenidake

I. Zubeldia

baina txapeldun danak
fallo bat daukate.

I. Zubeldia

Beti esaten dute
txapeldun direla

A. Arzallus

gutxietsi nahi al du
hark nere nibela?

I. Zubeldia

Besteak esateko
uste't hobe dela

A. Arzallus

arrazoi dezu neu naiz
bastante txepela.

A. Arzallus

Eta zu zeu nola lker
definitzen zera?

I. Zubeldia

Txapeldunen gisara
zerorren antzera

A. Arzallus

behin esanez gero inoiz
ez egin atzera

I. Zubeldia

bertsotan ez baina gu
musean bagera.

I. Zubeldia

Soziedadean dauzkat
tituloak zazpi

A. Arzallus

probintzien neurrian
ez al dira aski?

I. Zubeldia

Zeu`re bakarrarekin
ez zaude hain gaizki

A. Arzallus

ikusiko zintuzket
txapel eta guzti.

A. Arzallus

Hurrengo urtean behintzat
ekar zazu proba

I. Zubeldia

baina agian gehitxo
da gure denbora.

A. Arzallus

Beraz musean zoaz
zazpitikan gora

I. Zubeldia

beti ibiltzen bainaiz
sustotik sustora.

I. Zubeldia

Ttikira enbido ta
pareak hordago!

A. Arzallus

Txikira zabiltzala
nahiko garbi dago

I. Zubeldia

jokua badet baina
nahi nuke gehiago

A. Arzallus

ta zure aurrekoak
ez balu nahiago.

A. Arzallus

Horrela errexa da
musen jardutea

I. Zubeldia

orduan pasa zaite
laguna tutea

A. Arzallus

hainbestekoa ez da
nere bertutea

I. Zubeldia

famatu beharra da
kostunbre putea.

I. Zubeldia

Hizkuntza aldatzea
barkatu ezazu

A. Arzallus

hori igual berorrika
esan behar didazu

I. Zubeldia

eman behar genioke
alkarri bi musu

A. Arzallus

registro denak nahasten
hor dabil jo ta su.

A. Arzallus

Ederra litzateke
musu ematea

I. Zubeldia

ahal bada aukeratu
atzeko partea

A. Arzallus

pentsauta sentitzen det
kalanbre tokea

I. Zubeldia

bizar horrekin igual
gehitxo izate`a.

I. Zubeldia

Egingo zenidake
okotzean mina

A. Arzallus

lehendik ere pixka bat
ez al naiz egina?

I. Zubeldia

Baina emango nizuke
polita bazina

A. Arzallus

tristeena da eman
nahi eta ezina.

A. Arzallus

Musu eman nahi eta
lotsatzen al gera?

I. Zubeldia

Aspaldi pasa gendun
holako aukera

A. Arzallus

polita zerade ba
nere arabera

I. Zubeldia

gezurrak esaten`e
iaioa da bera.

I. Zubeldia

Beti esate al dezu
gauza berdintsua?

A. Arzallus

Ez beti ez naiz izaten
horren berritsua

I. Zubeldia

melankolikoa da
eta mamitsua

A. Arzallus

hau polita ikusteko
behar du itsua.

A. Arzallus

Bueno barkatu ezazu
hola atera da

I. Zubeldia

arrazoi dezu biok
zatarrak baikara

A. Arzallus

rimatu egin behar non
bertsoen era da

I. Zubeldia

bakoitzak luzitzen du
ahal duen erara.

I. Zubeldia

Konformidadea da
inporta zaiguna

A. Arzallus

horrekin dena esanda
daukazu laguna

I. Zubeldia

konformista dalako
tipo euskalduna

A. Arzallus

zuk dadukazuna da
kokotza leguna.

A. Arzallus

Bizarrak atera nahi
ta ezin atera

I. Zubeldia

zureak ere bota
gaur beste aldera

A. Arzallus

tira egiten dio
pintzakin batera

I. Zubeldia

eo bestela mutilzahar
geldituko zera.

I. Zubeldia

Pintza ibiltzen du honek
baina bekokian

A. Arzallus

zuk ibiltzen al dezu
behar dan tokian?

I. Zubeldia

Ahal baldin bada beti
oso urrutian

A. Arzallus

ez dakit bagabiltzan
modu egokian.

A. Arzallus

Imajinatu Iker
bizardunen gisan

I. Zubeldia

aspaldi holakoak
zebiltzan elizan

A. Arzallus

honek nahi ta`re ezin du
Olentzero izan

I. Zubeldia

baina beti nabil ni
erregeen gisan.

I. Zubeldia

Olentzero papera
tokatzen zait eta

A. Arzallus

astoaren gainean
nolako atleta!

I. Zubeldia

Pinuaren azpian
oparik gordeta

A. Arzallus

hartu nere besoa
nekatu da ta.

I. Zubeldia

Beraz bukatzeko´re
heldu da garaia

A. Arzallus

nunbait agurraren zai
hor daukagu mahaia


I. Zubeldia

jendeak hartu dio
albotik usaia

A. Arzallus

erremata dezagun
hemengo paisaia.

Hitzetik Hartzera. Programa berezia. Altzo, 2017-04-16. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



AMURRIO

(2 0 1 7 - 0 2 - 0 5)

*Bertsolariak: I. Viñaspre, I. Mendiguren, O. Perea, U. Iturriaga,
On. Enbeita eta O. Bartra.*

Gai emaileak: Unai Mendibil eta Ainhoa Comas.

Alfredo Ramirez amurriarraren aldeko kanpainaren barruan (#alFREEdo izenekoa, non elkartasuna adierazten zitzaion Alfredori twitterren idatzitakoengatik zuen epaiketaren aurrean) Aiaraldeko Bertso Eskolak antolatutako bertso saioa. Gaztetxean egin zen eta ehun lagun inguru bildu ziren.

O. Bartra - O. Perea - I. Viñaspre - I. Mendiguren - U. Iturriaga - On. Enbeita

[2017-02-05 Amurrio Jaialdia \[Bertsoa\] / Oihana Bartra, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga, Izar Mendiguren, Oihane Perea, Iñaki Viñaspre](#)

*Gaia: Aste honetan bost animalia berri deskubritu dira eta hori egin duena Oihana izan da.
Berak azalduko digu.*

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Eguna pasa nekean eta

O. Bartra Lehenengo espezie berezia
gura nuke nabarmendu
bitxo handi bat eta beltz-beltza
meriturik ezin kendu
ez da tropikal ez da hemengo
ezagutuko bagendu!
Eta gainera haserretzean
kea ere botatzen du. (bis)

- U. Iturriaga** Animalia berri bezala
mundua ez da eroso
nik niretzako nahi nuen zerbait
lasaia eta goxoa
beti izan naiz ni lo zalea
ia zerura jaso
naiz gizakiaren hondar bat baina
oso, oso biziosoa. (bis)
- O. Bartra** Eta bigarren espezie hori
nahi nizueke gomenda
irribarretsu, koloretsua
bestela nola izan zen ba!
Oso luzea ez da espezi
uniko honen zerrenda
baina ez dute *sobrebibitzen*
Aiaraldetik irtenda. (bis)
- I. Mendiguren** Nahiz eta zuzen asmatu duzun
unikoaren hizkia
nire espeziea lzar da baina
ez naiz bakarrik izpia
telebistako pelikuletan
ez dute esan guztia
kontuz ibili bi gauzak naiz ni:
ederra eta piztia. (bis)
- O. Bartra** Eta Muxikako espeziea
berezia ta itzela
ez da eulia, ez da lehoia
ez tximino, ez igela
nahiz ta sailkatzen ez den erreza
espezie baten horrela
ilea behintzat mutatzen zaio
kamaleoiei bezela. (bis)
- On. Enbeita** Nire ulea aldatzen doa
eta ze ilusinoa!
Atentzinoa deitzea baita
nik daukadan misinoa
ta ni zer naizen baduzu
soilik neure bertsinoa:
urretxindorran espezie bat
Madrilgo mutazinoa. (bis)

- O. Bartra** Eta laugarren espezie hau be
ze nolakoa! Bizia.
Egia esan honekin nago
desesperatzen hasia
biologook ere ez dugu
aspaldion ikasia
arabarrek lez honek be badu
identitate krisia. (bis)
- O. Perea** Identitate krisia daukat
ene biologa laztana
eta horrexek mendirik mendi
ni ibiltzera narama
ez naiz oso handia izatez
eta ez zenez nere ama
baina haserretzean irteten zaizkit
adarra eta buztana. (bis)
- O. Bartra** Lasai ez naiz askorik pasako
kantatuko dut nahiko *light*
egia esan burura orain
gauza asko etorri zait
baina zure espezia ere
kokatu behar dut nunbait
gure Viñaspre izan daiteke
ñuaren antzeko zerbait. (bis)
- I. Viñaspre** Ta gizakia beti ibiltzen da
ai ñu gizajoak hiltzen
zergatik ez nun asmatu izkuta
eta apur bat isiltzen?
Oihana zertan etorri zinen
urruti ni deskubritzen?
Fokoetatik kanpo ni askoz
lasaiago bizi nintzen. (bis)

LEZO

(2 0 1 7 - 0 2 - 1 1)

Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio, A. Martin eta A. Mendiluze.

Gai-emailea: Ilargi Zipitria eta Amaia Resenda.

Herriko bertsozaleek urtero, eta azken urteotan Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen laguntzarekin, jaialdia egiten dute Gezalaga aretoan.

A. Martin – A. Mendiluze

[2017-02-11 Lezo Jaialdia \[Bertsoa\] / Alaia Martin, Aitor Mendiluze](#)

Gaia: Zuk, Aitor, egunero ikusten duzu zure semea oso berandu arte etxeko lanak egiten, ikasten, beti zerbait egiten. Eta gaur, nazkatuta, Alaia irakaslearengana joan zara.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I

A. Mendiluze Ai andereño barkatu baina
ez nago batere pozik
gure semeak lan asko ditu
neurritik kanpora kasik
ez dakit ziur ikasteko ez den
lotuta jartzeko baizik
gizarajoak denetik daki
umea izaten ezik.

- A. Martin** Bere premiak ez itzazula nahita bihurtu premio jolaserako klase garaian badu nahiko injenio ez kargu hartu, ze estrategia eta ze lan konbenio! Azkarrago egingo lituzke lagunduko bazenio.
- A. Mendiluze** Beraz lagundu behar nioke horrek konpontzen du dena bost minutuko aurrerapen bat gehienez ordu laurdana. Beraz biontzat bihurtu dezu beretzako zen ordena eta zuk zergatik jarri diozu egiten ez dakiena?
- A. Martin** Barkatu baina ez diot jartzen ez gehiegi ez zailegi erritmoa jarrai dezan jartzen diodana da zilegi. Esaten duzu “Ez da jolasten soilik aulkian eseri” jolaserako beti izaten du egunean ordu erdi.
- A. Mendiluze** Programa eta zereginena al da ba zure legea? Noizbait agian bihurtu dedin gurea mutil trebea erritmoaren kontua beraz jarraitzea mesedea berak besteen erritmoa edo beste guztiek berea?
- A. Martin** Erritmoa erregulatzen da klase barruko langintzan baina masterrak ta tituloak beharko ditu bizitzan. Ez dakit nortasuna elikatzen ze arraiotan zabiltzan! Bizitzan norbait izan nahi badu hobe du ez inor izan.

A. Mendiluze Ta horregatik kentzen diozu
jolasa eta jokoa
masterrak eta hoiek lortzeko
bailitzake oztopoa
gero bizitzan zer beharko du?
Zer den zure gustokoa?
Aizu bizitzan bizitza behar da
eta gero gerokoa.

A. Martin Ze esaldi ze aforismoa
jasoa al duzu prentsan?
Nik nere kriterioak dauzkat
denak neronen defentsan.
Bizitza bizi behar dela ta
horrelakorik ez esan
bizitzaz ahaztu egin beharko du
bizitza atera dezan.



Nafarroako finalean. Iruña, 2017-04-08. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

LOIU

(2 0 1 7 - 0 2 - 2 4)

Bertsolariak: X. Paya eta A. Estiballes.

Gai emaileak: Iñaki Beitia “Arbildu” eta Gabriel Etxebarria.

Urteroko “Txarri Boda” egin zuten Aurregoiti jatetxean, hirurogeita hamar bertsozalek. Librean eta Iñaki Beitia “Arbildu”k eta Gabriel Etxebarriak jarritako gaien bueltan aritu ziren, bi orduz jarraian.

X. Paya – A. Estiballes

[2017-02-24 Loiu Lagun-artekoa \[Bertsoa\] / Arkaitz Estiballes, Xabi Paya](#)

Gaia: Librean

Neurria: Zortzikoa handia

Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu

X. Paya Kamarak daude eta horretan
ezin naiz hasi ni aizu!
Zuri galdera bat egiteko
ostera gogoz naukazu
hainbeste urtean beti berdina
beti Arkaitz, beti maisu.
Galdera zuzen egingo dotsut:
ze nobedade daukazu? (bis)

A. Estiballes Ba bizitzera joan nintzala
Zeanuriko puntara
ta dodazala zoragarriak
omen diran bi alaba
txapelketara joan ez arren
joaten nazela plazara...
Nobedaderik ez izatea
ere gauza edarra da. (bis)

X. Paya Zeinen edarra, zeinen polita
ta zeinen bukolikoa!
Alaba gazte eta jatorrak
etxerako modukoa.
Baina ez dozu kontau guzia
edo ez behintzat nahikoa.
Entzun dodanez zeuk egin dozu
politikara saltoa. (bis)

A. Estiballes Udaletxean zinegotzi naz
irten nintzan juxtu-juxtu
irten ez banintz ere gaitz erdi
egingo neban apustu!
Gu hantxe gabiltz gaur diskutitu
ta hurrengoan agurtu
egun batean ein neban salto
ta hurrengoan damutu. (bis)

X. Paya Bi alaba ta herri moduan
Arratiko Zeanuri
maisu moduan bertso klaseetan
kantua bere irudi
ta politikan ze eiten dozu?
Zertarako hortan segi?
Ai neure ustez zeuk euki dozu
denbora libre larregi. (bis)

A. Estiballes Denbora libre ugari deukot
imajinau eixu tira!
Astean baten ere joaten
hasi nazela mendira
han jesarten naz pinudi baten
neure mugarriei begira.
Astean baten joan ezean
mugitu egiten dira. (bis)

X. Paya Normala orduan *hobby* moduan
hautatzea politika
ta plenoetan eragingo dau
sekulako ika-mika
bere feudoa begituko dau
lursail benetan polita!
Neu be horrela biziko nintzan
mugarriak edukita. (bis)

A. Estiballes Herritik kanpo ibili zara
Xabi luzaroan ta maiz
ta ez dakizu ni Zeanurin
nabil nahiko aurpegi alaiz
zuk ezin zeinke imajinatu
zenbat aldatu dan Arkaitz
orain Deia be irakurtzen dot
ta batzokian sartzen naiz. (bis)

X. Paya Hogeit urtegaz radikala zan
hau esate baterako
hogeita hamar euki orduko
ez zan zuzen aterako
berrogei eta batzokira be
joaten dala, edarto!
Botoa bere aldatuko dau
hirurogei urterako. (bis)

A. Estiballes Hogeit urtekin danari sua
nintzen horren radikala
hogeita hamar eta bi ume
prozesu oso normala...
Zu hogeit urtekin ja *el puto amo*
zinen ta Xabi aibala!
Ze esan nahi dozu ni baino lehenau
espabilatu zinala? (bis)

X. Paya Nik razino bat baino ez neukon
eta zuk *menu* konpleto
andre, alaba eder bi eta
baserri edar bat hazteko
lursailak bere ta mugarriak
bateko eta besteko
definizino arraroa da
ezkerrekoa izateko. (bis)

A. Estiballes Ezkerrekoa izatea zer dan
definitu al zeinke zuk?
Nik onartu dot batzokian ere
egiten dodala zurrut.
Ezkerrekook be badekoguz
jo krontadizino batzuk:
imajinatu lau hektareatan
eukalptoia sartu dut. (bis)

MUTILOA

(2 0 1 7 - 0 2 - 2 5)

Bertsolariak: M. Lujanbio eta A. Mendiluze.

Ostatuan urtero gai baten bueltan antolatzen dute bertso afaria. Aurtengoan, berrikuntza eta tradizioa izan zen gaia. Horren inguruan, librean aritu ziren bertsolariak

M. Lujanbio – A. Mendiluze

[2017-02-25 Mutiloa Lagun-artekoa \[Bertsoa\] / Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze](#)

Gaia: Librean

Neurria: Zortzikoa, berdinen moldekoa, 6 puntuz

Doinua: Dozena bat bertso berri A

A. Mendiluze Atsedena da igaro
beraz kontuak akabo
ea burua portatzen zaigun
lehen bezain oparo.
Sarri entzun det lehenago
ta atzo beste bat gehiago
“Lehenago haiek bai bertsolariak”
bart entzunda nago. (bis)

- M. Lujanbio** Zein zitzaizun hala mintza
ta ikutu bihotz mintza?
Ai, klasiko ta modernoaren
betiko desditxa!
“Lehen bai boza eta hitza”
“Lehengoa bai bertsogintza”
Haik ez ditugu gaindituko ta
alperrik gabiltza! (bis)
- A. Mendiluze** Ari gera afanean
baino askoren esanean
ez gera lehengo haien erdirik
bertsoen lanean.
Onenak iraganean
dira beti aidanean
geu ere onak izango gera
hiltzen geranean. (bis)
- M. Lujanbio** Hil eta gero kalkula
hobetzen dela formula
ta ohorea akaso ordun
helduko zaigula.
Nik duda bat det mardula
ta beldur bat, ez da burla:
egun batean guk ere hori
esango degula. (bis)
- A. Mendiluze** Badezu nahiko ernegu
nola konpon dezakegu?
Egun batean besteei esan
behar al diegu?
Bertsotarako gaude gu
ez atsedeen, ez sosegu.
Beraz ez degu esango baina
entzun nahiko degu. (bis)
- M. Lujanbio** Pasatzen baita denbora
ta nahasten da ganora
ta norberaren egoa ere
izaten da droga.
Lehengoa zen mejora
ta ez gaur egungo moda
zahartzen ari geran seinale
hoixe izango da. (bis)

- A. Mendiluze** Ehun urtetara guztira
nahi genuke erretira
norbaitek zerbait ona esateko
modua hori da.
Behin sartuta lur azpira
ospea eta dizdira
onak ez dira hobetzen baina
txarrak ahazten dira. (bis)
- M. Lujanbio** Batzuei kejak, marmarrak
ta besteei azpimarrak
kimu berriak beharko ditu
hala're biharrak.
Dauzkat eskertu beharrak
ta entzun nere oharrak
gaztea beti ondo hartu du
bertsolari zaharrak. (bis)
- A. Mendiluze** Beraz hitzaren indarra
da gauza hauskor xamarra
eta badauka tradizioan
berritu beharra.
Entzun det zure oharra
ta horra bueltan oldarra:
gazteak ez du beti ondo hartu
bertsolari zaharra. (bis)
- M. Lujanbio** Nik ez det hainbeste uste
zu gaizki hartu al zaituzte?
Guk zaharrak ondo hartu ditugu
jenio ta lustre
neskekin ze buruhauste
patilladun eta beste...
marmarra ibiltzen zuten bai baina
maitatu gaituzte. (bis)
- A. Mendiluze** Ba bai herritan jairik jai
ibili gera nolana
ta zahar batekin joanez gero
gazte denak lasai.
Zaharrak erakusteko zai
beti irakasleen gai
zaharrekin ondo moldatzen ziran
baina gazteekin nahi. (bis)
- M. Lujanbio** Elkarrekin zen langintza
ta elkarrizketa giltza
zahar eta gazte lehen eta orain
batera gabiltza
elkar entzun eta mintza
hori da bertsolaritza:
hobe litzake gizartea`re
horrela balitza. (bis)

U S U R B I L

(2 0 1 7 - 0 3 - 1 0)

Bertsolariak: A. Labaka, U. Alberdi eta On. Enbeita.

Gai emailea: Maider Arregi.

Badira urte batzuk Martxoaren 8aren bueltan bertso afaria antolatzen duela Udaleko Berdintasun Sailak, Matraka talde feministaren laguntzarekin. Aurtengoan, Artzabal jatetxean hau ere, 90 lagun bildu ziren.

A. Labaka - U. Alberdi - On. Enbeita

[2017-03-10 Usurbil Jaialdia \[Bertsoa\] / Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Ane Labaka Mayoz](#)

Gaia: Onintzak Berria egunkarian argitaratu duen iritzi artikulu baten zatia irakurriko dizuet:

“Eta ni bitzita guztian titiak kokatu ezinik. Hamabi urterako handiegiak ziren. Hogeita birekin erortzen hasi ziren grabitatea deitzen dioten zera nazkagarri horren erruz. Harrezkero sujeta-doreetan gastatu dudanarekin, telebistako platorako nire neurriko mahaia erraz erosiko nuke. Hamasei urterekin, bertsoan paparra aterata kantatu behar dela esaten ziguten, eta nik ezin gehiago atera berez hain aterata zegoena. Hogeita seirekin Hitzetik Hortzerako irudietan txapelketako logoa baino gehiago nire titiak ikusten zirela esan zidaten. Ez dakit inoiz hain zapalduta sentitu naizen”.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Zelaia ikusi dut

On. Enbeita Behin pentsetan nebana
idatzi ta hara!
Munduari bueltaka
hor dabilta jada
dena esanda daukat
nik neuk beharbada
irakurri duzuna
nire egia da. (bis)

- U. Alberdi** Begirada jarrita
titi bat ta bitan
ipini zizkizuten
sarritan kritikan
haundiegi zirela
eta zeunden kinkan
ta ni berriz nengoen
zure inbiditan. (bis)
- A. Labaka** Ai elkarri begira
a ze bi *señora!*
Gustora etorri naiz
gaur zuen ondora.
Nahiz ta ustez nentorren
polit *a la moda*
zergatik igotzen det
kamiseta gora? (bis)
- On. Enbeita** *Señora* esan duzu
baina Ane begira
kamiseta igoaz
zure aurpegira
señora ikusi arren
gaur gu biok tira
zureak ere laster
eroriko dira! (bis)
- U. Alberdi** Ni alde horretatik
ez nabil xeble
titi txikiegiak
naturaren lege
baina horrelakotan
ez inoren mende
sarri ahaztu izan zaie
baneuzkanik ere. (bis)
- A. Labaka** Ta horrek eragin du
zure aldardean
baina zergatik zaude
gu bion artean?
Ni behintzat pozik nago
orain apartean
luzitu behar dira
erori artean. (bis)

On. Enbeita Luzitu behar dira
beti ahal bada
zertako etorri ziren
gorputz honetara?
Begiratu ezker
nire argazkitara
hil arte haziko zaidan
gauza bakarra da. (bis)

U. Alberdi Dominatzen dituzu
zuk zure artean
nereak berriz daude
diskretu, pakean
neri tokatu baitzait
gaurko jendartean
lautada izatea
mendien artean. (bis)

A. Labaka Ta zuretzako hauxe
a ze ohorea!
Inun ez det ikusi
paisaje hobea
antolatu dezagun
saio dotorea
behin etxean utzita
sujetadorea. (bis)

On. Enbeita Nik uste dut burmuina
be badaukatela
jendeak hitz egiten dit
sarritan horrela
eskotera begira
leloak bezela
ja uste dut hizketan
be badakitela. (bis)

U. Alberdi Zuenek bai dutela
mamia, dizdira
nereak bi *paxientxi*
al dira guztira?
Baina kontuak nola
ditugun begira:
hauei esker bi ume
elikatu dira. (bis)

A. Labaka Umeak elikatzen
gustora darraizu
gu ere hemen gaude
aizu, aizu, aizu!
Ta Onintza begira
ni jarri natzaizu
izen bana jartzea
soilik falta zaizu. (bis)

G A S T E I Z

(2 0 1 7 - 0 4 - 0 1)

Bertsolariak: S. Lopez, A. Otamendi, X. Igoa, I. Viñaspre, O. Perea eta M. Agirre.

Aurkezleak: Aintzane Arzallus eta Nieves del Alamo.

Arabako Bertsolari Txapelketako txapeldunaren bukaerako agurra.

O. Perea

[2017-04-01 Gasteiz Txapelketa \[Bertsoa\] / Oihane Perea](#)

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: ETaren su-etenetik

O. Perea Iratxe ta Samaniego
zatitxo bat erdibana
Lautadako bertso-eskola
gauean badugu plana
ta zuei bertsozaleak
hori indarra, hori xarma.
Nik pixka bat sufritu dut
bai aste honetan barna:
ospitalean daukagu
gure etxeko armiarma.
Gogoaren indarra da
entregatzen ez den arma
gaurko honetan txapelak
Maitetxo izena darama.

IRUÑEA

(2 0 1 7 - 0 4 - 0 8)

*Bertsolariak: A. "Itturri", X. Terreros, A. Karrika, J. Soto, J. Zelaieta,
E. Fernandez, X. Maia eta E. Lazkoz.*

Aurkezleak: Alaitz Rekondo eta Fernando Anbustegi.

Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapeldunaren bukaerako agurra.

J. Soto

[2017-04-08 Iruñea Txapelketa \[Bertsoa\] / Julio Soto](#)

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: Baserrian jaio nintzan

J. Soto

*Tú nos hacías cosquillas
y tú nos diste el pecho
izan gara maitasunez
hazitako bi umetxo.
Pero de un día pa otro
todo se hizo barbecho
eta destinuan aurka
ezin da egin ezertxo.
El camino de este duelo
es muy largo y muy ancho
zuek odoletan baino
bazoazte mantso-mantso.
Os agarráis a la vida
aunque os falte un cacho.
Txapeldun batzuk zarete
aitatxo eta amatxo.*

ZUMAI A

(2017-04-21)

*Bertsolariak: J. Maia, A. Egaña, E. Lekue, A. Laburu, M. Lujanbio
eta S. Colina.*

Gai emalea: Unai Manterola.

Aita Mari Zineman urtero bezala San Telmo jaietan jaialdia jarri zuen Zumaiako Bertso Eskolak.

S. Colina – J. Maia

[2017-04-21 Zumaia Jaialdia \[Bertsoa\] / Sustrai Colina, Jon Maia](#)

Gaia: Cannabisaren legeztatzeari buruz hitz egingo dugu. Jon politikaria da, lagun artean gaztetatik porroak erretzen dituena, baina alderdiaren diziplinagatik edo, behin eta berriz bere legalizazioaren aurka bozkatzeko duena. Sustrai, berriz, terapeutikoki hori erretzea behar duen gaixo bat.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: Hamalau heriotzena I

S. Colina

Ja aspertuta nago
esan ezin den gaiz
cannabisaren kez ta
hipokrita usaiz.
Bai, ni gaixo bat nauzu
aitortu izan dut maiz
seguru aski ez dena
sendatuko garaiz
ordea zure erruz
delinkuente bat naiz.

J. Maia Nik nahi dut gizarte bat
kontzientzia lotan
ta ez mugiarazi
ideien errotan
nola gazte garaitan
ia umetxotan
neuk`e erre det modu
sistematikotan
baina ez det erre nahi
sistemaren kontran.

S. Colina Lotu itzazu eskuak
estu korbatara
eta jarraitu zazu
gaur arte gisara.
Minbizi bat iritsi
zait biriketara
ibilia tabako
kaladaz kalada
eta kasualidadez
hori legala da.

J. Maia Horren kontra badegu
iniziatiba
eta legez uztea
da alternatiba
zuk zure alderantza
nahi zenuke tira
legea egiten da
guztiei begira
eta ezin da egin
norberan neurrira.

S. Colina Ez zazula hitz egin
zinismoan mugan
zure hitzek utzi naute
eta duda mudan
zuk jarrita baituzu
soa soilik zukan
ez izan hipokrita
zure koiunturan
eta sinetsi zazu
pertsonek arduraren.

J. Maia Baina pertsonak ez du
horren balioa
gauza doan bezela
nahiko ongi doa
neurtu arrazoia
ta ondorioa
pentsatzen det ez al den
gauza serioa
gaitza bezain txarra den
erremedioa.

S. Colina Benetan harrিতuta
nago ni zurekin
bihurtu nahi al nauzu
budu baten panpin?
Ez naiz ez kalada bat
ta ez zigarrokin
gaitza txarra dala ta
remedioa berdin
zertan zabilzate ba
farmazeutikekin?

J. Maia Enpresa mundu hortan
gaude oso baikor
aldiz belarra nun den
horma marroi bat hor.
Ez nauzu ibiliko
barruan aldakor
saiatzen naiz itxuraz
hitz egiten jator
diskurtsoa etxetik
ikasita nator.

LASARTE - O R I A

(2 0 1 7 - 0 5 - 0 6)

Bertsolariak: A. Egaña, A. Labaka eta M. Lujanbio.

Gai emalea: Uxue Loinaz.

Udaberriko Bertso Saioa modu berezian antolatzen du urtero Lasarte-Oriako Bertso Eskolak Ttakun Euskara Elkartearekin batera. Normalean beste kultur arloekin nahasian egiten dute eta oraingoan herriko trikitilari eta dantzariekin osatu zuten Manuel Lekuona kultur etxean egindako emanaldia. “Soinuaren errimak dantzan” izena jarri zioten eta aipatutakoez gain, bakarrizketa bat eskaini zuen Intza Alkainek.

A. Labaka –M. Lujanbio

[2017-05-06 Lasarte-Oria Berezia \[Bertsoa\] / Ane Labaka Mayoz, Maialen Lujanbio](#)

Gaia: Hitzik behar al da erotiko edo iradokitzaile izateko?

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Behin batian Loiolan III

M. Lujanbio Imajina dezagun
lehenbiziko zita
lehenengo zoramena
hura ikusita
begirada beroa
ta irri polita
dena izorratzen da
hizketan hasita. (bis)

- A. Labaka** Sarri pentsatzen degu
 “Bera det begiko
 eta hari begira
 bero naiz jarriko”.
 Gazteago nintzela
 ta ez hain kritiko
 zu izan zinen nere
 mito erotiko. (bis)
- M. Lujanbio** Baina bertsolariak
 udan ere negu
 pieza bateko gorputz
 harrizko eredu.
 Nekin ez pentsatzea
 Labakak hobe du
 erotika haundina
 mingainean degu. (bis)
- A. Labaka** Mingainak salbatuta
 hainbeste azaro
 zure ondoan senti
 naiteke arraro.
 Erotikoa zera
 isilik zeharo
 ta ahoa irekitzean
 oraindik gehiago. (bis)
- M. Lujanbio** Milesker hori aktan
 geratu dadila!
 Nahiz segur asko ez zen
 egi borobila
 ni bezelakoa da
 bertsolari pila
 ekiten lotsatia
 kontatzen abila. (bis)
- A. Labaka** Horri itxura onak
 nik hartu dizkiot
 ideia ona dela
 halaxe deritzot.
 Gaur elkartu geranez
 tabladuan biok
 zuk konta zazu lasai
 nik ekingo diot. (bis)

M. Lujanbio Bastante atrebitu
dabil gure dama
jendaurrean gaude ta
hau da panorama!
Beti “Ia, ia” ta
“Ai ama! Ai ama!”
erotikoena da
gertatzen ez dana. (bis)

A. Labaka Ez da ez gertatuko
ta hala beharko
betidanik euki det
irudimen asko
eta sortu nahi nizun
orain zuretzako
motibazio pixka't
saio osorako. (bis)

A. Labaka – A. Egaña – M. Lujanbio

[2017-05-06 Lasarte-Oria Berezia \[Bertsoa\] / Andoni Egaña, Ane Labaka Mayoz, Maialen Lujanbio](#)

Gaia: Beti esan izan da bertsolariak dantzariak poste samarrak izan zaretela. Regea, regetoia, rocka, erromeria... Zuek dantza egin beharko bazenute, zer aukeratuko zenukete?

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Igaran egun batez

M. Lujanbio Zeinek ikusten nau ni
grazirik gabeen?
Gatza ta piperra det
nere edadean
sueltoan dantzatzen naiz
arin ta aidean
regetoia ere bai
intimidadean.

A. Egaña Ni dantzatzen txarra naiz
diot zuzenean
intimidadean nahiz
ahots ozenean.
Bat aukeratzekotan
twista azkenean
zerbait ikasi omen nun
ume nintzanean.

A. Labaka Beste hauen aldean
badaukat sasoia
goizeko lau t`erditan
nik jotzen det goia
Trumoi edo Ilargi
nolako trumoia!
Nere favorittoa
beti *regetoia*.

M. Lujanbio Aditu sekretu bat
esango detena:
Andoni hau onena
txotisean dena
txuleria badauka
madrileño sena
ta gerrialdea ja
jubilatuen.

A. Egaña (*) *Txotis antzeko doinu batean kantatzen du*

Ene Maialen honek tentatu
horren modu lizunian
Madrileño`re izan ninteke
tokatzen dan egunian
eta "Uxoan berbena" hortan
zolu goxo, legunian
txotisa biok egingo degu
aizu zuk nahi dezunian.

A. Labaka Andoni izan leike
gaueko errege
ez zait asko gustatu
hori alafede!
Nik zapatetan badet
nahikoa botere
ta dantzatu dezaket
flamenkoa ere.

M. Lujanbio Ni flamenkoan nabil
aldarte hotzean
tango on baterako
hain pauso motzean
sueltoan hasita`re
ia erortzean
paso doblea eiten
degu mozkortzean.

A. Egaña

Ni dantzako kontuetan
txepel eta ñaño
probatu detenetan
zenbat desengaino!
Behar du dena ilun
edo dena laino
baso erdi bat nahio
paso doble baino.

A. Labaka

Sen espainiarra det
onartzen det hemen
dantza kontun abila
ni nabil abilen
aurreko asteburuan
nahiz ez zen Madril
Sevillan izan nintzan
“Feria de Abril”en.

Amaiur ikastolan. Iruñea, 2017-06-06. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



M. Lujanbio

[2017-05-06 Lasarte-Oria Berezia \[Bertsoa\] / Maialen Lujanbio](#)

Gaia: Joseba Tapiaren Real Politik albumeko Madrilgo lagunak abestia, Bitoriano Gandiagaren letra duena, kantatzen du Joseba berak.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Hegoaldetik jasotzen dugu
mespretxua ta destaina
sinestarazi nahi ligukete
ez gerala eurek aina.
Neri berdintsu pasatu ohi zait
berdin ez da berez baina
Estatuta eta pertsona dira
bi neurri ta bi tamaina
nik espainarrak maite ditzaket
baina ez det maite España.

Izan nahi nuke herri oso ta
beregain bat heltzeko gai
euskeran duna sustraia eta
ez dagoena besten zai.
Bestei baimena eskatzen eta
bestei erreguka noiznahi
bihar-etzitan nik ez nuke ez
nahiz eta EAJk bai
realidade autonomiko
folkloriko bat izan nahi.

Beraz bi herri ginateke gu
ta bi errealidade
bakoitza bere nortasunaren
ta autonomiaren jabe.
Autonomiaz independentzi
esan nahi nuen hala're.
Ni ere nago España ezkertiar
eta jator baten alde
ez gure aita izango dena
baizik lagun parez pare.

B I L B O

(2 0 1 7 - 0 5 - 0 6)

Bertsolariak: U. Iturriaga, M. Lujanbio, M. Amuriza eta I. Ajuriagojeaskoa.

Gai-emailea: Aitor Irastorza.

Astero bertso saio bat antolatu zuten maiatzean “Udaberriko bertso saioak” programazioaren barruan. Hau lehena izan zen, Karmelo Plazan eguerdian.

Santutxuko bertso eskolak antolatuta, XXXIII. edizioa izan zen hau.

M. Amuriza – I. Ajuriagojeaskoa

[2017-05-06 Bilbo Jaialdia \[Bertsoa\] / Ibon Ajuriagojeaskoa, Miren Amuriza](#)

Gaia: lazko Bizkaiko Bertsolari Txapelketan saio gogoangarrietakoa bi hauek egin zuten. Orduko hartan, Mirenek Donejakue bidea egitea erabaki zuen bakardadeaz gozatzeko, baina bieira bat baino itsaskorragoa zen Ibonekin egin zuen topo.

Helburua lortu zenuen Ibon, eta ezkondu egin zineten. Haur bat izan zenuten eta gaur zortzi urte ditu haurrak. Berarekin berriro Donejakue bidea egiten ari zarete eta orduko istorioak kontatzen.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Naparruatik ardo karraio A

M. Amuriza Begira ume garai bateko
pasarte bat otu jate
zure aita ta ni alberge honetan
elkarrizketaren parte.
Itsasi jatan, zelan itsasi
ezin nik aldendu bape!
Berarengatik balitz orain be
lepoan joango litzake.

- I.Ajuriagojeaskoa** Zure ondora hurbildu eta
zu beti zinan izutzen
ez dakit zertan joaten zinen
nire ondotik urruntzen.
Nik bieira ta zuk berriz txirla
eta dena aldatu zen
une horretan gu hasi ginen
elkar ondo ezagutzen.
- M. Amuriza** Begira, ume jakin hementxe
afaldu ein genduala
ta zure aita mizkin samarra
zan zu oraintxe bezala
ta esan behar deutsut hark txirla jaten
neugaz ikasi ebala
zeozergatik esaten deutsut
danetik jan behar dala.
- I.Ajuriagojeaskoa** Hura izan zan bai jatordua
ideala, mundiala!
Pentsatzen nabil nahiko denbora
pasatu egin jakuala.
Seme txikia hartu egizu
hori lekzino bezala
bizitzan zeozer nahi baldin bada
saiatu egin behar dala.
- M. Amuriza** Lekzino emoten hasi zara ta
ez daigun segi matrakan
baina begira umea dago
ondino erantzun faltan
ahalegintzea aipatu dozu
ai, zure orduko markan
esplikaiozu zer egin gendun
albergeko literatan.
- I.Ajuriagojeaskoa** Aparia han bukatu eta
gorantz joan ginen zuzen
eta literen muellea ere
behetik entzuten zan ozen
hori nagusi kontua da ta
umeen kontua ez zen
haurra hementxe itxi daigun ta
gorantza joan gaitezen.



I. Ajuriagojeaskoa - M. Amuriza – M. Lujanbio – U. Iturriaga

[2017-05-06 Bilbo Jaialdia \[Bertsoa\] / Ibon Ajuriagojeaskoa, Miren Amuriza, Maialen Lujanbio](#)

Gaia: Aurten da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa, eta bertan izango dira hemengo hiru. Zu, Unai, bertso entrenatzaile moduan hartu zaituzte hauek. Jarri puntu batzuk.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Haizeak bidali du

U. Iturriaga

Lekua onean itzi
behar dozu Bizkaia.

I. Ajuriagojeaskoa

Erosi beharko neuke
giputxen epaia
urrutira joatea
bertan nire nahia
bizkaitar txapeldun bat
badogu garaia!

U. Iturriaga

Prest edukiko dozu
Maialen gobara

I. Ajuriagojeaskoa

etxean hantxe dago
etortzen bazara
hori orain zortzi urte
pasatu zen jada
idea ta ile suelto
nator gaur plazara.

U. Iturriaga

Miren ezin da beti
bat izan promesa.

I. Ajuriagojeaskoa

Zu be aspaldi izan
zinan bai sorpresa
nik eduki nahi neuke
jendean babeseta
ta badaezpada ezin esan
zein dan nire ametsa.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: Ai gure antzinako

U. Iturriaga

Tarte txikia dago
Bilbotik BECera. (bis)

I. Ajuriagojeaskoa

Asko jota helduko naiz
bertako atera
final handia bertan
izango ete da?
Nik ez dot eukiko ez
joateko aukera
baina ia behintzat pozik
ni noan etxera. (bis)

U. Iturriaga

Sentitzen ete dozu
irabazi beharra. (bis)

I. Ajuriagojeaskoa

Asko jota helduko naiz
Irabaztearena
presio baldarra
lehenago ere izan nun
esperientzi txarra
ta bigarren geratu
ze leku earra!
Ze aurten txapelduna
ziur bizkaitarra. (bis)

U. Iturriaga

Maialenek esan dau
zure txanda dala. (bis)

I. Ajuriagojeaskoa

Ba bai hori izango
litzake mundiala
neuk be firmauko neuke
hori berehala
baina sinesten gatxa
izan leike ala?
Eta ikusiko da
aurrera joan ahala. (bis)

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: Dozena bat bertso berri A

U. Iturriaga

Imaginau zeu txapeldun

I. Ajuriagojeaskoa

ta BECen oholztan jardun
lehen esan dot ta orain be dinot
ikusten dut urrun.
Tentsioa da ezagun
bertan horrenbeste lagun
konpetitzera goaz gu baina
disfrutatu daigun. (bis)

U. Iturriaga

Arerioak zeintzuk dira?

I. Ajuriagojeaskoa

Ni nengon zuri begira
prejubilatatu egin zera ta
azkar erretira
zuk bai zendula dizdira!
Ta jendeak zu desira.
Besteren kontra borroka egin
beharko da, tira! (bis)

U. Iturriaga

Entzun, txapelduna Miren

I. Ajuriagojeaskoa

zer ez ote du eginen?
Apunte batzuk hartzen guk hasi
behar dogu lehenbailehen
nahiz orain egin hasperen
ezin da hartu atsedean
zeren haginak zorrotzak danok
daroaguz hemen. (bis)

Bertsopaper lehiaketa. Mungia, 2017-01-15. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



AZKOITIA

(2 0 1 7 - 0 5 - 1 9)

Bertsolariak: E. Artetxe, M. Lujanbio, U. Izagirre, A. Arzallus, U. Alberdi eta A. Egaña.

Gai-emailea: Silvia Etxaniz.

Ernirraitz Bertsozale Elkarteak bi urtetik behin antolatzen duen bertso astearen baitan, Maxixatzen Euskaldunon Elkarteak Maiatzeko lorak izeneko saioa antolatu zuen, Floreaga ikastolako On Bosco aretoan. 220 lagunek bete zuten aretoa.

M. Lujanbio - E. Artetxe

[2017-05-19 Azkoitia Jaialdia \[Bertsoa\] / Eneritz Artetxe Eizagirre, Maialen Lujanbio](#)

Gaia: Zuek zuen herriko herri komunikabidea sortu zenetik bertan parte hartzen duzuen bi zarete. Zuk, Eneritz, gaurko garaietara egokitu nahian, webgune bat sortu nahi duzu, berriak han emateko. Zuk, Maialen, betiko moduan jarraitu nahi duzu, aldizkaria hilero gutunontzietan banatzen.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

M. Lujanbio Klasika deitzen didazu baina neretzat ez da arraro kontutan hartu behar ditugu edadedun ta zahartzaro informazio hori hartu behar da eskuz esku, ahoz aho leku guzitan dagon Internet gero inun ere ez dago. (bis)

E. Artetxe Ados, kontutan hartu beharrez
gaude nahi aina edade
hasi goitikan eta beheraino
heldu, ume ta nerabe
baina urrunera ez gera helduko
pantailari so egin gabe
ze gaur egungo buzoi guziak
ordenagailuan daude. (bis)

M. Lujanbio Baina lokalak gera gu eta
nabarmentzeko`re lanak
gure eskalako notiziak ta
gure herritarrek esanak
zeren pantailan berdinak dira
komunikabide danak
ta buzoiean poza ematen du
bankuko karta ez danak. (bis)

E. Artetxe Ja nekatuta ikusten zaitut
hontan zabilitza luzaro
ba erakutsi daigun garela
banku bat baino gehiago
eta lokalak garen horrekin
nahiz ados nagon zeharo
baina horrela egingo gera
askoz ere lokalago. (bis)

M. Lujanbio Alde hortatik Eneritz lasai
lehen ere gaude lur juak
paperezkoan zenbakik dira
neurriko edo bajuak
baina badauzka bere ikutzeko
ta pintatzeko lujuak
alkateari bigotea ta
apaizari antiejuak. (bis)

E. Artetxe Berdin apaiza berdin alkate
a ze marrazki itzela!
Baina teklatuz egin daiteke
photoshopen bestela.
Beraz bide hau egin dezagun
justu diodan bezela
zenbat alditan entzun dizudan
geroa gurea dela! (bis)

M. Lujanbio Noski gurea dela geroa
hori idatzita zegon
paperari ta printzipioeri
eustea pentsatu ze on!
Mundu guztiak zibernetiko
nahi duela off eta on
azpeitiarrek ona dutela
ta haiei begira ez egon. (bis)

E. Artetxe Bizirautea idatzi zendun
aspaldi hartako promesan
nik ere eskua sarri altxa det
zuk ere ikus zenezan.
Modernizatze bide honetan
ikusten zaitut perezan
“Gurea” esan dudan unean
“Gazteena” nahi nuen esan. (bis)

Gipuzkoako Herriarteko txapelketa. Alegia, 2017-02-10. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



B I L B O

(2 0 1 7 - 0 5 - 2 0)

Bertsolariak: E. Lekue, A. Egaña, I. Elortza eta A. Estiballes.

Gai emailea: Irati Erkizia.

Udaberriko Bertso Saiotako hirugarren jaialdia, Santutxuko bertso eskolak antolatua, Bilboko Udaleko Turismo eta Kultura Sailaren babesean.

E. Lekue - A. Egaña - I. Elortza - A. Estiballes

[2017-05-20 Bilbo Jaialdia \[Bertsoa\] / Andoni Egaña, Igor Elortza, Arkaitz Estiballes, Etxahun Lekue](#)

Gaia: Famatua egin da aste honetan izan den ziber-atake mundial bat. Zu, Etxahun, informatika aditua izanik, erasoaren atzean nor dagoena ikertu behar duzu. Atzeko hirurak dira susmargarriak.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Eguna pasa nekean eta

E. Lekue Hackerren batek mundu osoari
luzatu dotso erronka
bakar batek egin ete leike ba
sistema osoan porrota?
Lehendabiziko begiratu
Andoniri dotset bota.
baina hau hacker bat ezin da izan
mobilik be ez deko ta! (bis)

- A. Egaña** Teknologia kontu hoietan
ezin ezer erakutsi
Pitecantropus jaio nintzan ta
nere izaerai eutsi
ta gutxi balitz ezpainen pean
bizarra luzatzen utzi
nik akerretik asko daukat
hackerretik oso gutxi. (bis)
- E. Lekue** Andoni itxi ta Durangoko
piezarengana gatozan
seguru baietz esango leuke
komisaldegiko aitortzan
baina intelektual itxura ta
gafa pastak nahiz dekozan
erruduna Igor izatea hemen
obbioegia izango zan. (bis)
- I. Elortza** Hackerrak adar okerrak ditu
Andonik ere bai jada
baina Etxahunek sospetxoso lez
neu ekarri nau plazara
kontuz ibili libratu nozu
peligrosoa da hara!
Gauza askotan obbiedadea
izan da nire koartada. (bis)
- E. Lekue** Eta Arkaitz berriz justiziagaz
beti ibili da kolokan
honen ta haren alde eginaz
ta honen ta haren kontran.
Ai baina harrapau egin zaitugu
laguntxua oingo hontan
berrogei Appel topau deutsegu
Zeanin baserriko kortan. (bis)
- A. Estiballes** Berrogei sagar izango ziren
eta igual sagardo batzuk
ni normalean parrandan nabil
han bazkaldu ta hor zurrut
kurtso erdia bajan pasatzen
dudala badakizu zuk
nik birus hoiek zabaldu beharrea
normalean hartzen ditut. (bis)

BIRIATU

(2 0 1 7 - 0 5 - 2 1)

Bertsolariak: A. Arzallus, S. Colina, S. Lizaso, M. Lujanbio eta J. Soto.

Gai emalea: Aimar Karrika.

Ikastolen alde antolatzen duten bigarren bertso saioa. Beste urte garai batean, lehenengoa elizan egin zuten iaz eta oraingoa herriko plazan. Leku ederra eta egokia. Beharbada jendea sakabana-tuxeago, gauza gehiago tartean, haurrak... Uda garaiko plazako ohiko saioa. Gaiak hala aginduta, alboan zegoen etxe bateko leihotik kantatu zuten zenbaitetan.

S. Lizaso – M. Lujanbio – J. Soto

[2017-05-21 Biriatu Jaialdia \[Bertsoa\] / Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Julio Soto](#)

Gaia: Biriatu adibidetzat hartuta herri baten errealitatea irudikatzen saiatuko gara.

Sebastian Lizaso, eliza izanen zara. Herriko bereizgarri ederrenetakoa, baina azken urtean obratan dagoena. Julio Soto ikastola. Duela bi urte sortu arren emendaketa dela medio, lekurik gabe geratuko dena. Maialen Lujanbio igogailua. Herriko urteko akontezimendua.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Zazpi ahizparen gai den oihala I

S. Lizaso Herrian sartu eta lehenbizi
ikusten dena kolpera
zoritarrean azken urtetan
oso gutxitan bete da
erabilpena galdu lezake
eta beretzat kaltera
fedea berritzen ez badegu
eleizarekin batera.

- J. Soto** Gu herriaren hiru zutabe
herriaren hiru margo
baina neroni desabantaila
dudan uste hortan nago
eliza haundi geratu arren
geroz eta berriago
ni berriz ttiki geratu naiz ta
toki gehiago ez dago.
- M. Lujanbio** Igogailua berriz eginda
oraingoz lehen mailara
oinez igo nahi duenarentzat
aukeran da eskilara
udaleraino ailegatu da
ta arrakastatsua bada
gero tren txiki bat eingo degu
udaletik elizara.
- S. Lizaso** Jende heldua hurbildu ohi da
nigana bere kasaka
eta gazteak ez dira etortzen
sarritan eta presaka.
Hala ta guztiz oraindik ere
zer egina hark badauka
azken bidaia askok hasten du
eleizatikan pasata.
- J. Soto** Eleiza errespetatu behar da
bere kanpai bere leiho
igogailua tresna ona da
nahiz eta nik hankak nahio
ikastolari ordean egin
behar zaio toki gehio
Biriatu ez baita Biriatu izango
euskaraz ahazten bazaio.
- M. Lujanbio** Igogailuak memoriarik ez
baino badu ikuskera
gora ziztuan igotzen da ta
behera bajatu ostera
bai Hendaian ta bai Irunen`e
nahiko inbiri ta uste da
hona etortzen dira teknologi
puntakoa ikustera.

S. Lizaso Aste guztian inor ez eta
jende gutxi igandean
erabilpena aldatzea ere
komeni da aidanean.
Azken urtean hor ari dira
berritu asmoz lanean
bertsoak ere badu leku bat
noizbait bukatzen denean.

J. Soto Urterik urte aurrera eta
su txikitxo bat bezela
itzaltzen joan zen gure hizkuntza
zeturrena zeturrela
baina herri hau ernatu dadin
akabo baita bestela
nik fedea dut igogailurik
onena euskera dela.

M. Lujanbio Alkate jaunak pentsatuko zun
ai ideia hau ze ear!
Autoa utzi eta lanera
ia oinak mugitzear.
Ez dakit plazako herritarrekin
ez duen pentsatu mehar
igogailuan jeisteko ere
eskailerak igo behar.

M. Lujanbio – J. Soto

[2017-05-21 Biriatu Jaialdia \[Bertsoa\] / Maialen Lujanbio, Julio Soto](#)

Gaia: Maialen, Bakea jatetxeko jabea zara (Biriatuko jatetxe dotore eta garestia). Soto ondoak biltzen ibili zara. Egun osoa pasatu duzu horretan. Bueltan, gosetuta, aurkitu duzun lehen ostatura sartu zara; hain zuzen, Bakea jatetxera.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Nere senarrarekin I

J. Soto Eguna pasa baitut
mendian jo ta ke
saskia ere bete
dut goia jo arte
prezioek ikara
ematen didate
baina agian tratu bat
egin genezake. (bis)

M. Lujanbio Nafar jende gaizto hau
hurbiltzen da usu
ene ze harrapari
ta ehiztari kutsu!
Eseri zaitte lasai
ez arduratu zu
lapurtu duzun aina
ordainduko duzu. (bis)

J. Soto Udaberria doa
lehorte ta sute
perretxiko askorik
dagonik ez uste.
Beraz tratua azkar
itxiko genuke
hamabi perretxiku
bazkarian truke. (bis)

M. Lujanbio Hori neretzako da
tratu elbarria
irabaztea baitut
noski oinarria.
Bakea ere ez diot
alferrik jarria
mantela zuria du
faktura gorria. (bis)

J. Soto Izar Mitxelinak`e
batzuk badituzu
mantel zuri honetan
bada aski luxu
baina faktura gorriz
estutzen banauzu
nere kopeta beltza
ikusiko duzu. (bis)

M. Lujanbio Harroa zala uste
ta umildu jada
begira ipintzen da
bere otarrara
berrogeita hamarreko
hiru tira hara!
Napar koxkor batentzat
hoiek zer dira ba? (bis)

J. Soto Nik uste dut tratua
ja zaildu zaiguna
ta ez nauzula izango
zurean jatuna
baina joan aurretik
galdera laguna:
pixale nago eta
nun dago komuna? (bis)

M. Lujanbio Alde egin nahi dula
ostatutik kanpo
antza denez bixita
garesti zelako.
Komona ere ordaintzen da
deus ez da doako
zureak ez du balio
ongarritarako. (bis)

DONOSTIA

(2 0 1 7 - 0 6 - 0 4)

Bertsolariak: A. Arzallus, O. Iguaran, B. Gaztelumendi eta A. Laburu.

Gai emalea: Gorka Segurola.

Altzako hamazazpigarren bertso astearen barruan eta Donostia Kulturaren laguntzarekin bertako plazan antolatutako jaialdia.

O. Iguaran - A. Laburu

[2017-06-04 Donostia Jaialdia \[Bertsoa\] / Oihana Iguaran, Agin Laburu](#)

Gaia: Zuen bion lagun batek gustuko duen norbait afaltzera ekarri nahi du, baina aurrena zuekin probatu nahi du bere sukaldaritza dohaina. Zuen iritzia eman, baina Oihanak laguna ez mintzeko moduan; Aginek gordin esango dizkio ordea.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Durangotik gorako

O. Iguaran Sukaldari gisara
hasi zaigu Aitor
jo eta ze platera
nahiz saiatu gogor!
Nola esango diot
zapora hau jator
ez da txarra merienda
eginda badator. (bis)

A. Laburu Lasaña ederra zan
joko nion bando
nahiago ladriluak
hemengo ta hango
alperrikan bi esku
alperrik bi zango
nere txakurak ere
ez zukeen jango. (bis)

O. Iguaran Eta hojaldre bat zan
bigarrenengo froga
jo eta ze sustoa
sartzean ahora!
Iguar zeliaka da
hortan dago moda...
eta ez bada ere
bihurtu egingo da. (bis)

A. Laburu Bigarren platerakin
honea, harea
Zurriolan hobia
daukate harea
indigestatuko zait
patata purea
ta nere lagunaren
sintzeridatea. (bis)

O. Iguaran Ta postreko *browni* bat
da lehor xamarra
gainera erre zaio
gainera kaxkarra
sukaldaritzan behintzat
gaintu du marra.
Ze zaila dan prestatzen
txokolate txarra! (bis)

A. Laburu Eztarrin pasatzeko
estu eta larri
itsasoa edan arren
halere egarri.
Asto kakak jar bitza
bere gozagarri
ta Arzaken bezela
hiru izen jarri. (bis)

O. Iguaran Ba ez nuke hasi nahi
bere aurrean kexu
baino galdetu du ta
zenbat konpromezu!
Jatetxe baterako
hobea zaude zu
eta muxu batekin
ase dezakezu.(bis)

A. Laburu Oihana zu bazera
Aitorren laguna
ezin zaitezke izan
horreinen leguna
lehenego zita baita
izango deguna
gose greba bateko
lehenengo eguna. (bis)

Nafarroako txapelketan. Irurita, 2017-03-04. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



EREÑOTZU

(2 0 1 7 - 0 6 - 1 1)

Bertsolariak: J. Soto, S. Colina, A. Labaka, O. Iguaran eta M. Lujanbio.

Gai emalea: Aritz Zerain.

Jaietako bertso saioa igande arratsaldean, Ereñotzuko Olak Auzo Elkarteak antolatuta.

J. Soto - S. Colina - A. Labaka - O. Iguaran - M. Lujanbio

[2017-06-11 Ereñotzu Jaialdia \[Bertsoa\] / Sustrai Colina, Oihana Iguaran, Ane Labaka Mayoz, Maialen Lujanbio, Julio Soto](#)

Gaia: Puntuak jartzeko ariketa egingo dugu. Bakoitzari bina puntu jarriko dizkizuet. Eta publiko artean dauden gure adituek erabakiko dute nork egin duen ondoen, eta bi horiei beste bina jarriko dizkiet.

Doinua: Haizeak bidali du

Neurria: Zortziko txikia

A. Zerain

Pelotan berriz ere
nafarrak nagusi

J. Soto

Leitzara eraman du
brodatu ta guzi
nahiz aramarra ez zen
aritu itsusi
leitzarra ainakorik
nik ez det ikusi.

A. Zerain

Gorritin ospatze al da
Leitzako txapela?

J. Soto

Ospatzen dugu jantzi
bagenu bezela
nahiz hauteskunderik bitan
banatu pastela
guk sentitu ohi dugu
naparra bat dela.

A. Zerain

Hernanitik banandu
omen zen Lasarte

A. Labaka

eta gustora gaude
hemendik aparte
guk zuek ez bezela
degu nahiko arte
hori pentsatzen nuen
hona etorri arte.

A. Zerain

Iñatzu ere dago
banatzen hasita

A. Labaka

eta ez naiz harritzen
gaur hau ikusita
nik oso gustoko det
zuen politika
eta herria litzake
benetan polita.

A. Zerain

Iñatzu edo Hernani
zein da zure aukera?

M. Lujanbio

“Hau” esan beharko da
etorrita honera
gero han beste aldera
mintzatuko gera
bertsolaia baitabil
batetik bestera.

A. Zerain

Ez zinan gaizki bizi
izan Intsusadin

M. Lujanbio

ez nuen urte pasa
han eskasa egin
terraza haundia eta
hango putzuakin
etorri beharko det
ta Hernanitik aldein.

A. Zerain

Bertsolariak dantzan
asko ez dira ikusten

O. Iguaran

ba nik asko horretan
jarriko nituzkeen
nola askok hankak hain
arinak dituzten
segi beharko degu
fama hori puzten.

A. Zerain

Hankak edo mingaina
zer dezu arinago?

O. Iguaran

Une hontan mingaina
esango det klaro!
Baino dantzan sasoiari
ta ederki nago
ostiko jo dezaket
zerutik harago.

A. Zerain

Zenbat kantatuiozu
aitatasunari?

S. Colina

Justu kantatu gabe
nengoen aspaldi
nahiz bertsoak joan diren
txarrak ta ugari
beti kantatzen zaio
nobedadeari.

A. Zerain

Zenbat gau joan dira
argia piztuta?

S. Colina

Makina bat joan zaizkit
kopeta beztuta
haurra lokartu nahian
ta arnasestuka
baina ezin kejatu
bueltarik ez du ta.

A. Zerain

Adituek diote orain altxa behar dutela: Oihanak eta Juliok

Doinua: Orain hasi bihagu

Neurria: Zortziko txikia

A. Zerain

Juxtua izan al da
zure ustez epaia?

O. Iguaran

Noski nik daukat baietz
hoi sinistu nahia
Juliok ta nik berez
daukagunez gaia
bazan epaile batek
aipatu garaia.

A. Zerain

Hankak zeruraino ta
noraino mingaina?

O. Iguaran

Ez naiz Maialen eta
noski ez naiz Egaña
baino egin nezake
bi horiek aina
oholtzari hartuz gero
egoki tamaina.

A. Zerain

Erantzuten zu izan
zera azkarrena

J. Soto

Baino hala're egin
dut pixka bat herrena
nahiz azkar kantatu
bidean barrena
erantzuna izan leike
inoizko okerrena.

A. Zerain

Puntua bukatu arte
itxaron Julio

J. Soto

baina itxaroteak
ez baitu balio
bertsolaria denez
erdi kanario
barrutik datorrenai
kaso in behar dio.

Jaietako plaza. Lizarra, 2017-08-06. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



ANOETA

(2017-06-16)

Bertsolariak: U. Alberdi, O. Iguaran, E. Lekue, S. Colina, J. Soto eta O. Perea.

Gai emalea: Amaia Agirre.

Pilotalekuan herriko jaietarako berreskuratzen ari diren jaialdia. Jarraian egiten den hirugarrena izan da hau.

E. Lekue – O. Perea

[2017-06-16 Anoeta Jaialdia \[Bertsoa\] / Etxahun Lekue, Oihane Perea](#)

Gaia: Xakean, partida bukatu ondoren, erregea eta peoia kaxa berera itzultzen dira. Dominan, fitxak zutik jarri eta lehenari bultza eginez gero, batak bestea bota eta denak erortzen dira. Balio ote dute esaldi horiek Euskal Herriaren egoerari begira?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Beti penetan beti penetan

E. Lekue Mahai jokotik asko ikas leike
asko baitabe ageri
baina ezin geinke beti jolasten
edo jolasean segi
ze ajedrezari begiratuta
begitantzen jatan neuri
errege usteko lar dagoala
eta peoi gitxiegi.

O. Perea Errege usteko asko dago hemen
gure etxeko atean
ta izango da xake partida
luzetxo honen kaltean
fitxa guztiak jaso beharra
badaukagu bapatean
ahal bada peoi denak ipini
ditzagun goiko partean.

E. Lekue Gure egoera ez da jokoa
ta bai ostera trantzea
dominantza pasa gaitzan
hor be bada jokatzea
suertatu leike lehena bota
eta denak erortzea
ai baina zenbat kostatzen jakun
lehenengoa botatzea!

O. Perea Bota ditugu guk fitxa batzuk
isildu da hainbat bala
baina partidan mina badago
ez da hain originala
bota dezagun fitxa multzoa
guk dominoan bezala
eta hurrengo belaunaldiak
zutik ipini ditzala.

E. Lekue Pasa gaitzan karta jokora
xake eta dominotik
hor be erregeak agertzen dira
batetik eta bestetik
musean onak ei garela gu
entzun izan dot barrutik
baina euskaldunok inoiz ez dogu
hogeita hamaika eskutik.

O. Perea Egunen baten izan ezker
hogeita hamaika eskutik
domino fitxak ere kolpera
jarriko zaizkigu zutik
baina hortarako behar genuke
erregerik ta indarririk
herri honetan ez dagolako
txikira hordago egiterik.

E. Lekue Edozein joko hautatu geinkez
nahiz ta onak izan berez
domino, karta edo xakean
guk hartu geinke bai babes
ta irabazten baldin badogu
berez abilak garenez
segiduan eurek jokia euren da
ta arauak aldatzen dabez.

O. Perea Euren dugu jokia eta
kabierra edo angula
mahai gainean dauzkatenik gaur
ezin dute disimula
seme-alabei kontatu gura
genieke pelikula
gure gurasoek kontautakoa
irabaziko dugula.

Arabako txapelduna. Gasteiz, 2017-04-01. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



ANDOAIN

(2 0 1 7 - 0 6 - 2 4)

Bertsolariak: S. Lizaso, M. Arzallus, A. Arzallus, A. Mendiluze, U. Alberdi eta U. Iturriaga.

Gai emalea: Ion Beloki.

San Juan jaietan Goiko plazan egindako jaialdia.

A. Mendiluze - A. Arzallus

[2017-06-24 Andoain Jaialdia \[Bertsoa\] / Amets Arzallus, Aitor Mendiluze](#)

Gaia: Errauskailuaren aurkako gose greban zaudeten bi guraso zarete. Amets, ezin duzu gehiago; zu, Aitor, greban jarraitzeko prest zaude.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Hamaika aldiz daukazu lehendik A

A. Mendiluze Gose greba hau hasi genuen
taldean denok batera
eta orain ezin omen dezula
baina posible ote da?
Indar gehiago atera behar da
hori da geure aukera
konpromisotik ezin badezu
amorrutikan atera.

A. Arzallus Nik nahi nuena zan erraustegi horren gaia salatzea ez dugu lortu albistegiak hitz hauekin zabaltzea. Kontua ez da aurrera egin ta ahaztu guztiz atzea besteeri ez eragin eta neroni izurratzea.

A. Mendiluze Baina aurrera egin ezean gelditzen zera atzean ta aurreratu egin daiteke norbera izorratzean. Askori ez zaio mezurik heldu zeuk esan dezun antzean eta ez zaie inoiz helduko errepikatu ezean.

A. Arzallus Bai baina Aitor besterentzako da greba honen hizkuntza ez dut ulertzen guri inortxok ez ematea laguntza ez dira aldatzen ez PNV ez Diario Vasco, ez Kutxa gure borroka ezin da izan egoskorkeria hutsa.

A. Mendiluze Neuk ere hala pentsatu izan det zertan ari ote naizen? Zerbait lortuko al den horrela edo norantza goazen? Ta erabaki det norbaitek jarri behar dula bidea zuzen zalantzan dauden beste guztiak atzetik joan daitezen.

A. Arzallus Horrela luze segi ezkerro gelditu zintezke larri besteek baina ez dauzkate ez etika ez belarri ta kapitala proiektuakin aurreratu da izugarri horiek mugarik ez dute baina zure buruai zuk jarri.

A. Mendiluze

Bai baina ezin arituko naiz
neure baitara begira
ojala eurek geure moduan
kezkatu izan balira!
Erraustegia ordea bere
martxa egiten ari da
ta gu erreta agian nonbait
su txikiak pizten dira.

A. Arzallus

Su asko daude auzo batzarrak
edo Auzitegi Goren
nik horietan segituko dut
gose greba utzi ondoren
eta guztiei esango diet:
“Hara Aitor nola dagoen”
baina ahal bada utzi ezazu
guztiz erraustu baino lehen.

A. Mendilzue

[2017-06-24 Andoain Jaialdia \[Bertsoa\] / Uxue Alberdi, Maddalen Arzallus, Aitor Mendiluze](#)

Lehen puntua emanda

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

I. Beloki

Zer sentitzen da berriz
herrira itzulita?

A. Mendilzue

Dagoela lehen bezain
txukun ta polita
ni joatea mesede
jendeak daki ta
ez zen hala egongo
ni hemen ibilita.

I. Beloki

Hemen edo Iruran
non zaude hobeto?

A. Mendilzue

Egia gogorra da
hemen esateko
herririk herri nabil
bertsoa tarteko
inun ez naiz gelditzen
nunahi izateko.

I. Beloki

Semea ere jada
duzu bertsolari.

A. Mendilzue

Oraindikan ez baina
ez da gaizki ari
nik ez diot sekula
agindu berari
berak egin dezala
gustuko dun hori.

U. Alberdi

Lehen puntua emanda

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Orain hasi bihagu

I. Beloki

Estua al daukazu
udaran agenda?

U. Alberdi

Lehen aipatu dizut
zeregin zerrenda
saioak izatea
halere gomenda
bertsolarientzako
ona izaten da.

I. Beloki

Bertsolari, idazle
zer zera gehiago?

U. Alberdi

Galdera hau erantzuten
beti hain arraro
zereginak baditut
desberdin zeharo
bertsolariago naiz
bertsotan banago.

I. Beloki

Ari al zera berriz
zeozer idazten?

U. Alberdi

Bai lehen aipatu det
paperetan nahasten
uzta biltzeko aro
niretzat udazken
ea zuri erostea
ez zaizun ahazten.

M. Arzallus

Lehen puntua emanda

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Orioko balearena

I. Beloki

Izan al zinen inoiz
Andoainen kantari?

M. Arzallus

Nola behin egin nintzen
noizbait bertsolari
hemen ari izan naiz
ari eta ari
herria ezagutzen dut
ez al da nabari? (bis)

I. Beloki

Azkena Ametsekin
noiz kantatu zenun?

M. Arzallus

Egia esan hori
aspaldi ahaztu nun
han Baionan izan zen
ta bestela inun
eta ez zen atera
gainera txapeldun. (bis)

I. Beloki

Hartu al dezu aspaldi
eskutan gitarra?

M. Arzallus

Egia esan ez dut
hori lagun txarra
eta gitarra jotzen
naizenez azkarra
gaur gauean badaukat
kantatu beharra. (bis)

Nafarroako finala. Iruñea, 2017-04-08. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



S. Lizaso - M. Arzallus - A. Arzallus – A. Mendiluze - U. Alberdi - U. Iturriaga.

[2017-06-24 Andoain Jaialdia \[Bertsoa\] / Uxue Alberdi, Maddalen Arzallus, Aitor Mendiluze](#)

Gaia: Sebastianek plaza honetan hogeita lau orduz irekita dagoen denda bat dauka. Gaur hemen bazkari herrikoia izan da eta eguzkiak gogor jotzen zuenez, zuek eguzkitatik babesteko zerbait erostera joan zarete Sebastianen dendara.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

U. Iturriaga Plazara heldu euzki galdatan
hau da beroa ostia!
Horrela ezin dut nik aguantatu
eguerdi parte guztia
kremaren bila ez nator nahiz ta
gogorra dan eguzkia
elurran kontra ere balio du
ta emaidazu whiskia.

S. Lizaso Bejondaizula! Beroak sortu
holako estuasuna
eta whiskian botila osoa
zuk eraman nahi dezuna
proposamena nere ustetan
ez da eskas ta lizuna
barruko suak kenduko dizu
kanpoko berotasuna.

U. Alberdi Sonbrilatxo bat erosi nahi nun
baina a ze ezusteko!
Dendara sartu ta aurkitu ditut
denak garesti antzeko
ta esan diot "Zatoz nerekin
jarri nere aldameneko.
Ipini hortxe, ez honuntzago
bale horrela perfekto!".

S. Lizaso Bere ustetan ni engainatzen
Uxue gogotik ari
hau egoista xamarra dela
ez ote zaio nabari?
Zer esango ta "Babesle gisa
hi ondoan jarri hadi".
Itzala ez diot bati ematen
baizik herri guztiari.

A. Mendiluze Ba nik ere hori nahi nuen eta orain ze gaizki gauden gu eguzkipean ezin bazkalduz badegu nahiko ernegu baina trasterik ez det hartuko negozioak eredu denda erosi behar dizut eta bertan bazkalduko degu.

S. Lizaso Oso mingarri zen neretzako lehen iledunak esana nunbait beronek erosi nahi du beretzako denda dana. Hemen lanean jarraitzeko dut gogoa eta afana ta nortasuna ohi degu beti diruz erosten ez dana.

A. Arzallus Crema pote bat bukatuta ere oraindik crema premian sonbrilak baino zabalagoko kopeta det agerian. Ez daukat bate erremeiorik Andoaineko ferian aizu Sebastian ba al daukazu etxeren bat Siberian?

S. Lizaso Ez dut etxerik nik Siberian etxe txiki bat gertuko hala're Amets konponbidea zuri dizut agertuko: eguzkiaren berotasunak gaurkoz ez zaitu lehertuko hain zaude argal jende artean hark ez zaitu bilatuko.

M. Arzallus Herri bazkari hortan gelditu naizelako erdi lotan eguzki printzek ondo jo naute kopetan eta kokotan nahiz ta usnaka ibili naizen zer daukazun denda hortan berriro ere kalitatezko ezer ez dago txinotan.

S. Lizaso

Gauzak kontatuz dotore zuk zeuk
eman diozu hasera
aitortu dezu egon zerala
erdi lotian antzera
begira egonda ezin iritsi
gauza onik aurkitzera
agian gauza aldatuko da
esna etortzen bazera.

Gipuzkoako Herriarteko finala. Azpeitia, 2017-05-27. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



Euskal Herriko eskolartekoa. Sara, 2017-06-10. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

LEIOA

(2 0 1 7 - 0 6 - 2 5)

Bertsolariak: S. Colina, K. Diaz, I. Elortza eta O. Iguaran.

Gai emalea: Beñat Vidal.

Ikeabarri plazan, herriko jaietan, elkartu ziren bertso saiorako.

I. Elortza - S. Colina

[2017-06-25 Leioa Jaialdia \[Bertsoa\] / Sustrai Colina, Igor Elortza](#)

Gaia: Jon Maiak bere generazioari buruzko liburua idatzi du: Jaio ginen berriak Zu zara belaunaldi horretakoa, Igor, eta zu beste batekoa, Sustrai. Nola bereziten dira generazioak? Belau-naldien arteko gerra dago? Pikerik ba aldago zuen artean?

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: Antton eta Maria I

I. Elortza

Jadanik ahaztu zaizkit
doinu eta kantu (*)
gu ere nonbait gara
ordutik aldatu
ideak genituen
bertsotan urratu
zuen maila ez da egon
Sustrai horren altu
ez berririk egin, ez
zaharrik mejoratu. (bis)

- S. Colina** Igor gehitxo askatu
duzu gerrikoa
gurea ez ote da
zuen neurrikoa?
Umildade gutxi ta
maila handikoa
ez al zaizu gustatzen
molde berrikoa?
Txapelduna da gure
belaunaldikoa. (bis)
- I. Elortza** Juxtu uste nuena
hasi da kantatzen
hauen dejeak erraz
dira detektatzen
gure belaunaldia
da euren almazen
orain hor dabil Amets
plazetan gozatzen
baina bere aurretik
Maialen izan zen. (bis)
- S. Colina** Nik txapelekin ez dut
hartu ohi atsegin
nahiz denek hortarako
egin bi ahalegin
gu kantuan gabiltza
jende askorekin
plaza eta frontoietan
gaztetxetan berdin
baina guri ez digute
libururik egin. (bis)
- I. Elortza** Ez dituzu merezi
noski liburuak
zer kontatu gehiago
badauka munduak
ez zaudete ta Sustrai
horren apainduak
zer ote du bada zuen
kantuko buruak?
Zortzigarren eskuko
rimak ta doinuak. (bis)

S. Colina Zuen estiloa ta
zuen begirada
lehengo belarritako
gaurko alkondara
eskerrak noizbait irten
zineten plazara
baina batailak eman
beharra argitara
Igor gainbehera baten
lehen seinalea da. (bis)

I. Elortza Beraz liburua da
laister eskasteko
geroa daukagula
itxura tristeko
hain tontoa naizenik
ez zendun usteko?
Sustrai gogoa neukan
neronek hasteko
baina Joni esan nion
berak idazteko. (bis)

S. Colina Erakutsi nahiean
duzuen nibela
ahotikan atera
zaizue gibela.
Jon Maiak idatzita
edo zuk bestela
historiak oroituko
zaituzte horrela
Egañaren semeak
izan zinetela. (bis)

I. Elortza Batek daki geroak
ze esan dezakeen!
Zuek ere nahikoa
lan baietz han aurten!
Hor ibiltzen zarete
“ditzaket”, “nintzakeen”
errima ta sintaxi
perfekzio baten
baina ez diguzue
ezertxo esaten. (bis)

S. Colina Zezen zauritu bat da
lehen Mihura brabo
nunbait entzierrorik
ez du nahi igaro.
Igor segiko dugu
tranpaldoz tranpaldo
zuek segi esaten
gero gehiago
baina aurtengo txapela
esleituta dago. (bis)

I. Elortza Omendu gura nuke
nik nire laguna
liburua egiten
gastau duna luma
eta hitz jokoetan
horren buruduna.
“Esleitu” bota duzu
ta hor erantzuna
Jonen liburua da
ez leitu duzuna. (bis)

S. Colina

Lehen puntua emanda

[2017-06-25 Leioa Jaialdia \[Bertsoa\] / Sustrai Colina](#)

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

B. Vidal

Gaur egun modan ote
da bertsolaritza?

S. Colina

Moda kontuan neurtzen
al duzu bizitza?
Gu behintzat ezpainetan
doinua ta hitza
plazaz plaza bastante
gustora gabiltza.

B. Vidal

Lau urteren ostean
aurten txapelketa

S. Colina

eta agian berriz
beteko da BECa
baina guretzat nahiz ta
ez den berriketa
ni gehiago pozten naiz
plaza hau beteta.

B. Vidal

Finalista gazteena
izan zinen behin zu.

S. Colina

Zahartu naizela eman
didazu abisu
ispiluan aurrean
ni`re ez nago itsu
baina beti ezin da
jarraitu berdintsu.

B. Vidal

Ta BECeko oholtzan
txapeldun bazina

S. Colina

neretzako litzake
une atsegina
nahiz ta egin nahi nukeen
nere ahalegina
han guztiok daukate
intentzio berdina.

B. Vidal

Txapelik gabe ere
maiteko zaitugu.

S. Colina

Jakin zazu horretaz
nengola seguru
txapelik gabe ibili
leike munduz mundu
lehen ere holako asko
egin baititugu.

LASARTE-ORIA

(2017-06-29)

Bertsolariak A. Egaña, B. Gaztelumendi, A. Labaka, M. Lujanbio, U. Muñoa eta J. Soto.

Gai emalea: Uxue Loinaz.

Urtero egiten da jaietan bertso saioa Lasarte-Orian, eta, bertan urte askotan aritu da kantuan Patxi Etxeberria. Aurten, plazak utziko dituela eta, omenaldia egin nahi izan diote laster 87 urte beteko dituen bertsolariari. Manuel Lekuona Kultur Etxean bertsozaleen berotasuna jaso zuen agurreko saio honetan. Bertso eskolako hurrek ere eskaini zizkioten bertsoak.

P. Etxeberria

[2017-06-29 Lasarte-Oria Jaialdia \[Bertsoa\] / Patxi Etxeberria](#)

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

P. Etxeberria Ni jaso dudan harrera eder hau
esanda ezin da sinistu
harrera honek lasaitu egin nau
orain ez nago hain estu.
Nahiz eta hemen zuen aurrean
xutik nagon nahiko juxtu
orain bihotzak lehenago bezain
danbada sarririk ez du
eta gaur nere zaku txiki hau
hementxe nahi nuke hustu. (bis)

Iraganeko kontu batzuek
orain aipatu ditzagun
beti ondoan izan zaituztet
nere bidaiako lagun
han eta hemen biltzen ginan ta
elkar ulertutzen gendun
nere bertsoak txalotzen zuek
jardun zerate gau ta egun
zuek hor egon ez bazinaten
bakarrik zer egingo nun? (bis)

Sei bertsolari goi mailakoak
hara hor nere atzean
Unai Muñoa eta Julio
hor eskubiko ertzean
Ane Labaka eta Egaña
biak serio antzean
Beñat hor dago, Soto ere bai
denak hain sasoi latzean
bertsotan hoiek egingo dute
aitona isildutzean. (bis)

Orain berrogeita hemezortzi urte
herriz herri hasi nintzan
baina ni hasi aurretik ere
beste batzuk bazebiltzan
ta geroago hasi ziranak
hor goian nola dabiltzan
gaur azkenengo saioa dut hau
nik herri bertsolaritzan.
Eskerrik asko musu bana ta
agur eta ondo izan! (bis)

GETXO

(2 0 1 7 - 0 7 - 0 5)

Bertsolariak: A. Arzallus, A. Egaña, On. Enbeita, B. Gaztelumendi, M. Lujanbio eta J. Uria.

Gai emalea: Miren Loizaga.

Algortako Bihotz Alai plazan beste urte batez “Jaialdi Mundiala”ren zita. Oraingoan hautatutako gaia “Lanak” izan zen eta horren inguruan proposatu zizkien gaiak eta ariketak Miren Loizagak. Mozorrotuta abestu zuten, ohiko ez diren kokapen eta moduetan... Bukaera aldera bertsolariak haserre zeudelako itxura egin eta kamerinoetara alde egin zuten. Bertatik egin zuten puntutako saioa eta plaza betetzen zuten 900 lagunek pantaila baten bidez ikusi ahal izan zuten.

M. Lujanbio

[2017-07-05 Getxo Jaialdia \[Bertsoa\] / Maialen Lujanbio](#)

Gaia: “Lanak libre egiten gaitu” dio esaldi indartsu batek. Zuri zer iradokitzen dizu horrek?

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: Haizea dator ifarraldetik

M. Lujanbio Zenbat izerdi egiten duzun
soldata da hainbateko
soldata zenbat kobratzen duzun
zu zera bezainbateko
lan nahian edo eta lanean
hemen dabil jende lepo
lan egin behar da bizitzeko
lan egin behar da jateko
lan egin behar da irauteko ta
besteei zer jan emateko
esaldi hori borobila da
nagusiek esateko.

Lana balitza neurritsu eta
gure bizitzen sostengu
lana balitza pixka bat egin
ta modu onez mantendu
baina ordu estrak sartu behar dira
bestela postutik kendu
hainbeste leku prekarioetan
ez da mila luzimendu.
Aste hontan ere Beduan ta Azpeitin
horra bi langile zendu
lanak libratzen duena baino
jende gehiago hiltzen du.

Baina osatu ere egiten gaitu
gu aukeran garenean
ez zaudenean enpresa edo
jefe txar baten menean
ondo bizi ta neurritz lan egin
da formula azkenean
ni neureakin pozikan nabil
ez harrotzeko planean
zeren pertsona gustora ere
ari liteke lanean
lantegi hori zapalkuntza ez
tratu juxtu bat denean.

J. Uria - B. Gaztelumendi

[2017-07-05 Getxo Jaialdia \[Bertsoa\] / Beñat Gaztelumendi, Jone Uria Albizuri](#)

Gaia: Irudi bat pantailan eta elementuak bertsolariek. Pantailan "Batuetan iruditzen zait munduko lanik gogorrena dudala" esaten dio hortzetako eskuila batek komuneko paperari. Jone hortzetako eskuila moduan mozorrotu dute eta Beñat komuneko paper gisa.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Dama gazte xarmant bat

J. Uria Nire lana zaila da
eta hortan bego
nahiz zuk ere baduzun
nahikoa jenero
halakoik topatzerik
ez zazu espero
Andoni hogeitau Ducados
erre eta gero. (bis)

- B.Gaztelumendi** Beraz hogei Ducados
hor dira elkartzen
usai hoberik ez da
nigana ekartzen.
Nahiz ahoko zuloan
zu zaituzten sartzen
neri menta usairik
ez didate jartzen. (bis)
- J. Uria** Egia da ta hori
duzu zure kalte
baina nik sufritzen dut
gainera bastante
nahiz menta usaina ez dudan
izaten aparte
batzuk komon zuloan
ere sartzen naute. (bis)
- B.Gaztelumendi** Nahiz ta sufritzen duzun
Jone holakotan
beti ez da iguala
ze komon zulotan.
Nabari da ez dezula
ikusi askotan
Algortako komonik
Saninaziotan. (bis)
- J. Uria** Hori ez dut ikusi
ta hala gelditu
baina oraindik badut
nahikoa meritu
askok indar betean
ohi naute mugitu
hortzak ezin al dira
poliki garbitu? (bis)
- B.Gaztelumendi** Odola ta zikina
akaso denean
hala ere txarrenak
igual txarrean
bertsolarien komunak
dira azkenean
txapelketa garaia
iristen denean. (bis)

J. Uria Bertsolariekin ere
nik hainbeste tratu
ta haiek ezin ditut
errez aguantatu
baina zure bidaia
txarra ez da barkatu:
etxean hasi eta
hondartzan bukatu. (bis)

B.Gaztelumendi Ez da ba atsegina
hondarra jatea
kolpera zabaldu da
pareko atea
dastatu nahi du komun
tronuko pakea
benga eman zaiguzu
intimitatea. (bis)

J. Uria Bakoitza aritzen gara
ahal dugun moldean
arreta jarri dugu
gaur bion aldean
ta nahiz ibili naizen
ni eginahalean
barkatu ezin naiz sartu
zure papelean. (bis)

B.Gaztelumendi Langile jendea da
hain satelitea
ta lan prekariotan
hau da elitea
ez dagona denari
gogor ekitea
Jone onena degu
greba egitea. (bis)

On. Enbeita – A. Egaña

[2017-07-05 Getxo Jaialdia \[Bertsoa\] / Andoni Egaña, Onintza Enbeita](#)

Gaia: Filosofia askotan gaueko ordu txikietan eta konfiantzazko lagun giroan egiten da. Zuek zerbeza bat hartuz (zerbeza baso bana ematen diete eskura) lanaren balioari buruz eztabaidan zabiltzate. Andonik lana emaitzaren arabera neurtu behar dela dio. Onintzak ahaleginaren arabera.

A. Egaña Biok tabernaz taberna sarri
ibiltzen gera pasian
eta ze kontu azaltzen diran
horrelako gau luzian.
Beti diozu “Ahalegintzen naiz
nere ahalegin guzian”
Hala’re lanak zer balio du
emaitzak lortu ezian?

On. Enbeita Ataraten dot zeure moduan
neure lanean kemena
dana gurean ibili arren
sarri emoten dot pena
nahiz eta beti ezin dan lortu
emaitzarik handiena
satisfakzino pertsonala da
hemen balio dabena.

A. Egaña Barkatu baina goizeko ordu
hauetan trago eta ke
hain xuxen ere zuk arrazoi bat
eskeini didazu merke
aski degula ahalegintzea
aski gogo eta neke
berdina dio lehendakarian
prentsa arduradunak`e.

On. Enbeita Lehendakaria bera egoten da
beti emaitzen menpeko
baina besteok lan egin behar
bizi ahal izateko
zeozer txarto urten ezkerro
igual bihar da hobeto
holan motibo bat daukat beti
neure ohetik urteteko.

A. Egaña

Nik ahalegina soilik ez dut nahi
eta ez zaite harritu
gaur irudiak hainbat ertz eta
hainbat inportantzi ditu
nere irudi arduraduna
aritu zen bai aritu
hark`e ahalegina egin zun baina
ez zion asko luzitu.

On. Enbeita

Ehuneko ehuna luzidu guran
besteei itxi orduko
emaitzen bila ibiltzen zara
herriz herri puntoz punto
beti emaitzak, beti emaitzak
inoz ez zara asetuko
lau txapel euko baneuz bertsotan
be ja ez neuke jarraituko.

A. Egaña

Alde hortatik ez det pentsatzen
Onintza zure antzeko
ahaleginean ari naiz baina
emaitza batzuk lortzeko
plazarik plaza nekatu ohi naiz
askotan geratu seko
ni entrenatzen ari naiz berriz
txapelketa bueltatzeko.

On. Enbeita

Eta zertarako egon begira
emaitzarik gorenari?
Zeuk esan dezu egon gaitzean
egunerokoan adi.
Herririk herri seko amaitzen
dogu ez al da nabari?
Ta ze emaitza eskatu orduan
dana emoten dauanari?

IRUÑEA

(2 0 1 7 - 0 7 - 0 8)

Bertsolariak: U. Alberdi, A. Karrika, J. Maia eta J. Soto.

Gai emailea: Mainer Ansa.

San Ferminetako bertso saioa larunbatez egin zen, Sarasate pasealekuan. Saio erdian euria hasi zuen gogotik eta publikoaren zati bat oholtzara igo zen. Saioak han jarraitu zuen.

J. Maia

[2017-07-08 Iruñea Jaialdia \[Bertsoa\] / Jon Maia](#)

Gaia: Datu batzuk emango dizkizut: Madril, poliziari harriak bota eta makilaz jo, hemezortzi hilabeteko kartzela zigorra. Badajoz, polizia bati ukabilkada bat jo eta hemeretzi hilabete. Caceres, polizi bat kristaleko botila batekin jo buruan, bi urteko kartzela zigorra... Altsasu.

Neurria: Hamabiko txikia

Doinua: Kantuz sortu naiz eta II

J. Maia

Eskertzen dizut hemen
jarri dezun gaia
adierazi dezadan
arrisku ezbaia.
Epaiketen aurretik
egin da epaia
nahiz gizarteak esan
jarraitzeko nahia
nahiz eta pakea nahi
ta giro lasaia
batzuk nahiago dute
aurreko garaia.

Denbora aurrerantza
dijoa ordea
nahiz bidean zapaldu
gure ohorea
zauri ta gorrotoa
nun dago gordea?
Honek eskatzen digu
esfortzu doblea
guk soilik esperantza
nahi dugu berdea
baina oraindik berdez
dator terrorea.

Oraindik izango da
majina bat kasu
oraindik nahiko gerra
nahiko ke eta su.
Iparra galde gabe
segi pausuz pausu
zure aurrean erronka
haundi bat daukazu
gure etorkizunaren
atea zara zu
ez erori tranpetan
aurrera Altsasu!

Bertso Eskolen Eguna. Segura, 2017-09-30. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



U. Alberdi – A. Karrika

[2017-07-08 Iruñea Jaialdia \[Bertsoa\] / Uxue Alberdi, Aimar Karrika](#)

Gaia: Ama-semeak zarete. Uxue, zure semetxoari hoge euro eman dizkiozu jaietan gatzeko. Umeak ez direla aski dio. Zuk, amak, demostratu nahi diozu eguna ederki pasa daitekeela hoge euroekin. Gaur elkarrekin atera zarete.

Neurria. Zortziko handia

Doinua: Manuel Narruk atzo esan dit C

- A. Karrika** Izozkitxo bat zazpi eurotan
erosi eta amesti
tira-pitxoan zortzi bat tiro
txanponak ez doaz ezti
gero globo bat hamar eurotan
nere ustetan garesti
ohartu zaite amatxo maite
hoge euro ez da aski.
- U. Alberdi** Tiro-pitxoian nola zabilta
zu hamabost urterekin?
Heldu zaidazu, tabernetara
etorri zaitez nerekin.
Nahiz ta tragoak garestiago
daudela askozek jakin
guk poteoa egiten gendun
bostehun pezetarekin.
- A. Karrika** Dena gezurra kontatu diot
baina ama moderna da ño!
Ta lehen kolpetik eramana nau
kolpez ni tabernaraino
moderna zara baina zaharra
ta ene zenbat desengaino!
Garaiak asko aldatu dira
zure garaitik honaino.
- U. Alberdi** Sanferminetan sobera daude
deskantsua ta jatea
ta onena da esnatu orduko
jende artera joatea
diru gutxikin disfrutatzeke
trikimailua, maitea
sekretua da poliki edan
ta asko hitz egitea..

A. Karrika Baina gehiegi hitz egin dugu
biok etxean lehenago
lagun artean izan ninteke
amatxo festaren mago
baina aspergarri da edatea
zurekin hiru lau trago
amatxorekin irtetea baino
tristeagorik ez dago.

U. Alberdi Itxura danez sentitu zara
nere ondoan arraro
eta ni berriz sentiarazi
zaharra baino karrozago
baina halere ordaindu ditut
hamarretik zortzi trago
amatxorekin irtetea baino
merkeagorik ez dago.

A. Karrika Merkea da bai baina beztua
dabilkit ene kopeta
hartu hogeituro ta tonbolara
joan gaitezen puñeta!
Minimotua nahi nuke nik
ta bestela bizikleta
zuk etxeraino iristeko`re
ordua baduzu eta!

U. Alberdi Minimotoek eta globoek
jartzen zaituzte topera
ta amak berriz goizalderarte
nahiko lukeela atera
adoleszentzi betean sartu
eta umetu ostera
bihar goizean joango gera
erraldoiak ikustera.

ALEGIA

(2 0 1 7 - 0 7 - 1 4)

Bertsolariak: A. Arzallus, U. Iturriaga, M. Lujanbio eta M. Artola.

Gai emalea: Felix Irazustabarrena.

Urtero antolatzen da jaietan, Karmenetan, bertso saioa. Aurtengoa Elizpe zineman egin zen. Ehun eta berrogeita hamar lagunek ia bete zuten aretoan giroa berotzen asmatu zuten bertsolariek

U. Iturriaga – M. Artola

[2017-07-14 Alegia Jaialdia \[Bertsoa\] / Mikel Artola, Unai Iturriaga](#)

Gaia: Gaiak prestatzerakoan norbaitek esan zuen “Kataluniaz jarri behar diagu zeozer”. Eta nola jarri bueltaka ari ginela, Euskal Herriaz gutxiago galdetzen ote dugun eta Katalunian babesten ote garen pentsatzen hasi gara. Edo itxaropena pizten digunaz hitz egin eta kantatzen dugula aspaldian. Edo zeresanik ez dugula gureaz. Edo... edo zer?

Neurria. Zortziko handia

Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I

U. Iturriaga

Kataluniara jaurti duzu zuk
hor lehenengo begirada
galdetzen duzu haruntz begira
hipnotizau garen jada.
Urriaren bata daukate han
eta ez hain justu Diada
gu San Migelen biharamuna
pasatzen egongo gara.

M. Artola Han ta hemen ere egoera sarri
izan da horren bortitza
geronek jarri nahiagatikan
geure bidean baldintza
Ormaitztegiko zakurrarena
ein digute hor da giltza
lehen aurretik gindoazen ta
orain atzetik gabiltza.

U. Iturriaga Nonbait lehenago beraiek zeuden
gurekin liluraturik
ez dut ukatzen bai neuri ere
ai inbidia sortu dit
baina ikusten dut Euskal Herria
portuan ainguraturik
esan dezagun argi ta garbi:
ez dago herri proiekturik.

M. Artola Nahiz proiektua izan litekeen
gure herrian ukendu
lehengo historia izan liteke
behar degunan zimendu
gure hizkuntza ere sarritan
digute ezpainenetik kendu
nahiago nuke gauza batzutan
hangoen antza bagendu!

U. Iturriaga “Punto eus”a lortu dugula
ez daukagu “puntu cat”a
urteak dira han dabiltzala
ideia bati tiraka
ta hizkuntzari buruz zer esan ba?
Dugu problema galanta
hara begira ta bien bitarte
txantxangorriaren kaka!

M. Artola Txantxangorriak herri honetan
ez du nahi adina arkupe
bizi izanak gaude gaur arte
nahiko borroka ta sute.
Lehen esan dezu ta aizu Unai
hala pentsatu det neuk`e:
“punto eus”a ez, punto ta aparte
guk egin behar genuke

U. Iturriaga

Bai baina hankara lorturik hor
daukagu kriston harria
ez dakigu nork eta zergatik
baina aspaldi jarria.
Gertaera hau edo bestea
urtemuga bat berria
ez ote gara ari bihurtzen
efemerideen herria?

M. Artola

Hortikan ere zerbait behar da
ez da alperrik igaro
oain katalanak joaten badira
Espainiatik harago
lehen geratzeko arrazoi asko
ez geneuzkelakoan nago
ta aurrerantzean izango degu
arrazoi bat gutxiago.

“Erradikalak gara”. Hernani, 2017-10 -04. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



MARKINA - XEMEIN

(2017-07-16)

Bertsolariak: M. Lujanbio, U. Agirre, N. Ibarzabal eta I. Elortza.

Gai emallea: Amaia Errasti.

Markina-Xemeingo Karmen jaietako jaialdia Uhagon parkean egin zen 19:30ean. Bertso eskolak eta udalak antolatutako saioak 400 lagun inguru bildu zituen

I. Elortza – N. Ibarzabal

[2017-07-16 Markina-Xemein Jaialdia \[Bertsoa\] / Igor Elortza, Nerea Ibarzabal](#)

Gaia: Nereak Bizkaikoan paper ona egin zuen. Orain, Igor, zuri proposatu dizu Txapelketa Nagusirako ea elkarrekin entrenatuko zareten.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Gure herriko bikariuak

I. Elortza

Bertsokide zeu gura zintuzket
ea ondo etortzen jatzun
zu beldur barik tentatu naizu
ta nik ahal badot erantzun
ze ondo dakit ze ahalmen eta
ze gogo be daukazun
zaharrak bajatzen hasita gagoz
ea zuk gogortzen nozun.

- N. Ibarzabal** Nahiko gai zaila izaten dogu sarri edadearena
zuk txapelketa ugari egin
ta eman izan dozu dena
ni han izango naiz zaldi txuri bat
umea ta gazteena
nola egingo dut nik nahi dudana
eta ez espero dena?
- I. Elortza** Ba galdera zeuk bota deustazu
ta nirea erantzuna:
zalantza hori da neure baitan
sarri askotan entzuna
zelan ein ez bestek nahi dabena
baizik urtetan jatzuna?
Onena dozu zeuk egitea
zeuk be espero ez dozuna.
- N. Ibarzabal** Baina besteek espero hori
bihurtu leike oztopo
nik finalean nahiz ta eman nuen
nahiko grazi nahiko joko
utzi beharko ditut beldurrak
eta txorradak geroko
ze bertso erdian barre egiteak
han ja ez dit balioko.
- I. Elortza** Behin akastxo bat ein zendula ta
hori ete da ba problema?
Ume araoan berdin jardun zan
zure ondoan dagoena.
Hori bai ondo bota egizu
goitik behera bertso dena
bertso erdian eta barrutik
barre eitea da onena.
- N. Ibarzabal** Ba egia da agian kasu
egingo dizut nik hara!
Ta sarri-sarri entrenamentuz
biok gogortuko gara
sorpresaren bat jasoko duzu
Igor gero beharbada
zer pasako da ni finalean
ta zu heltzen ez bazara?

I. Elortza Afirmazino bat gendun kasik
nahiz ta agertu zalantza
seguru lora eingo jatala
hasierako arantza.
Zuk badakizu Iturriaga
ez dala joango antza
ni zahartu naz orain zeu zara
Bizkaiaren esperantza.

N. Ibarzabal Bueno ba joan beharko gara
Bizkaia eta Markina
bizkaitarrontzat bihurtu dadin
maila bikaina ta fina
baina ez eidazu bota albotik
sekula Igor mitina
nahiago nuke nik neuk sinestu
zuk eiten dozun adina.

U. Agirre

[2017-07-16 Markina-Xemein Jaialdia \[Bertsoa\] / Unai Agirre Goia](#)

Gaia: Puntu bana jarriko dizkizute zure bertsokideek. Baina zortziko txikian, hamarreko txikian eta habaneran.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

M. Lujanbio

Bizkaiko entzulea
fina eta ona

U. Agirre

Maialenek jarri du
hain puntu sakona
askotan ni Markinan
ez bainaiz egona
primerakoa degu
aurrean dagona.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: Antton eta Maria I

I. Elortza

Orain esan benetan
pentsetan dozuna

U. Agirre

ahal dan moduan egin
ohi degu jarduna
entzulea hemen da
fina ta txukuna
egi batzuek esan
behar ditut hurruna
ta pentsatu dezala
bakoitzak nahi duna. (bis)

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: Baserrian jaio nintzen

N. Ibarzabal

Ta zertan pentsatzen duzu
saioa amaitu ta gero?

U. Agirre

Esplikatuko nizuke
nik zazpi puntutan edo:
batzutan bukatzen degu
umoretsu eta bero
beste batzuetan berriz
bada hamaika endredo
nola tokatzen zaizkigun
hainbat ta hainbat jenero
zerorrek`e probatua
dezu hori honezkero.
Gaur giro ederra dago
gero ere hala bego.

ELIZONDO

(2 0 1 7 - 0 7 - 2 5)

Bertsolariak: A. Martin, J. Soto, A. Arzallus eta On. Enbeita.

Gai emalea: Fernando Anbustegi.

Baztango bertso eskolak antolatzen du jaialdia Elizondoko herriko festetan, Santiotan. Laurehun lagunek bete zuten Plaza Berria.

A. Martin – J- Soto

[2017-07-25 Elizondo Jaialdia \[Bertsoa\] / Alaia Martin, Julio Soto .](#)

Gaia: Julio, Alaiaren seme nerabea zara. Gaur parrandara atera da eta hitzordutakoan, goizeko lauretan, Alaia, ama, joan zara autoan bere bila. Buelakoan alkoholemian geratu eta positibo eman duzu Alaia.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: Zer da gaur Donostian

A. Martin Nonbait hondatu samar
nekarren brujula
orientazioa du
nahikoa ahula.
Ez zitzaidan pasatu
hau seme sekula
esperantza bat daukat
ta hura mardula:
biharko dena ahaztuta
izango duzula. (bis)

J. Soto Bai baina hau ahazteak
problema lekarke
ze goizeko laueta
bideetan parte
guardia zibila ez da
egoten aparte
zeozergatik nion
gogoa bitarte
utzi behar zenidala
sei t`erdiak arte. (bis)

A. Martin Hemen ze lotsa klase
ze eskaparate!
Urrun etxeko portal
ta atariko ate
nonbait alkoholak niri
egiten dit kalte
desioa betetzen
zabiltza jo ta ke
hemen egongo zara
sei t`erdiak arte. (bis)

J. Soto Ama zuk beti zaintzen
dituzu itxurak
ta ongi eramaten
amaren ardurak
baino a ze sorpresa
dakarkigun udak!
Hargatik sortu zaizkit
barrenean dudak
alkoholik ba ote daukan
gure etxeko urak. (bis)

A. Martin Bai ta etxeko aireak
hainbeste tabako
isuri izan du sarri
leihotatik kanpo
hemen dena tristura
argi ta asfalto
kargua hartzen hola
ez zu hasi guapo!
Zero nobenta ez da
horrenbesterako. (bis)

- J. Soto** Beraz irentsi duzu
trago bastantea
ta orain guardia zibil
horrekin kaltea.
Hamasei urte ditut
amatxo maitea
baino arduratsua naiz
ta ohar zaitea
nahi al duzu autoa
nik eramatea? (bis)
- A. Martin** Zure postura joan
da lau hanketara
aitai deitzea hobe
dugu beharbada.
Kentzen dizut baimena
kentzen dizut paga
zuregatik etorri
nahiz eta bertara
karneta kendu izana
zure errua da. (bis)
- J. Soto** Zuk txintxo nahi ninduzun
etxera igorri
ta orain bide ertzean
taxi batek korri
ta hara bere barruan
nere lagun hor bi
lotsatuta utzi nauzu
bi masailak gorri
nere bila ez zaite
gehiago etorri. (bis)
- A. Martin** Pixka bat harrotuta
zaude zu txikito
zentzudun ez zabilta
adinan neurriko.
“Gehiago ez etorri”
esan duzu tinko
zigorrak irauten du
urte bat ta piko
bolada baten behintzat
ez naiz etorriko. (bis)
- J. Soto** Kalabozoan egin
behar duzu fandango
han lotuko zaituzte
beso eta zango
ta nola gaur zaituzten
hara eramango
eta nik ere egin
dudan trago frango
badaezpada ez dizut
muxurik emango. (bis)

G O R L I Z

(2 0 1 7 - 0 7 - 2 6)

Bertsolariak: J. Maia, J. Soto, O. Barroso eta P. Loizaga.

Gai emailea: Maite Berriozabal.

Herriko festetan, Elizako plazan iluntzeko zortzietan egindako jaialdia. Oso plazako eta festa giroko saioa izan zen.

J. Maia - O. Barroso

[2017-07-26 Gorliz Jaialdia \[Bertsoa\] / Odei Barroso, Jon Maia](#)

Gaia: Aita eta semea zarete. Urteak aurrera eta aitak ibiltzeko gero eta traketsaGO dagoela eta, medikuak makulua behar duela esan zion aspaldi. Semeak behin eta berriz esan dio makuluarekin ateratzeko. Gaur onartu du aitak eta irten dira. Baina makulua eskuan, ez du lurrean kolpatu ere egiten.

Neurria. Zortziko txikia

Doinua: Orioko balearena

J. Maia

Ze nolako *pelmada*
eman didazun zuk!
Makulua hartu dut
isiltzearen truk
hezurrak gogor ditut
ezin egonik zut
baina burua askoz
gogorragoa dut. (bis)

O. Barroso Pentsa nik zenbat kezka
dudan barrenean
pasioan aita dut
nere aldamenean
makulu gabe ibili
nahi duzun heinean
baina ez apoiau nere
sorbalda gainean. (bis)

J. Maia Zuzen saiatzen nabil
nahi badezu jakin
baina dena da malda
ta aldapa erpin
ez naiz lurrera iristen
nahiz ekin ta ekin
txinotatik ekarri
didazun onekin. (bis)

O. Barroso Txinoen makulu hau
ttipia, tristea
medikuak emanik
bere albiste
gizon handia zara
ta ez da txistea
laster kostako zaizu
lurrera iristea. (bis)

J. Maia Han ikurrinak ere
aldrebesak *jode!*
Berdea gorria da
ta gorria berde
plastikozko bastoi bat
ta akuilu gabe
garai bateko hurritz
makilak non daude? (bis)

O. Barroso Urritz makilik ez da
eta egin kasu
bidean aurrera zoaz
nola zabilzan zu!
Laster zure semeak
hartu behar badu su
geroz ta aitonan antza
gehiago daukazu. (bis)

J. Maia Bukatu behar degu
azkenik haserrez
aitondu egin bainaiz
urteen indarrez
ta eskatu nahi dizut
gogor, ez mesedez
aulki elektriko bat
ekarri edo ezer ez. (bis)

O. Barroso Ez dakit hezurretan
ote duzun mina
bakarrik emanen dut
buelta atsegina.
Egon zaitetz jarrita
tarte bat jakina
hor daukazu banku bat
hurritzez egina. (bis)

VILLABONA

(2 0 1 7 - 0 7 - 3 0)

Bertsolariak: O. Iguaran, M. Lujanbio, A. Arzallus, U. Mendizabal, B. Gaztelumendi eta A. Egaña.

Gai emalea: Amaia Agirre.

Santio jaietan Oinkari Dantza Taldeak antolatutako jaialdia. Zubimusu ikastolako arkupeetan egin zen.

O. Iguaran - M. Lujanbio - A. Arzallus - U. Mendizabal - B. Gaztelumendi - A. Egaña

[2017-07-30 Villabona Jaialdia \[Bertsoa\] / Amets Arzallus, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Unai Mendizabal](#)

Gaia: Maialen, sendabide alternatiboekin lan egiten duzu. Beste bost lagun hauek sartu zaizkizu kontsultara, bakoitza bere adikzioarekin.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Eguna pasa nekean eta

O. Iguaran Uda hasi da ta festarako
dago aukera aparta
gauero hemen kaña, zurito
hautsi behar nuen marka.
Ai gaizki nago eta zugana
nator oraintxe presaka
parrandarena, adikto, ondo
kendu zaidazu resaka. (bis)

- M. Lujanbio** Oraingo jende gazteak dauka memoria gogortuta
nola ez dakizu erremeiua
ez zinen atzo sortu ta?
Jakituria herrikoi batek
erremeiua lortuta
biharamuneko ajea kendu
berriz ere mozkortuta. (bis)
- A. Arzallus** Hogeita hamahiru urte dauzkat ta
maiz dentistaren kontsultan
beti txupatxus ta gominolak
dauzkat nere esku puntuan
nik ez dakit ze adinera arte
gaitza hau izango dutan
lehenago ere umearekin
ia hasi naiz burrukan. (bis)
- M. Lujanbio** Gauz guzitako erremeiorik
ere ez da izaten tira!
Umea dala ailegatu da
hogeita hamahiru t`erdira
hori Peter Pan sindromea da
hitz teknikoa hori da
batzuk ederki zahartuta ere
umeak izaten dira. (bis)
- A. Egaña** Erretzaile naiz, utzi nahi nuen
ez nuen sinesten baina
esan zidaten akupunturak
emango zidala kaña
lagunek burlaz deitzen didate
“Espumadera Egaña”
orain orratzei beldurra diet
ta erre nahia lehen aina. (bis)
- M. Lujanbio** Ehuneko larogeita hemeretzi
sendatu izan det gaurdaino
ehuneko bata salbuespena da
curriculumean laino
zurekin zerbait egin dezaket
eta jarri aski *empeño*
zu berpiztea errezago da
tabakoa uztea baino. (bis)

B. Gaztelumendi Ni gautxoria izan nintzen lehen
baina bastante aspaldi
gaur parrandarik ez det egiten
ez tabako ez edari
jan ere ahal dela beti garbitik
ez gatz eta ez haragi
adikzioa hartzen ari naiz
adikziorik ezari. (bis)

M. Lujanbio Mixoan zopa gosaltzeko ta
alga batzuekin klaro!
Gero arroza egosi duna
ia bi egun lehenago
ekologiko dilistak eta
infusioari trago.
Horrela asko biziko zera
eta aspertu gehiago. (bis)

U. Mendizabal Aduna ibarren letxuga, porru
ardi, behor ta zezena
baserritarra ta pijoa naiz
hori gauza nabarmena
Cacharel, Dior, Massimo Dutti
eta Calvin Klein hurrena
koloniatan gastatutzen det
irabazten deten dena. (bis)

M. Lujanbio Ta kolonia gauz txarra izan
diruan balantzerako
hala ere ez du ezer behar
segi zazu antzerako
ximaur usaia oraindik ere
nabaritzen zaizulako
bai, zein zetorren konturatu naiz
zu kontsultan sartzerako. (bis)

GETXO

(2017-07-31)

Bertsolariak: J. Maia, I. Elortza, A. Mendiluze eta X. Galletebeitia

Gai emalea: Jone Uria.

Algortako Bertsolari Eskolak (ALBEk) beste saio askoren artean bertso maratoia antolatzen du San Inazio egunean. Bertso saioa, bazkaria, poteoa... eta ondoren Igor Elortza eta Jon Maia geratu ziren maratoian. Aurretik, ordea, Jone Uriak jarri zizkien gaiak.

J. Maia – X. Galletebeitia – I. Elortza – A. Mendiluze

[2017-07-31 Getxo Jaialdia \[Bertsoa\] / Igor Elortza, Xabat Galletebeitia, Jon Maia, Aitor Mendiluze](#)

Gaia: Ospakizun garaia izaten da herriko jaietakoa eta baita aldarrikapenetakoa ere. Lehen bueltan esan zer dugun ospatzeko, eta bigarrenean zer nahi zenuketen aldarrikatu.

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz

Doinua: Sorlekua utziz gero

J. Maia

Egunero pentsatuaz
ze suerte ona daukagun
goizean jeiki ta lan bat
ta kalean zenbat lagun...
Gure bidea ez da luzea
bukatzen dela demagun
txarra bakarrik etorri ohi da
ona bilatu dezagun.

I. Elortza

Jaia beti izaten da
lanan arteko zubia
urte osoak denentzat
dauka mina ta zauria
egun bakoitza ospatu behar da
bizitza baita haundia
gaur adibidez hoixe dago ta
ospa dezagun euria.

X. Galletebeita

Afaritan hasten dena
bilakatzen da gosari
gauetan parrandan asko
ibiltzen dira ehiztari
juerga norberak aukeratzen du
norberarentzat da sari
aurpegi ona ipini behar
eguraldi eskasari.

A. Mendiluze

Berez baitator ezina
tamala eta goibela
ta ez badator seguru
inork sortuko duela.
Beraz uste det animo guztiz
ospatu egin behar dela
denak arren ta denen gainetik
gaudela eta garela.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Zazpi ahizparen gai den oihala

J. Maia

Inkonformismo pixka't behar da
festa giroko haizean
ta gogoratu guk festan baina
nor dagoen oinazean
eta helmugak garbi ezarri
bidearen odisean
gauzak ez dira inoiz iristen
aldarrikatu ezean.

I. Elortza

Aldarrikatu berdintasuna
ta presoan amnistia
eta nola ez ezetza beti
ezetza dela ostia!
Jai herrikoiak ta aldarrikatzen
hasi ezkerro guztia
gaur adibidez euria denez
eskatzen dut eguzkia.

X. Galletebeita

Aldarrikatzeko festan bada
norberak nahi adina gai
eta kalera irten behar da
ez etxean geratu zai.
Nahiz eta ez nuen eslogan bat
plaza erdian atera nahi
festa gogotsu egin behar da
baina borroka ere bai.

A. Mendiluze

Aldarrikatu galdeketa bat
zer hori baino hobea?
aldarrikatu gorria eta
Aldarrikatu morea
aldarrikatu ostadarra ere
ez egotea gordea
aldarrikatu eta gozatu
norberaren kolorea.

ALTZO

(2 0 1 7 - 0 7 - 3 1)

Bertsolariak: U. Agirre, A. Arzallus, A. Egaña, M. Lujanbio, A. Martin eta A. M. Peñagarikano.

Gai emailea: Manuel Olano.

Urteroko saioa da Altzoko Saninazio jaietako bertso jaialdia. Aurten ere herriko frontoian, laurehun lagun bildu ziren 22:30ak inguruan.

M. Lujanbio - U. Agirre – A. Arzallus

[2017-07-31 Altzo Jaialdia \[Bertsoa\] / Unai Agirre Goia, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio](#)

Gaia: Unai Agirre eta Amets Arzallus elkarren ondoan dauden bi pago lerdan dira. Baina elkarri kalte egiten diote, gertuegi daudelako. Maialen Lujanbio basozaina da eta bietako zein moz-tuko duen erabaki behar du. Bietako bat markatu behar du.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Igaran egun batez

M. Lujanbio Baso honek jartzen nau
nahiko trantze estun
nola erabakiak
bueltarikan ez dun
biak pago lerdan ta
mami aberastun
biak`e badauzkate
hamaika eraztun!

A. Arzallus Bitako bati bota
behar begirada
gertuegi egotea
nunbait hori traba
biak berdinak ginan
hala beharbada
ta nik ze kulpa daukat
hau zabaldu bada?

U. Agirre Basozainak egin du
tokatzen zan zita
ia egunero egin
baitigu bisita.
Hau markatu ezazu
duda gabe ti-ta
haiziak botako du
bakarrik utzita.

M. Lujanbio Hori malgua da ta
badaukat zalantza
ta zu sendoa izan
nere esperantza!
Konpetentzi gorrean
hartu duten antza:
batek zabaletara
besteak gorantza.

A. Arzallus Zenbat su egingo da ba
nere egurrekin?
Gainera kulpak honek
dakartzki behinipin
ni gelditu naiz ihar
plako edo erkin
euzkik ez nun ikusten
honen itzalakin.

U. Agirre Nere alde egin zazu
arren apostua
hori izango baita
ona ta justua
pago hau ahula da
luze ta estua
gainera udan ere
galtzen du hostua.

M. Lujanbio Ilgora ta ilbera
berua ta hozkila
ia merezi duna
erori dedila.
Harekin egin leike
barkuaren killa
honekin pieza baten
mahai borobila.

A. Arzallus Baina justiziz hartu
daigun atajua
biontzat desgrazia
biontzat lujua
biok marka gaitzazu
basozain gajua!
Neri egin puntu bat
honi dibujua.

U. Agirre Bestian poza etortzen
da baten minari
marka zeni egingo dio
lodi edo finari?
Badakit nola orain
erabaki zeinari
ontuak non biltze'itun
galdetu Peñari.

M. Lujanbio Antzututa zaudete
onto ta espora
batek zabaletara
ta besteak gora.
Zimel hoi botatzeko
aski da aizkora
honekin motozerra
ere beharko da!

A. Arzallus Tira nik neuk behar det
ba sakrifikatu
ni naiz boluntario
neroni markatu
baina etorkizuna
nahi nuke kontatu
nere adaska txiki bat
Unairi txertatu.

U. Agirre Hortan egingo dute
beren ahalegina
eta sendatuko da
lagunaren mina
baina raro samarra
nengoke jakina
neu zabala izango naiz
ta adar bat fina.

A. Martin – A. Egaña – A. M. Peñagarikano

[2017-07-31 Altzo Jaialdia \[Bertsoa\] / Andoni Egaña, Alaia Martin, Anjel Mari Peñagarikano](#)

Gaia: Andoni Egañaren bi aurpegi dira Alaia eta Anjel Mari. Aurpegi ezkorra Peñagarikano eta baikorra Martin.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Loreak udan ihintza bezela I

- A. Martin** Goizero esnatu ta Andonik dio:
“Ze mundial ze ederki!
Ni izateak ze zorte puska
dugun baldin bazeneki!”
Saio aurretik botatzen ditu
hainbat gometxa, konfeti
bolanteari eutsi beharrean
txaloka etortzen da beti.
- A. M. Peñagarikano** Egia da bai jaialdietan
maiz hartzen dedala parte
ta aurten ere leku askota
ni eraman behar naute
bolantean ta beti txaloka
bai baina nik zenbat kalte:
“Aurten ere hemen al da Andoni?”
igual esango didate.
- A. Egaña** Nere buruan ez det izaten
beti horrenbeste fede
herri batzutan juzkatzen naute
peñazo eta xelebre.
Hala're oholtzak egin dit neri
makinatxo bat mesede
oholtza gainean joan egiten zait
hagineko mina ere.
- A. Martin** Ta *Berriako* artikulotan
idaztea ze nibela!
Ematen dio puntxa, glamourra
ta noski euskal labela
bukatzen du ta horizonterantz
begiratzen du horrela
uste du ia testurik testu
mundua aldatu duela.

- A. M. Peñagarikano** Artikulua nik idazten dut zer gertatzen da munduan eta gaur ere idatziko dut nik nere artikuluan eta bihar ere idatziko dut eguneroko moduan baina ez dakit artikulua hori inork irakurtzen duan.
- A. Egaña** Nere *Berriako* artikulua beti izan det begiko pentsatzen nuen “Honek ez al dik mundutxo bat irekiko?”. Baldin bat txarra irten ezkeron neronek hau diot tinko: “Total ez dio asko inporta ez dute irakurriko”.
- A. Martin** Kaladatxo bat hartzen du eta Euskal Herria marraztu ohi du airean ta hobekuntzak punturik puntu zehaztu hil arte erretzen segi nahi luke nahiz ta izan nahiko gastu gaur eguneko airea baino hobe da kea arnastu.
- A. M. Peñagarikano** Hemen aire hau ona da eta ni arnasten naiz hasiko bizio txar bat hartu nuen nik nere bizitza guziko erretzaileak gaur asko daude gaixorik eta tisiko susmoa daukat beste urtebete ez ote naizen biziko.
- A. Egaña** Makina batek esan izan dit “Egaña utzi beharko” ta hoietatik lurraren pean badira pertsona pranko politikoei ere nolabait hara pare bat zartako: errauskailu bat badegu lehen ta bigarrenkoa zertako?

**U. Agirre - M. Lujanbio – A. Arzallus -
A. M. Peñagarikano – A. Martin - A. Egaña**

2017-07-31 Altzo Jaialdia [Bertsoa] / Unai Agirre Goia, Amets Arzallus, Andoni Egaña,
Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Anjel Mari Peñagarikano

Gaia: Txapelketa Nagusia hasten da, eta hemengo batzuek parte hartzen dute. Anjel Mari jarriko dugu parte hartuko duten horien prestaketa lanetan. Zuek moldatu. Eta ondoren Andonik emango du entrenamenduaren iritzi kritikoa.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: Ai gure antzinako

**A. M.
Peñagarikano** Udazkena belaxe
txapelketa usaia (bis)
Ametsek ba omen dauka
txapeldunen gaia
ta Maialenek badu
irabazi nahia
baita ere Agirre
edo ta Alaia.
Zatozte! Prestatzeko
orain da garaia. (bis)

Puntuak erantzuten

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Mando baten gainean I

A. M. Peñagarikano

Faborito ez danantzat
puntu errezena.

A. Martin

Beraz lehenengo puntu
hortan lehen eztena
horra zuretzat nahiz ta
izan nabarmena
nik erabakiko dut
niretzat naizena.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Aranora joan ziran I

A. M. Peñagarikano

Agirre Goia hi're
ez haiz faborito

U. Agirre

hain garbi esatea
zaila hun txikito
horregatikan ez nauk
negarretan ito
faborito ez geranak
ez gaituk betiko.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: Antton eta Maria

A. M. Peñagarikano

Faborito batentzat
ez da puntu zailik

A. Arzallus

horrekin rimatzen du
soilik Juan Cruz Allik
nahiz eta beterik ez
ikusi harmailik
barkatu ez badaukat
Anjel Marin tallik
nik hala ere ez det
botako toallik. (bis)

Neurria: Zortzikoa, berdinareen moldekoa, 6 puntuz
Doinua: Esateko ez naiz lotsa

A. M. Peñagarikano

Apustu txapeldun ezetz!

M. Lujanbio

Esan du kopeta beltzez
ta Peñak ezetz esaten badu
halaxe da berez.
Isildu zaite mesedez
nik badet aski interes
saiatu behintzat egingo naiz ni
txapelketan zure partez. (bis)

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Markesaren alaba

A. M. Peñagarikano

Txapelduna ez zera
baina bai alaia

A. Martin

ta hori aipatzea
ez zen nire nahia
geratu zaizu oso
dotorre ta guaia
txiste hori aldatzeko
heldu da garaia.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: Ai gure antzinako

A. M. Peñagarikano

Aizak txapelketa ez dek
uso lapurtzea. (bis)

U. Agirre

Orain kontu horrekin
etorri al zea?
Txapelketa ez noa
postua galtzea
usoak gorabehera
hau gero trantzea!
Oena ez al dezu
saltsan prestatzea? (bis)

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz
Doinua: Betroiarena A

A. M. Peñagarikano

Bederatzi puntuan
ausartzen al zera?

A. Arzallus

Jarrita ezingo det
egin atzera
sarri estutzen nauzu
ni gaurko antzera
baina gaur probatzeko
daukagu aukera
nerekin batera
Peña ere atera
proba hau jartzera
Ametsen ertzera
doinua hau zan baina
zein zan galdera? (bis)

Neurria: Hamaseiko berina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: Baserrian jaio nintzan

A. M. Peñagarikano

Pankarrtak dio Maialen
zurekin dago *herrria?* (*)

M. Lujanbio

“Erre” ta guzti maite det
horrelako aldarria
jendeak ematen baitu
babes ikaragarria
ta ez dago zu bezela
burla gogotan jarria
saiatzea izaten da
bertsolarin oinarria
herrigintzari eman nahian
indarra ta ongarria.
Batzuk ez dira irteten
bistan da kakalarrria
hemen bakoitzak hartzen du
berak beraren neurria.

(*) *Errea* ahoskatzen du.



A. Egaña

Gaia: Ea bada zer iruditu zaion entrenamendua txapeldun honi, Egañari.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Eguna pasa nekean eta

A. Egaña

Beatzi puntun hor aritu haiz
tar-tar-tar jo eta fuego
bertsoa ondo tolestuaz
bueno, tolestatu edo
Amets higandik horrelakorik
ez nian asko espero
txapela "alli" geratuko zaik
galderak ahaztu ezker. (bis)

Alaia zure erantzun batzuk
latzak izan dira kasi
erantzun hola egin behar zaio
makina bat mandamasi
egia zapla bota diozu
ez zera joan ihesi
txiste zaharrana egia zan ta
besterik ez zun merezi. (bis)

Eta ai Unai subkontzienteak
beti hainbat martingala
burua pixka't bajatu dezu
Peñak goitik kalka ahala
txapelketako aholku on bat
entzun gaur behar bezala:
inori inon ez onartu zuk
faborito ez zerala. (bis)

Eta akatsak zoritxarrean
aipatzen dira gaur egun
zer ajola du "errea" izan
oso gogor, oso legun?
Ene Maialen zeu zinakete
behin betirako txapeldun
erantzunean "burrlaren" orde
iseka esan bazendun. (bis)

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: Ai gure antzinako

Herri hizkeran nor da
Unai baino hobea? (bis)
Ametsen etorria
jori, dotorea
Alaiak altxor latza
daduka gordea
Maialenen bertsoa
berria, morea...
Lauon akats bakarra
entrenadorea.(bis)

A I A

(2 0 1 7 - 0 8 - 0 7)

Bertsolariak: O. Iguaran, M. Lujanbio, S. Lizaso, A. Arzallus, I. Zubeldia eta A. Egaña.

Gai emalea: Anjel Mari Peñagarikano.

Herriko festetan ohiko saioa da Aiakoa. Oraingoan zortzirehun lagunek bete zuten probatokia.

I. Zubeldia - A. Egaña

[2017-08-07 Aia Jaialdia \[Bertsoa\] / Andoni Egaña, Iker Zubeldia](#)

*Gaia: Bi oriotar izango zarete, arraunlarien entrenatzaile eta trainerua osatu behar duzue-
nez, atzeko horiek ekarri ditu Andonik. Dena ona ikusten die honek hautagai horiei. Ikerrek, berriz
dena txarra. Ez ditu beren ontzirako aproposak ikusten.*

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Eguna pasa nekean eta

A. Egaña *(O. Iguarani buruz)*
Hara Oihana neska mardula
baina ez dauka gizenik
lehenago ere egina degu
hainbat azaña zuzenik
nahiz ta ez duen famarik edo
oaindik ez daukan izenik
Amasan ez da pertsonaik jaio
indarrikan ez duenik. (bis)

i. Zubeldia *(O. Iguarani buruz)*
Arrazoi dezu indar haundia
dauke honek beso arten
baina txalupan ezin da jarri
zer ari zera esaten?
Lehorrekoek itsas ginean
ez due ondo ematen
inork sekula ikusi al du
kirkil bat txalupa baten? (bis)

A. Egaña *(S. Lizasori buruz)*
Sebastian ere klubera etorri
eta ezin nuen agurtu
tipoak zenbat dohai daduzkan
nahi nizuke gaur laburtu
hori patroitza jarri ezker
baietz guztiak egurtu!
Horrek bereak animatze`itu
ta beste danak beldurtu. (bis)

i. Zubeldia *(S. Lizasori buruz)*
Ai Sebastian nik ekipotik
egin behar zaitut bota
hau patroiz gisa jarri nahi luke
a ze disparate sorta!
Agian leku aproposena
ez da honentzako popa
Lantxa motora emango luke
puntea gora jasota. (bis)

A. Egaña *(M. Lujanbiori buruz)*
Hara morena beste zazpi klub
bere atzetik zebiltzan
begira bere kopeta horri
jenioa badu izan
eta besotan indarra dauka
ia indartsuenen gisan
hori guztia aski ez balitz
lehen ziklista ibili zan. (bis)

- i. Zubeldia** *(M. Lujanbiori buruz)*
Garai batean ziklista gendun
pedalei indartsu joaz
baina arraunen ez do balio
nahiz ta ibili gogoaz
pentsa portura sartzen generala
zelebratzeko asmoaz
txanpaina astintzen hasiko balitz
danok ur azpira goaz. (bis)
- A. Egaña** *(A. Arzallusi buruz)*
Eta laugarren kandiditoaz
zerbait nahi nuke abestu
lehen Hendaian entrenatzen zen
ta han ibiltzen zen estu
baina Orio Orio da ta
behar genuke babestu
tira askorik ez du egingo
baina pisurik'e ez du. (bis)
- i. Zubeldia** *(A. Arzallusi buruz)*
Beti hain plako eta atletiko
beti hain dago gazte ta
nunbait ez zaio behar hainbeste
jaki iristen hesteta.
Txalupa gainen ezin da jarri
halako mutil pusketa:
kaioaren batek eramango du
antxoan dala uste ta. (bis)
- A. Egaña** *(A. M. Peñagarikanori buruz)*
Ta Galizian hiru estropa
geronentzako kalteko
burutazio bat badabilkit nik
Peña degula tarteko:
merezimendua asko badauzka
klubekoa izateko
autobusean batek behar du
txorakeiak esateko. (bis)
- i. Zubeldia** *(A. M. Peñagarikanori buruz)*
Autobusean sartu ezker
ze desgrazia gaurkoa!
Mikrofona eskuan hartu
ta han hasten da jokoa
baina hala're Anjel Mari da
oriotar konpletoa
biak baitauzka mirotzarenak
kolorea ta mokoa. (bis)

GASTEIZ

(2 0 1 7 - 0 8 - 0 9)

Bertsolariak: A. Otamendi, R. Sanchez, A. Labaka eta U. Alberdi.

Gai emalea: Nieves del Alamo.

“Gasteiz Bertsozale” proiektuaren barruan, Arabako Bertsozale Elkarteak Gasteizko Udalarekin batera Aihotz plazako jaietako saioak antolatzen ditu. Aurtengoan bost saio izan dira. Guztiak 13:30ean, eta asteazkeneko hau izan da azkena.

A. Otamendi – R. Sanchez

[2017-08-09 Gasteiz Jaialdia \[Bertsoa\] / Asier Otamendi, Ruben Sanchez](#)

Gaia: Bikiak zarete zuek. 1971n teknologia berberarekin eraikitako bi zentral: Asier Otamendi “Fukushima”, eta Ruben Sanchez “Garona”.

Neurria: Seikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz

Doinua: Uso xuria errazu A

A. Otamendi Bi zentral biki hain zuzen
elkarrizketara goazen. (bis)
Setentayunon sortuak biok
ni leherketaz joan nintzen
zu gutxienez utzi zaituzte
hor pake-pakean hiltzen. (bis)

- R. Sanchez** Nahiz eta ez egon gertu
modu berean gu sortu (bis)
pake-pakean hil naizenik'e
esatera ez ausartu
mila grieta banuen eta
azkenean ez naiz lehertu. (bis)
- A. Otamendi** Nerea ez zen izan txantxa
baizik leherketa latza (bis)
eta gustora ikusi dut nik
zuk eraman duzun martxa
gutxienean ez duzu sortu
nik sortu nuen triskantza. (bis)
- R. Sanchez** Nahiz ta hori ez ukatu
nere martxa zen pekatu. (bis)
Garofia itxi dutela baina
pixka batean pentsatu
toxiko hondakin pila bat dauzkat
ta afera ez da bukatu. (bis)
- A. Otamendi** Garbitzen badago lanik
hortan ez da zeresanik (bis)
hondakin pila omen duzu zuk
hondakin pila daukat nik
hemen inortxok ez beza pentsa
betirako joan garenik. (bis)
- R. Sanchez** Arazoa ez utzi aparte
hemen ez lasai ta ez bake (bis)
gutxi batzuak itxi ta hala're
beste batzuk hor jo ta ke
ezin geratu gara gu inor
guzti-guztiak itxi arte. (bis)
- A. Otamendi** Denak ixteko zioak
badatoz okasioak (bis)
gure patua izan bezate
hoiek geure desioak
eltze presioak isildu nindun
ta zu herri presioak. (bis)

LEITZA

(2 0 1 7 - 0 8 - 1 4)

Bertsolariak: I. Zubeldia, U. Agirre, A. "Itturri", I. Gorostarzu, N. Ibarzabal eta J. Illarregi.

Gai emalea: Miel Mari Elozegi "Luze".

Udaletxeko plazan eta festen barruan berrehun lagun en aurrean egin zuten jaialdia, astelehen eguerdian.

I. Gorostarzu - N. Ibarzabal

[2017-08-14 Leitza Jaialdia \[Bertsoa\] / Iñigo Gorostarzu, Nerea Ibarzabal](#)

Gaia: Atzo plaza honetan Kataluniatik etorritako Castellars talde bat aritu zen giza-dorre luze bat egiten. Nerea Kataluniatik etorritakoa izango da eta plaza honetan laguntza eskatu zute-nez, Iñigo agertu da laguntzeko pronto. Biak gora begira daude dorrea nola osatzen den.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Manuel Narruk atzo esan dit C

I. Gorostarzu Borondatea behar zutela
eta neroni apunta
plaza erdira ateratzeko
ezin ninteke ezkuta.
Euskal Herria ta Katalunia
biok eskutik helduta
beidatu gora oraindik ere
bide luzea degu ta.

- N. Ibarzabal** Euskal Herria ta Katalunia
lagunduaz hainbat urte
joe mutiko zure besoek
badute nahiko bertute.
Hemen azpian jarri gara ta
ze adrenalina txute!
Hobeto geure ametsek ere
azpi sendo hau balute!
- I. Gorostarzu** Gure torre hau jarri dezagun
gure ametsen antzeko
ai euskaldunok zenbat gauz dugun
Kataluniatik hartzeko!
Hemen elkartu geranez gero
gertu gaude notatzeko
baseak ona behar duela
puntak gora aileatzeko.
- N. Ibarzabal** Bai egia da ez da etorriko
hau segituan gainbehera
baina halere bide zailetan
gu biok ohituak gera.
Bagoaz gora apurka-apurka
eta bagoaz aurrera
baina leihotik atera dute
Espainiako bandera.
- I. Gorostarzu** Hori ikusteak jarri al dizu
zuri aldarte goibela?
Badakizu ta aurre egiten
jada ohituta gaudela
baina azkenean hautsi egin da
esperantza kiniela
ia puntara heldutakoan
atzera egin dezutela.
- N. Ibarzabal** Sarri beldurra izaten dugu
bide zailetan gogoan
ezin da jakin demokrazia hau
ze norabidetan doan.
Nahiz ta askotan egoten garen
horren jarrera sendoan
dena dardarka hasten denean
zuek egon gure ondoan.

I. Gorostarzu Denon artean eutsiko degu
gure torrean dardara
herria ere mantenduko da
gure asmoa hala da.
Bidean segi beti aurrera
hartu zazue patxada
sinesgarria ez da izango ta
ohitura bihurtzen bada.

N. Ibarzabal Ta ohiturekin ohitu garenez
urte hauetan batera
pausu laburrez ekingo dugu
dakigunan arabera.
Ederki pasa dugu guk Leitzan
barre asko egin gainera
gonbidatuta zaudete zuek
ezpata dantza egitera.

"Kargak & deskargak". Lizarra, 2017-08 -08. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



DONOSTIA

(2 0 1 7 - 0 9 - 0 8)

Bertsolariak: A. Mendiluze, A. Egaña, U. Alberdi, I. Zubeldia, M. Lujanbio eta A. Arzallus.

Gai emalea: Josu Goikoetxea.

Jaialdia gaueko hamar eta erdietan hasi zen; 300 lagun plazan jarritako aulkietan eserita eta jende mordoxka joan-etorrian. Ohiko saioa da Donostiako Euskararen Udal Patronatuak antolatzen duena. Euskal jaien bueltan egiten da eta aurten aste- bete atzeratu eta ohikoa ez den bezala gaueko saioa arratsaldera pasa da. 20:00etan egin da, Alde Zaharrean gauez ezer ezin omen da antolatu eta. Aulkiak berandu samar ekarri zituzten eta jendeak zutik zain egon behar izan zuen. Eguraldi egokia, plaza ondo beteta eta saio txukuna atera zen.

M. Lujanbio - U. Alberdi

[2017-09-08 Donostia Jaialdia \[Bertsoa\] / Uxue Alberdi, Maialen Lujanbio](#)

Gaia: Hondarribiko Alardearen inguruan Jaizkibel konpainiak azken urteotan berdintasun saria eman izan du. Eta oraingoan bertsolari emakumeen kolektiboari eman dio. Hainbat emakume bertsolari hurbildu zen Hondarribira, eta tartean zuek biok. Joan zarete saria jasotzera, eta han zapi bana jarri dizuete.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Ilun ikarak azken argia

M. Lujanbio Alardearen ezintasunak
alardearen nekeak
titibiliti eta kaleak
plastiko beltzez beteak.
Guk nekez egin degu bidea
ondo hartu gaitu jendeak
hain berdin izan kasuak eta
hain bide diferenteak.

U. Alberdi Ez da errexa gaurko egunez
ze pentsatu jakitea
amorrakin zaila delako
buruai eragitea.
Saria ez da sinbolo huts bat
desberdina du jitea
baizik bidea pausorik pauso
elkarrekin egitea.

M. Lujanbio Bide egin degu baino hala're
ez gera iritsi mugara
Hondarribian aldiz izua
burla, bortxa ta ikara
biolentzia hainbeste aipatzen
duen EAJ hara!
Esaidazue ba hori zer den
biolentzia ez bada!

U. Alberdi Berdintasunez desfilatuta
ez dituzte hartzen gozo
plastiko atzean jende pila bat
ez dira soilik bi zozo
holakoetan ikus daiteke
nahiz ta gogorra den oso
boterearen plastiko atzean
nor sentitzen den eroso.

M. Lujanbio Diskurtso xuri agintariak
eta herri bat trantzean
kargua odolez pasatzen dute
monarkiaren antzean
herri botere herri prestigio
nor den norbere etxean
ai zenbat pozoi ezkututzen den
alardearen atzean!

U. Alberdi Herri guztitan zenbat txaranga
zein tradiziozko dantza
kuadrilla-afari, soziedade
komentario ta txantxa
urrunekoa errez da ikusten
gertukoa zaila antza
nork bere etxetik astin dezagun
alfonbra azpiko hautsa.

M. Lujanbio Eta eskertuz bertsolaritza
aurten omendua dena
koloretako zapi batekin
eder ikusten da dena
baino ez al da paradoxa bat
eta gordina urteena
garaipen gisa bizi beharra
oinarri behar lukeena?

U. Alberdi Oihana, Amets zein Mariaje
Ana, Rosa zein Maribel
Kote, Aitor, Manu, Ainhoa, Miren
Mari Anjeles eta Mikel
urte askoan izan zarete
putzutik kanpoko igel
bide urratzaile izatearren
eskerrik asko Jaizkibel.

M. Lujanbio - U. Alberdi - A. Mendiluze - A. Egaña - I. Zubeldia – A. Arzallus

[2017-09-08 Donostia Jaialdia \[Bertsoa\] / Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Andoni Egaña,
Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Iker Zubeldia](#)

Gaia: Kataluniaren alde zerbait egin behar zenutela eta, Castell bat, giza dorre bat, egitea pentsatu duzue. Egaña, Uxue eta Mendiluze beheran jarriko zarete, erdi bidean Lujanbio eta Zubeldia jarriko dira eta gora, puntara, Amets igoko da.

Neurria: Lauko handia

Doinua: Bedeinkatua izan dadila I -B

- A. Mendiluze** Amets puntako jarrita gaude
proportzio ederrean
beti izan du burua zerun
eta bi hankak lurrean.
- A. Egaña** Baina oinarrian gauden hiruok
indarrez gaude bajuak
mila pusketa egingo dira
Ametsen antiajuak.
- U. Alberdi** Gailurra ez da altua izango
txikiak geran heinean
Maialen jartzen baldin badegu
nere sorbalden gainean.
- I. Zubeldia** Nere ustetan marjinatuak
Maialen ta biok gera
Erdi-erdian utzi gaituzte
ez gora eta ez behera.
- M. Lujanbio** Hiru solairu egin behar dira
ta argi geratu bedi:
Iker eta ni erdia gera
baino Amets bat eta erdi.
- A. Arzallus** Iker ta Maialenen gainera
igoko naiz salto baten
baina dexente kostatuko da
hauek geldirik egoten.
- A. Mendiluze** Andoni ta ni paretsu gaude
baina jeisten da horrea
gurea ez da castella izango
baizik Pisako dorrea
- A. Egaña** Ni lasai hemen kataluniarren
abesti hura medio
hain xuxen ere kantatzen baitut
“Agure zahar batek dio”.

- U. Alberdi** Ta txapeldunak jarri behar dula
gure castellaren ginda
Amets goraka dijoa baina
Maialen mugitu egin da.
- I. Zubeldia** Igual Andoni bialduko degu
hor azpitio gorantza
gure castellak hartuko luke
Altos Hornos baten antza.
- M. Lujanbio** Oso arrisku haundiak dauzka
gure gaztelu gotorrak
lehenengo pisu hortan dauzkate
buruak irristakorrak.
- A. Arzallus** Baina problema da Madrilèn`e
nola mugitzen ai dian
ejertzittoa etortzen bada
utz nazazue airian.
- A. Mendiluze** Baino Amets ezin Maialenekin
maila bat gorago joan
gainetik ez du inor onartzen
gehienera`re ondoan.
- A. Egaña** Behian ta erreaz geratuko nauk
Iker Zubeldia maitea
Altos Hornosa baino hobe dek
txondor zahar bat izatea.
- U. Alberdi** Ni`re pesekin hortxe jardun naiz
oinarria entrenatzen
bien artean eutsi nahi dute
ta ez naute kontuan hartzen.
- I. Zubeldia** Uxuen gainen jarri naiz eta
ai a zer nolako mina!
Hanka opoan sartu dit eta
begi ondoko piercinga.
- M. Lujanbio** Ta Ametsek`e gora bidean
kolpea ta harramazka
hau da tipoa gora igota`re
eskuak patrikan dauzka.
- A. Arzallus** Baina Iker ta Maialenen burun
nere oinak beheruntz pusa
batek dirudi almoadatxo bat
eta besteak kaktusa.

ALKIZA

(2 0 1 7 - 0 9 - 0 8)

Bertsolariak: O. Iguaran, M. Lujanbio, S. Lizaso, A. Arzallus, A. Agirre eta A. Egaña.

Gai emailea: Haritz Mujika.

Jaialdi klasikoa da Alkizako jaietakoa. Iaz aldatu bazuten ere, aurten berriro festetako ostiralean egin zen. Saio ederra atera zen giro beroa zegoen pilotalekuan.

A. Egaña

[2017-09-08 Alkiza Jaialdia \[Bertsoa\] / Andoni Egaña](#)

Gaia: Igande goiza da eta atzo zure alaba nerabea parrandan atera zen: Gaur bera lo dagoen bitartean zu bere oinetakoak garbitzen ari zara. (Eskuetara oinetako zikin batzuk ematen dizkio)

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke

A. Egaña

Ai zapatilak zein salagarri
zapatilak a ze prenda!
Atzo alaba iluntze aldean
etxetik txintxo irtenda
gaur pentsatu det "Garbitu on bat
eman behar diek benga!"
garbitzen hasi ezkerero gero
dena errex egiten da
garai batean gure aita zanak
berdin egiten zuen da.

Zaharra etxean, gaztea *porai*
bizitzaren espirala
garai batean ta gaur egun`e
ostirala ostirala.
Bi zapatila zikin-zikinak
ez naiz harritu aibala!
Baina kolpetik ez det hartu ba
sorpresa bat mundiala
konturatu naiz galtzerdi hauek
etxeakoak ez dirala.

Ez du lortuko bere aitaren
bihotza minberatzea
komeniko da lehenbizi hauek
ur berotan beratzea.
Ze galipota! Ze txikle pila!
A ze nolako trantzea!
Harrigarri da goizez alaba
etxera hurreratzea
normalena zen festagunean
pegatuta geratzea.

M. Lujanbio - A. Agirre - A. Egaña - O. Iguaran - A. Arzallus - S. Lizaso

[2017-09-08 Alkiza Jaialdia \[Bertsoa\] / Amaia Agirre, Amets Arzallus, Andoni Egaña,
Oihana Iguaran, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio](#)

Gaia: Maialen, zure atzeko horiek bizitza bideratuta dute, baina jakin nahi nuke beren lehen soldata nola edo zertan irabazi eta zertan gastatu zuten.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: Iparragirre abila dela

M. Lujanbio Amaia gaxte neska fina ta
txintxoia beti bezela
hamabost urte izango zitun
edo hamasei bestela.
Bertso paperen sari
ta bost mila opari
ez nun sinistuko bela!
Hotsek diote makillajetan
gastatu omen zuela. (bis)

- A. Agirre** Zure modura presumida naiz
hori daramat senean
milaka euro gastatu nitun
denboraren joanean
nere akne ta grano
azala ez nun sano
beharko hasi lanean
elizan ostu nituen denak
gastatu nituenean! (bis)
- M. Lujanbio** Gisa hontako *caballeroa*
ez da errexa esaten
nola gazte ta diferentea
izandu zan lehen noizbaiten.
Apaizari ostua
ta lehenengo gastua
baxo-erdi gorri baten
zarauztarrikan zauztarrena`re
ardo merkea edaten. (bis)
- A. Egaña** Haritz etorri hemen bakoitzan
lehen soldataz galdetzen
Maialen zerbait asmatu dezu
hasi zintezke baretzen:
ibili nintzen aizu
gau-eskolako maisu
artean AEK ez zen
ardo merketan gastatu nuen
ta ez naiz ezer akordatzen. (bis)
- M. Lujanbio** Amaia gaxte neska fina ta
txintxoa beti bezela
hamabost urte izango zitun
edo hamasei bestela.
Bertso paperen sari
ta bost mila opari
ez nun sinistuko bela!
Hotsek diote makillajetan
gastatu omen zuela (bis)

O. Iguaran Merkea dana garesti itxuran
agertzen det nahiko arte
pelukeria ez da hain sarri
nere agendaren parte.
Egon zaitea erne
ikasi degu lehen`e
ama ez daukat aparte
ta hari eskatzen segi beharko det
hogeita hamar bete arte. (bis)

M. Lujanbio Berezia zan, espeziala zan
originaltxoa edo
zozketaren bat izaten zala
urte bukaeraero
talde batean bera
eta berrehun libera
ta behin tokatu ezkerro
denek "Phoskitos" erosi zuten
honek Axularren *Gero*. (bis)

A. Arzallus Ene Maialen guztia ez da
zeuk esan dezun moduan
nik aingeruen koronaik ez nun
nere buru inguruan.
Nere Phoskitosakin
han nenbilela jakin
beste guztien albuan
Axularrena zuk bezelaxe
gerorako utzi nuan. (bis)

M. Lujanbio Sagardo edaten gastatuko zun
eta segi, eta segi
gaur egun ere halatxu eiten du
ez da aldatu gehiegi.
Ez ziran mila euro
ta ez bost mila duro
iraganean igeri
Sebastianen lehen soldata
hirurehun marabedi. (bis)

S. Lizaso Dena ez da zuzen baina ez zitzaizun
oso oker aterako.
Hamasei urte ta bertso deia
jaso nun Mutrikurako
soldata zuten presta
ziren lau mila pezta
hutsik zen karterarako
nahiz ta gehienak gastatu nitun
etxera joaterako. (bis)

MUTRIKU

(2 0 1 7 - 0 9 - 0 8)

Bertsolariak: A. M. Peñagarikano, B. Gaztelumendi, I. Apalategi eta U. Iturriaga.

Gai emalea: Antton Aizpurua.

Mutrikuko Bertso-Eskolak -Goizeko Izarrak- antolatzen du Kalbaixotako bertso saioa. Zabilen jauregian hamar eta erditarako 250 entzule zeunden.

B. Gaztelumendi

[2017-09-08 Mutriku Jaialdia \[Bertsoa\] / Beñat Gaztelumendi](#)

Gaia: Hainbeste jende zain egon den hitzaldia emateko ordua heldu da.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: Amodioa gauza tristea

B. Gaztelumendi Bi urte dira gure herrira
iritsi zela ekaitza
Espainiatik jaso ditugu
mespretxua ta bekaitza
baina poliki arrakalatu
joan da haien harkaitza
Kataluniako presidentena naiz
nahiz askorentzat den gaitza
ta ematera nijoa orain
galdeketaren emaitza.

la ehuneko hirurogeia
da kutxetatik igaro
ta izan dira ezezko baino
askoz baiezko gehiago.
Nahiz Moncloatik esan ziguten
“Uztazue” ta “Akabo!”
esan digute ta mehatxatu
gaur baino askoz lehenago
baina hitza preso har dezakeen
guardia zibilik ez dago.

Herriak eman zuena orain
agintariak bete du
gizarteari aspaldi zaio
bere momentua heldu.
Urriak bata eta aurrera
beira jarrita gaude gu
Espainiaren aginduei lehen
maiz obeditu diegu
baina hemendik aurrerakoa
guk erabakiko degu.

ELORRIO

(2017-09-10)

Bertsolariak: M. Akizu, A. Egaña, U. Iturriaga eta O. Perea.

Gai emalea: Maite Berriozabal.

Elorrioko Udaleko Kultura Sailak antolatuta herriko jaietako bertso saioa. Euri arriskua zegoenez, Casa Jara jauregitik Arriola antzokira eraman zen. 250 lagun inguru bildu ziren bertan.

U. Iturriaga

[2017-09-10 Elorrio Jaialdia \[Bertsoa\] / Unai Iturriaga](#)

Gaia: Hondarribian sasoi honetan irteten da alardea; mistoa eta betikoa. Albistegietan plastiko beltzak ikusten dira alarde mistoaren aurka. Zer ezkutatu nahi dute benetan plastiko beltz horiek?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Amodioa gauza tristea

U. Iturriaga

Urtero-urtero barrizatzen da
txilibitu hotsen martxa
kalean gora doazenean
hortxe kitto esperantza
batez be dagoz neska gazteak
begira beste alderantza
euren errua izan ote dan
badaukot neure zalantza:
neskato horren gurasoek euki
behar daue kontzientzi baltza.

Zeure auzoa gitxiestea
hori ete da xedea?
Mila iritzi egongo dira
nik botako dot neurea.
Zelan pertsona eroan leiken
bihurtzea aberea
zelan sentidu ahal dan talde bat
jai oso baten jabea.
Azken batean gatazka bat dau
ta atzean boterea.

Segregazio kontu bat bada
hortaz hitz egin ahal bada
joango bagina hirurogeiko
Estatu Batuetara.
Hori ez dala hemen pasatzen
ta egiten dabe algara
guardia zibil bati akaso
jo ezker ostikada
horregatik bai baina bestela
bat ez doa kartzelara.

A. Egaña - M. Akizu

[2017-09-10 Elorrio Jaialdia \[Bertsoa\] / Maialen Akizu, Andoni Egaña](#)

Gaia: Aita-alabak zarete. Ikasturtea hasi berria da eta beste batzuetan Andoni, zure bost urteko alaba, Maialen, konforme joan izan da eskolara. Oraingoan, ordea, oporretan oso ondo pasa duela eta ez duela eskolara joan nahi esan dizu. Garaia heldu denean, Maialen ohe azpian ezkutatu da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Igaran egun batez

A. Egaña “Ez det nahila” “ez det nahila”
andereño, maisu
maindirepe hortatik
irten zaitez aizu!
Ikastolan primeran
egongo zara zu
ta laguntxo berriak
egingo dituzu.

M. Akizu Hamaika ilusio
ta soilik bost urte
lagun berriak ditut
dena musu-truke
ohe azpia hartu dut
eskola-arkupe
gaur nere mamuekin
ikasi nahi nuke.

A. Egaña Ikastola ez duzu
hain txarra bai zera!
Ikasgelara zoaz
ez zoaz klasera
mamuekin jolastuz
diozun antzera
bigarren ordurako
aspertuko zera.

M. Akizu Mamua ez da baina
maistra bezain pelma
ta hemen ikasten det
ikaspen gorena
aita zuk diozu ta
ez ahaztu dena
etxea izaten dela
eskola onena.

A. Egaña Uste nuen alaba
nuela txepela
baina hau engainatzea
ez dut lortu bela
jarriko naiz guraso
dexente bezela
zuk`e ez zazu ahaztu
aita ni naizela.

M. Akizu Aita zu zera baina
ez aldatu *keba*
hain ona izan degu
uda ibilera!
Hondartzako paisaje
hotelen harrera
aitatxo benga goazen
gu Benidorrera.

A. Egaña

Beraz *pajaritosa*
dantzatu nahi zuk`e
bizitza ez da uxo
bizitza da putre.
Nahiz eta ikastola
iruditu kutre
besteako falta dira
hirurogei urte.

M. Akizu

Nahiz eta hartu degun
gure kolorea
Benidorren hobia
genuen ohea
ta berriz bueltatzea
biontzat hobia
ja biok behar degu
ta flotadorea.

LEZO

(2 0 1 7 - 0 9 - 1 5)

Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Arzallus, S. Lizaso eta A. Egaña.

Gai emailea: Amaia Agirre.

Herriko plazan laurehun lagun bildu ziren herriko jaietako saioa entzuteko.

M. Lujanbio – S. Lizaso

[2017-09-15 Lezo Jaialdia \[Bertsoa\] / Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio](#)

Gaia: Maialen, baratzean lanean ari zarela, Sebastian biloba etorri zaizu beste bi lagunekin eta landare batzuentzat zure baratzean lekua uzteko galdegin dizu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu

S. Lizaso

Hara amona nahiz ta kalean
ni bizi naizen aparte
zure etxeko baratza baten
hartu nahiko nuke parte.
Baratz kontuan nahiz ezjakina
izan arren orain arte
landare hauek zuk bezelaxe
Maria izena daukate. (bis)

M. Lujanbio Harrigarria gaur hartu dedan
ezustearen tamaina
kaletik dator biloba eta
landaretan badu maina
eta gainera Maria izena
omen dute alajaina!
Hoik zaindu gabe ez dira hazten
ni hala hazi naiz baina. (bis)

S. Lizaso Aprobato bat egitea da
nere ametsan oinarri
ta nahi nituzke landare batzuk
nik zure baratzen jarri
hosto zabala, kolorez berde
dute bere ezaugarri
zuretzat lan asko ez daukate
ta neretzat bizigarri. (bis)

M. Lujanbio Bizigarriak baldin badira
igoko dira burura
emandakoan probatuko det
nik horien belar-ura
atxurra nondik heldu ez dakila
kalekumeen modura
azulejorik ez daukan lurra
zer dan ba al dakizu ba? (bis)

S. Lizaso Ez dakit baina abiatu naiz
dakitenen esanean
eta makila jarri behar omen
igotzeko zuzenean
eta gehiago ere badabiltz
landare hauen senean
eta zureak dirala esan
ertzainak datozenean. (bis)

M. Lujanbio Ertzainak hona ta horren bila
falta genuen bakarra!
Bai poliziak ta bai zuk ere
jasoko dezun marmarra!
Lehen paga bila etortzen baitzan
gure iloba kaletarra
opariakin badator noski
izan behar zun zerbait txarra. (bis)

S. Lizaso Lasai amona nere ekintza
ez da zuretzat kaltea
nahiz lur zati bat utziko dudan
hor mariakin betea.
Lasai ertzainak jotzen badute
zure etxeko atea
adin horrekin suertea da
sospetxosa izatea. (bis)

M. Lujanbio Gure iloba txiki haundiak
harrokeria du sobra
baina amona ez da tuntuna
nahiz eta izan jatorra.
Hona ertzainik etortzen bada
ze izango dezun horra:
hezurrak dauzkat ahulak baino
bastaia daukat gogorra. (bis)

M. Lujanbio Beraz sortzen du nahiko nahaste
ta buruan nahiko laino
nik benenua bota ezkerro ja
igoko zaizu goraino.
Diru pixka bat badu onura
ez da negozio txarra ño!
Prezio hobea egingo du ta
gure barazkiek baino. (bis)

S. Lizaso Azkenerako amonaxoa
kontatuko dizut dana
landareak nik jarriko ditut
zure kargu zaintze lana
lehen ere inoiz jaso izan dut
nik xoxa hoiak emana
eta hauekin lortzen deguna
biontzako erdi bana. (bis)

ALTZO

(2 0 1 7 - 0 9 - 1 6)

Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Arzallus, J. Soto, I. Gorostarzu "Etxorde" eta A. Martin.

Gai emalea: Imanol Artola "Felix".

"Azken Muga" egitasmoaren baitan kultur ekitaldi ugari antolatu dira azken bi urteotan Zarate gainean, Bedaio eta Azkarate artean, Aralar mendilerroaren bi aldeak, Gipuzkoa eta Nafarroa, lotzeko asmoz. Bigarren urtez antolatu da bertso jaialdia eta bigarreneguz eguraldi txarra dela eta, Altzora eraman da. Bertako Santa Barbara ermitan, megafonirik gabe eta giro goxoan saio bikaina eskaini zuten.

A. Martin

[2017-09-16 Altzo Jaialdia \[Bertsoa\] / Alaiia Martin](#)

Gaia: Mugaz ari gara eta askotan muga izan daiteke zubia. Alaiia, zuk egiten duzu irratian Artzen Letonarekin batera Zubia izeneko irradi saio bat. Zubiak hitza, esan izan duzue, "zu" eta "biak"en batura izan daitekeela. Banatuta dauden zein "zu" eta "biak" batu nahi lituzke Alaiiak?

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

A. Martin Zubia zu bi edo bat t`erdi
izan izaten da drama
bertsotan ere zubi bat da maiz
ideiaren pentagrama
erabakitzen eta azaltzen
hamar segunduko lana
hartzen dugu ta zail da uztartzen
bi aldeetarik bana
jendeak entzun nahi duena ta
nik kantatu nahi dudana. (bis)

Porrota dugu sortzailea ta
arrakastaren ogia
lortu nahiean bilatzen dugu
korrekzioa, ongia
baino askotan ahots atzeko
pertsone hori eroria
egon liteke nahiz esaldia
izan gordin ta lodia
zail da uztartzen mingain berean
praktika ta teoria. (bis)

Ta teoriak inkoherentzi
txiki bat dauka hiltzeko
berez zubiek eta ideiek
balio dute biltzeko
lehengo harriak ez dira aski
oraingoak harritzeko
ta ez bagara gai zubi hortan
zutik tinko sentitzeko
lehengo zubia bota behar da
berri bat eraikitzeko. (bis)

J. Soto – I. Gorostarzu

[2017-09-16 Altzo Jaialdia \[Bertsoa\] / Iñigo Gorostarzu, Julio Soto](#)

Gaia: Zuek koadrillakoak zarete. Larunbat gauero inguruko herriren batean erromeria bada, bertan izaten zarete, zerbeza edan, dantza puska bat egin eta ahal dela ligoteo apur bat ere bai. Gaur ere irten zarete, bidean afaldu, zerbeza, dantza... Goizeko bostak dira eta Julioaren kotxean etxerako bidea hartu duzue biok bakarrik.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Orioko balearena

J. Soto Gaur`e izan dizkiagu
guk betiko erak
a ze ilusioa
parranda haserak!
Zigarro ta gin-tonik
arteko plazerak
baina fallatu ziguk
azkeneko zerak. (bis)

I. Gorostarzu Saiatzen gaituk norbait
motzetikan lotzen
eta gaur ere garaiz
“Goazen, goazen”
tragoa hasi zaidak
lepora goratzen
azkeneko tragoa
sobran egongo zen. (bis)

J. Soto Azkeneko tragoak
sortu dun kaosa
saiatu haiz bilatzen
pareja aproposa
nik ezin diat ase
baina hire poza.
Ez ‘zakela ikutu
kajakanbioso! (bis)

I. Gorostarzu Kotxean kanbioa
al genun ba koño!
Eske ikusten diat
bide dena laino
joan hai zuzen-zuzen
hire etxeraino
neska bat nahio nian
bi Julio baino. (bis)

J. Soto Alkoholak horrelako
problema dakartzki
gu arrimatzen gara
goxo, azti-azti
hitzak ere dauzkagu
loratzeko aski.
Ez dut ulertzen guk zer
eiten dugun gaizki. (bis)

I. Gorostarzu Deus egin gabe egoten
garela gustura
ta horrela ezin da
maiterik ingura.
Ea lagundu zaidak
ekartzen burura
nor zen lehenengo balsa
egin dudan hura? (bis)

J. Soto Ta ze estuasuna
bere galderakin!
Barruraka pentsatzen
ein 'zadan ahalegin.
Nola esango diot?
Hobe du ez jakin
dantza egin duela
bere buruakin. (bis)

I. Gorostarzu Galdera egin diat ta
hik ezer ez diok.
Gutxi laguntzen dute
lagun tematiok.
Berriz ere mutilzahar
eongo gaituk biok
ez naizela oroitzen
esaten badiok. (bis)

J. Soto Nahiz ateratzen garen
gu zerako usaiz
martxoa honetan sartu
beharko diau apaiz
nahiz ta estimazio
asko ez izan maiz
hi ez hai apuratu
oso jatorra haiz. (bis)

I. Gorostarzu Baina hik ez nauk inoiz
nahi aina maiteko
gerritikan heltzerik
ez dek ba usteko?
Baina berandu dek ta
orain lota seko
hori nahikoa nian
amets egiteko. (bis)

M. Lujanbio - A. Arzallus - J. Soto - I. Gorostarzu - A. Martin

[2017-09-16 Altzo Jaialdia \[Bertsoa\] / Amets Arzallus, Iñigo Gorostarzu, Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Julio Soto](#)

Gaia: Badator Euskal Herriko Txapelketa. Amets, txapela zure etxean dago. Atzeko lau hauek saiatu dira egun ezberdinetan zure etxera joan eta zurea den txapela lapurtzen. Baina denak harrapatu dituzu. Kontaiguzu bakoitza zertan eta nola harrapatu zenuen. Eta Ametsen bertsoa entzuten hasita, beste aldeko bertsoa ere konta ezazue segidan.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: Iparragirre abila dela

A. Arzallus Ene Julio iluntze batez
edo ilunabarrean
gu lo geundela geure etxera
sartu zan modu txarrean.
Lapurtu zun txapela
baina mutil txepela
alde egin beharrean
goizen probatzen han bilatu nun
ispiluaren aurrean. (bis)

J. Soto Ez dut ukatzen ni're nengola
txapela jantzi desiran
berdin "Ametsek zertarako du?
Hainbeste dauzka segidan!".
Ispiluan aurrean
txapela gailurrean
ta bi begiak dilindan
bazpa're erne ibili zaite
ze ongi gelditzen zitzaidan! (bis)

A. Arzallus Etxordek ere behin aurkitu zun
zein zan kajoi printzipala
gero alde egiten ahalegindu zan
etxean inor ez zala.
Komuneko leihoa
txiki xamar jaioa
ta hau mutiko zabala
reja tartean han gelditu zan
xagua tranpan bezala. (bis)

I. Gorostazu Hendaia aldera hurbildu eta
lapurtzeko zenbat truko
reja tartean harrapatu ta
txapelai beharko uko.
Ez nago txapelketan
ez, sinetsi benetan
aurkezpena zen lekuko
Amets eman, zuk badakizu ta
ez dizudala kenduko. (bis)

A. Arzallus Alaiak berriz tinbrea jo zun
lapurrentzat ze iraultza!
Eta gainera eskaini zitun
hiru dozena arraultza.
Han bakarra zegon ai!
Ta honek gehiago nahi
zer den kapritxosa gauza!
Esan zun "Hemen bakarra dago
ba ni banoa Zarautza". (bis)

A. Martin Ba horrela da ta ez naiz lotsatzen
ez da esan behar dena
berez Ametsek eman baitzidan
hasieratik baimena.
Lau kendu Egañari
sentitu nintzen handi
gero hustu zait barrena
rekorra egin nahi nuke eta
emaidazu bosgarrena. (bis)

A. Arzallus Ta Maialenek bigarrena nahi
honek'e gose itzela
soinuik ein gabe han ibili zan
nola lientzoan pintzela.
Etxea itxi gabe
atera zen hala're
ta eramatean txapela
Hernanin gero konturatu zan
bera falta zuela. (bis)

J. Soto

Hernanira joan ta apala hutsik
ez nuen espero bela!
Ni orduantxe sentitu nintzan
inuzentea bezela
ze Euskal Herrikoa
zan ekarririkoa
nik bat iguala nuela
egiz lapurtu nahi niona zan
Iparraldeko txapela. (bis)

Txapelketa Nagusia. Barakaldo, 2017-12 -17. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)
Argazkilaria: Alberto Elozegi



BARAKALDO

(2 0 1 7 - 1 2 - 1 7)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Mendiluze, S. Colina, A. Arzallus, A. Sarriegi, I. Elortza,
B. Gaztelumendi eta U. Agirre.*

Aurkezleak: Inaxio Usarralde, Maite Berriozabal, Saroi Jauregi eta Joana Itzaina.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapeldunaren bukaerako agurra.

M. Lujanbio

[2017-12-17 Barakaldo Txapelketa 16:30 \[Bertsoa\] / Maialen Lujanbio](#)

Neurria: Hamalauko handia

Doinua: Beste bateko inularretan

Herri hau herri egin al dugu?
Ze eman du bizikidetzak?
Zenbat eman du euskalduntzeak?
Ez behar beste guretzat.
Berrogei urte ta garaia da
egurasteko ametsak
akaso hortan bertsolaritza
ona da adibidetzat.
Beti ez du goitik behera egiten
transmisioaren trentzak
guk behetik gora ikasi dugu
ta zabaldu muga ertzak.
Lehengoeikin ta gaurkoengandik
txapela gerokoentzat.

A R E T X A B A L E T A

(2 0 1 7 - 1 2 - 2 9)

Bertsolariak: O. Iguaran, A. Arzallus, U. Alberdi eta A. Laburu.

Gai emailea: Amaia Agirre.

Areto txikia da Kultur Etxekoa, baina bete egin zen eta ehun lagun ingururen aurrean bizi eta goxo aritu ziren bertsolariak.

O. Iguaran - U. Alberdi

[2017-12-29 Aretxabaleta Jaialdia \[Bertsoa\] / Uxue Alberdi, Oihana Iguaran](#)

Gaia: Duela bi urte alargundutako bi emakume zarete. lazko Gabonetan, betiko moduan, familia osoa elkartu zenuten zuenean. Otordu denak zuen kontu, mahai jartze eta plater garbitzea zuen kontu... Hutsune latza, baina sukaldea bete lan. Aurten kafe bat hartzen ari zaretela ez duzue egoera errepikatzerik nahi eta Gabonetan kanpora joatea pentsatzen ari zarete. Gabonak kanpoan pasako ote dituzuen zuek biok bakarrik. Zu, Uxue, beldurrez zaude ze erreakzio izango duten. Zu, Oihana, desiratzen zaude notizia eman eta ze aurpegi jarriko ote duten ikusteko.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: Hemen zizurkildar bat

O. Iguaran Aspaldi egin nahi nun
dataotan alde
inorren kontra ez baino
soilik nere alde.
Kafea hartuz ohartu
naiz eta suabe
urteko lehenengoa
dedala hala're
ondoren katilua
nik garbitu gabe.

- U. Alberdi** Gure kontu sukalde
sala ta konketa
nahiz ta gero sarritan
ilundu kopeta.
Zu eta biok gaude
bastante erreta
baina ezin joango naiz
lasai oporreta
arraultza bat prejitzen
ez dakite eta.
- O. Iguaran** Ba zu lasai aukeran
daukate *Burger King*
ez badute egin nahi
hainbeste ahalegin.
Beti kejan zebiltzan
gure otorduekin
"Ama hau gehiegi zan"
ta kabitu ezin
oain keja daitezela
arrazoiarekin.
- U. Alberdi** Mantel politenakin
jartzen nuen sala
ni gabe imajinatuz
laztu zait azala
urte bete dalako
aitatxo hil zala
baina igual egin behar da
pentsatu bezala
behintzat ikus dezaten
ama bizi dala.
- O. Iguaran** Hain zuzen horixe da
bizitzaren soka
ta ez da ez egiteko
beraiei boikota.
Hobe da atzerrian
aste on bat bota
Gabon zaharretan altxaz
gure txanpain kopa
senar zirenen alde
ingo degu topa.

U. Alberdi Nahiz ta burutik pasa
hainbat deskribapen
zu ta biok hoteltxo
txiki, polit baten
egia esan ez du
hain ondo ematen
naizen andreak ez du
luxua jasaten
ez bainago ohituta
zerbitza nazaten.

A. Arzallus

[2017-12-29 Aretxabaleta Jaialdia \[Bertsoa\] / Amets Arzallus](#)

*Gaia: Jarri Ametsi puntuak, baina errazetik zailduz joan. Lau puntukoa, bostekoa seikoa...
bederatzi arte.*

LAU PUNTUKOA
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

A. Laburu
Laukoa ere ez da
beti hain errea
A. Arzallus
zeozer esateak
sortzen du estresa
ta doinu honek a ze
bukatzeko presa
tartean bilatu behar
zerbaiten sorpresa.

BOST PUNTUKOA

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: Ai gure antzinako

O. Iguaran

Hara hor bostekoa

baino ukabila (bis)

A. Arzallus

ni erakusten ez naiz

izan hain abila

baina ezagutu ditut

zenbait iskanbila

gaur egun pertsona da

otzan da zurbila

lehengo ukabila berriz

altxatu dadila. (bis)

SEI PUNTUKOA

Neurria: Hamabiko ertaina

Doinua: Gai horrek badu mamia

U. Alberdi

Txapelketak izaten du

gozoa ta gazia

A. Arzallus

pentsa ni ere banaiz bai

hortatik ikasia

lehengoan dena zen amets

ta dena fantasia

ta oraingoan ezina

larra eta sasia

baina hala ere gauz bat

dut adierazia

bitatik atera leike

hemen irabazia. (bis)

ZAZPI PUNTUKOA

Neurria: Zortzikoa, berdinareen moldekoa, 7 puntuz

Doinua: Ai hori begi ederra A

A. Laburu

Zuretzat zer da bertsoa?

A. Arzallus

Mikatza edo goxoa

baina barrenerantz soa

batzutan oso bide zabal bat

ta besteetan bidetxoa

erdia edo osoa

noiz betetzen da basoa?

Segi hitzaren pausoa.

ZORTZI PUNTUKOA

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: Norbere mundu intimo

O. Iguaran

Ta hitzaren pauso horrek
bidea nora darama?

A. Arzallus

Ni ere galdu izan naiz
bapateko hortan barna.
Nahiz aurretik pentsatzea
izaten den geure arma
ustekabekoak ere
izaten du bere xarma.
Adibidez bertso honek
errekan gisa narama
erdi erorialdian
pentsatu arren ai ama!
Bertso bat horixe baita
kalkulatzen ez den lana
geuregandik abiatu
eta entzuleengana. (bis)

BEDERATZI PUNTUKOA

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: Betroiarena A

U. Alberdi

Haundia denak beti
haundi jarraitzen du

A. Arzallus

nahiz ta ilusioak
tartean zendu
ta behin oker egina
gero ezin zuzendu
autoestimaz behintzat
ni ez naiz gizendu.
Pentsa ze abendu!
Ideiak aldendu
ta txapela kendu
ta ezin mantendu
hobe kritika on bat
egin bazendu! (bis)



**BAT-BATEKO
SARIKETAK**

ABRA SARIKETA

GETXO (2017-02-17)

Bertsolariak: P. Abarrategi, Tx. Altube, M. Arregi, A. Beloki, J. Illarregi eta U. Mendiburu.

Gai-emailea: Beñat Vidal.

Otsailaren 17an, Algortako La Ola jatetxean, hamabost euroko otorduaren ondoren jokatu zuten sei bertsolari gaztek XVI. ABRA SARIA. Maider Arregi oñatiarrak irabazi zuen, buruz burukoa Joanes Illarregi leitzarrarekin jokatu ostean.

M. Arregi - J. Illarregi

[2017-02-17 Getxo Sariketa \[Bertsoa\] / Maider Arregi Markuleta, Joanes Illarregi](#)

Gaia: Pisukideak zarete. Maider kokoteraino zaude: argindarraren prezioa igo denetik, Joanes zure atzetik dabil pizten duzun guztia berehala itzaltzen.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Igaran egun batez

M. Arregi

Egun gaizto batean
faktura hazi zen
ta ordutik atzetik
zara zu ibiltzen
zu argia kentzen ta
ni berriz ipintzen
jada ez naiz lehen bezain
argia sentitzen.

J. Illarregi Ba hori orain bertan
aldatau dadila!
Desesperatuta ni
bainago mutila.
Nola gastatzen duzun
argi indar pila
egunen zazpi aldiz
kargatuz mobila.

M. Arregi Gezurrik ez zazula
zuk esan lehenbizi
nik bizi nahiko nuke
azkar eta bixi.
Argiaren kontra zuk
hainbeste iritzi
neurritik kanpo Joanes
ezin dugu bizi.

J. Illarregi Gure diskusioa
behar dugu buka
zure atzetik ezin
naiz joan helduta
hazi beharko zara
adina duzu ta
zeatik lo egiten duzu
argia piztuta?

M. Arregi Argitzea delako
nere desioa
filosofia duzu
nere pasioa
batzuen arrazoia
besteen zioa
ta nik etxean nahi dut
ilustrazioa.

J. Illarregi Zure hitzak ez itzazu
oraintxe apaindu
egin beharrak gaude
gaurko hontan gain gu
nola zuk ezin duzun
argiaren zaindu
hori nahi baduzu zuk
faktura ordaindu.

GABIRIA

(2017-04-22)

Bertsolariak: M. Arregi, U. Mendizabal, J. Gurrutxaga, E. Araiztegi, M. Akizu eta A. Igartzabal.

Gai-emailea: Jokin Murua.

Aurrez hiru sariketa jokatuta, Aztiri, Argiberri eta Osinberde, hemezortzi bertsolaritik sei geratu ziren 46. Osinalde Sarirako. Urteroko legez, 200 lagun inguruk txiki utzi zuten Osinalde elkartea. Jokin Murua aritu zen aurkezle lanetan. Unai Mendizabal gailendu zen eta Mainer Arregi gelditu zen bigarren. Maialen Akizuk irabazi zuen bertso onenaren saria.

M. Arregi - E. Araiztegi

[2017-04-22 Gabiria Sariketa \[Bertsoa\] / Eneko Araiztegi "Korta", Mainer Arregi Markuleta](#)

Gaia: Gau osoa ligatzen pasatu ondoren, ohera iritsi zarete. Enekoren lehen aldia da; Mainerrek asteburu askotan egiten du berdin.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Orioko balearena

E. Araiztegi Zukin ligatzen banun
nahikoa botere
baino bere garaian
ni ez nago trebe.
Hasi zaitez Mainer zu
eidazu mesede
nik ez dakit ta orain
nola hasi ere! (bis)

- M. Arregi** Mutil jator-jatorra
ta elegantea
baina ez daki eta
eman du *kantea*
berdin da kuleroa
edo tirantea
imajinazioa
da inportantea. (bis)
- E. Araiztegi** Nik imajinazioa
daukat gogotio
baino dardarra dauket
hemen ta hortio
geldi egon ezinda
nago kolpetio
ohiari ere hankak
hautsiko zaizkio. (bis)
- M. Arregi** Oso gertuan zaude
ez zaude aparte
sexuan ez daukazu
zuk nahi beste arte.
Segi zuk ni ikutzen
segi hartzen parte
zer ikutzen zabiltzan
ez dakizun arte. (bis)
- E. Araiztegi** Ni jadanik utzi nau
beldurrez beteta
zer ari da esaten
kauen la puñeta!
Beste baten ein beharko
det hona buelta
ama mobiletio
hoska ai zait eta. (bis)
- M. Arregi** Oso azkar ahaztu du
sexu egarria
mobila hartu eta
aurpegi larria
ni hemen geratu naiz
ohean jarria.
Hau bai izan dela gau
dibertigarria! (bis)

U. Mendizabal – M. Akizu

[2017-04-22 Gabiria Sariketa \[Bertsoa\] / Maialen Akizu, Unai Mendizabal](#)

Gaia: Zuen 18 urteko semearekin kezkatuta zaudete. Ez dakizue zer egin.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: Hamalau heriotzena I

U. Mendizabal Eunean zazpi orduz
da logelan egon
gure hitzei ez die
egiten jaramon
ez dakit nondik hasi
zer egin, noiz ta non.
Nahiz babeska eskaini
on ein diezaion
lehenik jakin nahi nuke
zer pasatzen zaion.

M. Akizu Ni ere aspalditik
kezkatuta nintzen
ta aurrekoan hizketan
halaxe hasi zen
zioen bi begiak
malkotan bustitzen
mutil batekin ari
dela maitemintzen
baina zuri esaten
ez da atrebitzen.

U. Mendizabal Zuri bota dizkizu
hiruzpalau gezi
neri ez da ausartzen
ezin det sinetsi!
Ba nere partez esan
bihar edo etzi
nahiz ta mutil-lagun bat
joan zaion ihesi
horrela egoteak
ez dula merezi.

M. Akizu Orain esan guztia
aldatu egin dela
dena zen emakume
eta txotx kupela.
Mutilak barrua du
tristea, goibela
entzun izan du eta
sarritan horrela
portatu behar zuela
gizonak bezela.

U. Mendizabal Zuri kontatu zizun
hain xamur eta fin
bainan bere aitari
ezer esan ezin.
Neri errurik ez bota
laztana hain gordin
zuk`e erru pixka bat
badaukazu berdin
jakin ta ez badezu
ezer ere egin.

M. Akizu Uste al dezu ez diodala
egin hari kasu?
Bere ondoan egon
naiz oso indartsu
errua bota ez arren
errua daukazu
bere aho ixtea
ote enbarazu?
Akaso zuk begiak
zabaldu itzazu.

ZARAUZ

(2017-09-01)

Bertsolariak: J. Bergara, B. Jauregi, G.Urteaga, J. Illarregi, N. Sasco eta M. Arregi.

Gai emalea: Ion Zaldua.

Berrogeita batgarren edizioa izan zuen Lizardi Sariketak. Finala Modelo aretoan jokatu zen, sei bertsolari gazte oholtzan zirela.

N. Sasco

[2017-09-01 Zarautz Sariketa \[Bertsoa\] / Nahia Sasco](#)

Gaia: Estu heldu dizu eskutik.

Neurria: Hamarreko handia


Doinua: Oso polita zara izatez

N. Sasco

Bazen aspaldi osasunetik
ez zela dena arrosa
medikuarengana joateko
zen momentu aproposa.
Mila azterketa eta hor horra
medikuaren aitortza
nik bikotea nuen ondoan
ta unea ezin goxa
nahiz ta eskua hartu didan hark
ez zait lasaitu bihotza. (bis)

Minbiziaren diagnostikoa
hain bortitz ta hain apala
ta hitzik gabe gelditu nintzen
horren zuzen doa bala.
Etorkizuna ezin ikusi
nik nahiko nukeen bezala
bere eskua sentitu eta
ohartu naiz berehala
sekulan baino gehiago bere
beharra orain dudala. (bis)

Nahiz eta sortu zaidan segidan
neri sinetsi ezina
bera izanda nere bikote
mutiko printze urdina
buelta ematen luzaz egin dut
bere ondoan ahalegina
nahiz eta zaila izanen zaigun
goxatzen daukagun mina
eskurik esku gogor eutsi ta
eginen dugu aintzina. (bis)



BERTSO SAIOEN MUGIMENDUA

Baxenabarre	Jaialdiak	Plaza librekoak	Lagun-arte-koak	Ekitaldi-pekoak	Eske-koak	Didak-tikoak	Txape-lketak	Sari-ketak	Le-hiake-tak	Bereziak	Hitzal-diak	Guzti-ra
Agaramont	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Amikuze	0	1	2	1	0	0	0	0	0	1	0	5
Arberoa	0	0	1	0	0	0	0	0	0	1	0	2
Baigorri-Ort-zaize	1	3	1	1	0	0	1	0	0	1	1	9
Garazi	0	1	0	0	0	0	0	1	0	1	0	3
Irati	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Oztibarre	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	1
Guztira	1	5	4	2	1	0	1	1	0	4	1	20

Bizkaia	Jaialdiak	Plaza librekoak	Lagun-arte-koak	Ekitaldi-pekoak	Eske-koak	Didak-tikoak	Txape-lketak	Sari-ketak	Le-hiake-tak	Bereziak	Hitzal-diak	Guzti-ra
Arratia-Ner-bioi	8	7	8	0	0	0	1	2	0	5	0	31
Bilboaldea	18	18	21	2	0	0	5	9	0	20	8	101
Busturialdea	8	19	10	1	0	0	2	3	3	1	0	47
Durungaldea	14	21	12	2	0	0	3	4	2	8	3	69
Enkarterri	2	4	3	0	0	0	1	1	0	1	0	12
